

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-11-16  
EGUBAKOITZA  
530. ZENBAKIA  
12. URTEA  
DOAKOA  
GOIENA.NET  
TOKIKOM



BIBLIOTECA.COM

## Sortzaileen arima eraikitzen

Bergarako Idazle Eskolako gradu-ondokoak 10. urteurrena bete du; ospakizunetan dihardute | 41

GEHIGARRIA, BARRUAN  
Etxebizitza eta dekorazioa | 17



Topaketa egingo dute 40 bat  
autokarabanak Bergaran | 15



'Gigantes y cabezudos' zarzuela  
zapatuan eta domekan Arrasaten | 42

## BOLUNTARIOEI ESKER, BEHAR ASKO ASETA

Laguntza eskaerak gehien ugaritu zaien erakundeetako bat da Caritas; besteak beste, jantoki soziala ireki berri dute Arrasaten | 2



Boluntarioa bazkaria ateratzen Arrasateko Caritasen jantoki sozialean. | UBANE MADERA

## Kortazar Patagonian lehiatuko da asteburuan

Bertako maratoian  
parte hartuko du  
elgetarrak | 38

## "Orain guztion ahotan dabilena aspaldi salatu genuen"



Nekane San Miguel | Epaila | 10

## Inor erroldatuta ez duten 126 etxebizitza daude Elgetan

Bertako udalak igo  
egin du etxebizitza  
horien zerga | 37

## Durangon 400 nobedade baino gehiago izango da



Aurtengo kartela.

## Ekonomatoa sortu guran dabilta Aramaion

Aramailur, arduraz  
kontsumitzeko taldea,  
dabil lanean | 11

### SINADURAK



Teoriak, teoriar | 8  
AMAGOA LASAGABASTER

8 | Eurpeian eta gustura!  
ARANTZAZU EZKIBEL

Apokalipsia | 48  
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 7 | IRITZIA 8  
ELKARRIZKETA 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 38  
KULTURA 41 | ZURE IRAGARKIAK 43  
TELEBISTA-IRRATIA 44 | ESKELAK 45  
NON-ZER 46

943 71 48 45

## Hemen GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak,  
obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Carrefour GORBEIA

Azaroaren 27ra arte

## DATOZ DOAN

Garrefour

# 2. alea -%70

\*60€ baino gehiagoko erosketan eginda, Carrefour Gorbeira etortzeko AP-eko autobidea ordaintzen dizuegu.  
-Ezinbestekoa da autobideko tiketa aurkeztea.  
-Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.  
2013ko urtarrilaren 5a arte

# Boluntarioei esker, behar asko asetzen ditu Caritasak

- ▶ Jantoki soziala ireki berri dute Arrasaten
- ▶ Bertako jende gehiagok jotzen du Caritasera

## LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Krisiaren erruz, lehen pobreak zirenak orain pobreen artean pobreenak dira, eta behartsu berriak daude; edo, gutxienez, laguntza osagarria behar dutenak. Ohiko lekuetan topatu ez, eta laguntza bila hainbat erakundera jotzen dute. Laguntza eskaerak gehien ugaritu zaien erakundetako bat Caritas da. Eliza Katolikoak sortutako eta elizaren barruko karitate-erakundea da Caritas, eta ahal duen behartsu guztiak atenditzen ditu. Hala, Hego Euskal Herrian eta Espainian, ia 1.800.000 lagun inguru atenditu zituen, 2010ean baino 200.000 gehiago (Gipuzkoan, 24.619).

Elizbarrutietako boluntarioek osatzen dute Caritas, eta euren esker erantzun ahal zaie hainbeste jenderen premiei. Diru aldetik ere, batik bat jendearen eskuzabaltasunari esker egin dezake aurrera: ia, Gipuzkoako Caritasak 8,5 milioi inguru inbertitu zituen jendeari laguntzeko, eta hortik %61 baliabide propioak ziren. Arrasateko Caritasi dagokionez, ia 64.204,72 euroko diru-sarrerak izan zituen, eta gehiena -46.806,50- dohaintza pribatuetatik etorri zitzaion.

Debagoienan ez dago hainbeste pobreziarik. Baina hemen ere, Caritasak ahalegin berezia egin behar izan du azkenaldian. Zenbait proiektu garrantzitsu ditu martxan Debagoienan: bazterketa egoeran daudenei formazio ikastaroak eta lana topatzeko bitartekaritza; Inclusión Bergara deritzona, oinarritzko premiak betetzeko laguntza tailer baten jardutearen truke; eta aurrerantzerako beste bi: jangela soziala eta behar bereziak dituztenenak alokairu sozialak, Arrasaten.

## Eliztarren dirua bakarrik

Arrasaten, orain hiru bat urte azaleratu zen kalean bizi zirenen aterpetxe beharra. Hori Udalak egin zuen. Baina, hura osatzeko, jangela sozialaren beharra ere igarri zuten. Bada, jangela horrek oraintxe egin du bigarren astea zabalik. Uribarri auzoko apaiz-etxe ondoko kalean dago. Hantxe batzen dira astelehenetik domekara Horacio Argarate, Arrasateko parrokoa, eta egun horretako boluntario taldea: lauzpasei laguneko taldea, gehienak emakumeak. 10:00etan hasten da euren lana: Bergarako Elikagaien Bankutik egun horretako janaria ekarri, ogia erosi,

janaria garbitu eta prestatu -itxura eta usain ederreko platerak egiten dituzte, gainera-, mahaia ipini, dozena bat bazkaltiarri jaten eman eta, gero, dena garbitu.

Elizak GOIENAN egindako deiari erantzunez aurkeztu ziren



Bergarako tailerlean, etorkinak eta, zutik, Antonio Herzog, boluntarioa, eta Xabier Jorin

boluntario horiek, 35 bat. Guztiz doan egiten dute lan hori; lagun hurkoari laguntzeak ematen dien poza dute ordain bakarria. Diru aldetik ere, berdin, Horacio Argarate parrokoa azaltzen digunez: "Caritasen, eliztarren diruarekin finantzatzeko gara. Ez dugu beste

diru-iturririk, eta asmoa ez da hori ere. Aterpetxearen osagarria denez jangela, gure kabuz moldatuko bagina, aurrera egingo genuke bakarrik". Oraingoz, "jendea oso esku zabal portatu da, boluntario aldetik eta diru aldetik. Eskupeko garrantzitsuak jaso ditugu".

Jangela horretara bakarrik Arrasateko aterpetxean lo egiten dutenak joan daitezke. Parrokoak dioenez, "kale gorrian bizi den jendea da"; gehienak, etorkin ibiltariak.

## Pertsona bakoltza jarraitu

Baina aterpetxera eta jangelara joan dira bertako pertsonak ere: parrokoaren esanetan, "arazo larriak direla-eta, kalean geratu direnak". Eta, oro har, Debagoieneko Caritasen guardasolpera ere badoaz gero eta bertako biztanle gehiago; gutxi dira, baina lehen joaten ez zirenak. Adibidez, Arrasateko Caritasen atenditu dute 5.000 eurotik gorako zorra ezin ordaindu zegoen bizilagun bat; ordaindu ezean, kalean geratuko zen. Kasu horiek, diosku parrokoak, ez dira laguntzeko hain errazak.

Bergaran, Inclusión izeneko proiektua dute. Berezitasun bat

## ANTONIO HERZOG | BOLUNTARIOA BERGARAN

### "Sinetsita nago beharra duen edozeini lagundu egin behar zaiola"

Antonio Herzogek 69 urte ditu eta Bergarako Inclusión tailerlean begiralea da.

#### Zer egiten duzu Bergarako tailerlean?

Batez ere etorkinak datoz, eta harrera egiten diegu eta hemengo bizikidetzara eta lan arauak erakusten dizkiegu. Hasieran kosta egiten zaie, batez ere puntual izaten ikastea, baina ohitura hartzen joaten dira.

Bestalde, armosua eta bazkaria eta afaritarako zerbait ematen diegu. Hemen sukalde bat daukagu eta egunero eurentariko bi izendatzen ditugu, produktua

ematen dizkiegu eta euren prestatzen dute bazkaria.

#### Ondo moldatzen dira gurera?

Bai. Ondo tratatzen ditugula ikusten dutenean, segituan egiten dira eta ez dugu inongo bizikidetzara arazorik, bat ere ez. Eurengandik asko ikasten da, eta batzuetan euren ere sorpresak ematen dizkizute.

#### Zergatik diharduzu zuk?

Sinistuta nagoelako beharra duen edozeini lagundu egin behar zaiola. Ni, zorionez, lan hori egiteko moduan nago, eta pozik egiten dut. Hemen egiten dudanak halako lasaitasun bat ematen dit.

ARRASATEKO BASERRIKO  
PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2012  
azaroak 17

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN  
Engleku eta Garapen  
Ekonomikoen Salla

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta  
merkatariak konfiantza,  
herbitasuna eta kalitatea  
eskaintzen dizkizute.





Caritaseko langilea. | ARRITXU BARRUSO



Arrasaten Caritasek duen jangela sozialean, boluntarioak. | LEIRE KORTABARRIA



Caritasen harrera zerbitzua jasotzeko zain. | A.B.

hauxe da: lan-toki okupazional bat. Batez ere "etorkin etorri-berriak" dira han jarduten dutenak, proiektuko koordinatzaile Xabier Jorrinen esanetan. Errodamenduak egiten dituzte, eta trukean armosua eta bazkaria eta afarirako zerbitzu ematen

diete. Janaria etorkinek eurek prestatzen dute. Lantoki hori da eurak "elkartzeko eta hemengo ohiturak eta kultura erakusten hasteko" lekua, Jorrinek dioenez. Izan ere, Caritasen funtsezko helburua ez da unean uneko laguntza ematea, baizik

eta, batez ere, "pertsonek bakoitzarekin prozesu bat egin, harre-raren bidez"; haren egoerari erantzuten saiatu eta gizarteratzea lortu.

Hala ere, elkargune edo lantoki horretara joan dira bertako pertsona batzuk ere; "gutxi,

DATUA

1,8

MILIOI LAGUN

Horiek atenditu zituen iaz Caritas Espainiak; 2010ean baino 200.000 gehiago.

DATUA

%61

BALIABIDE PROPIOAK


Debagoieneko Caritasen diru-iturrien %61 dohaintzak dira.

## Logela eta komuna, 100 eurotan

Arrasateko Caritas gorpuzten dabil beste proiektu garrantzitsu bat: alokairu merkeak. Gesalibarren, mojek utzitako etxea dute, eta familia handi bat dago han bizi izaten; 200 euro ordaintzen dute. Abadetxean etxebizitzak zabaltzekotan daude, eta frantziskotarren komentua zenean ere, zazpi logela eta komuna dituen etxebizitza daukate; logela bakoitza 100 eurotan emango dute errentan, emakumeei. Aukeraturatu dituzte erabilgaitzak eta etxea garbitzen dihardute. Betiere, diruz oso larri dauden pertsonendako izango dira.

baina ale batzuk bai", lantokiko begirale Antonio Herzogen esanetan.

Gehienbat etorkinak dira oraindik ere Caritasera joaten direnak. Debagoien osoan, Caritasen oinarritzko lana etorkinari harrera egitea da, eta horretarako propio egoten dira boluntario batzuk. Bergarako boluntario Amaia Agirrebeñaren esanetan, "barrutik oso gaizki etortzen dira, familia eta dena atzean utzita, eta entzutea behar izaten dute". Hortik abiatuta, kasu individual bakoitzari erantzuna ematen saiatzen dira. Pertsona batzuk -batik bat, emakumeak- bideratzen dituzte lana errazago topatu ahal izateko formazio batera, eta ikastaroak antolatzen dituzte: batez ere, nagusiak zaintzekoa. Familia asko joaten dira Caritasera etxerako langile bila. Bergarako kasua nabarmena da: gaur egun, 180 lagun lanean daude hari esker. Arrasaten, iaz 176 emakumek topatu zuten lana Caritasen formazio eta bitartekaritzari esker.



## Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu

# EGUN BATEAN

hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.

Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.



Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako  
Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETAKO

# EAJ: "Atez ateko sistemak ez du zaborren arazoa konpontzen"

- ▶ EAJk dio sistema berria ez dela "pagotxa"
- ▶ Uste du "kalte ekonomiko handia" eragingo duela
- ▶ PSE-EEK "inposizioa" barik adostasuna eskatzen du

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Hondakinak batzeko gure ibarrean datorren urtean gauzatu behar den sistema aldaketaren aurrean, joan den urriaren 19an atez ateko horren gaineko bideragarritasun ekonomikoa eta gure ibarri ekarriko dizkion "onurak" azaldu genituen, Debagoieneko Mankomunitatearen ikuspuntutik. Orain, sistema horrekin bat egiten ez duten Debagoieneko alderdi nagusien (EAJ eta PSE-EE) argudioak jaso ditugu; izan ere, biek ala biek kritika zorrotzak egiten dizkiote atez atekoari. Eta oro har, errauskailuaren eta bosgarren edukiontziaaren aldeko hautua egiten dute.

## "Arazoa areagotzen"

Orokorrean, EAJk honako galderaren erantzuna gurako luke: *Birzikla eta konposta ezin daitezkeen hondakinekin zer egin?* EAJren ustez, hori da atez ateko sistemak "konpontzen ez duen gai garrantzitsua".

Horren harira, zera adierazi dute jeltzaleek: "Atez atekoaren ezarpena-errauskailuaren beharrik ez, hori izan da hasieratik okerreko eta gezurrezko planteamendua. Jendeak jakin behar du atez ateko bilketa sistemak ez duela Gipuzkoan dugun hondakin eta zaborren arazoa konpontzen. Eta bitartean, hondakinen kudeaketarik egiten ez delako, gure lurraldean arazo hau areagotzen ari da".

Baieztapen hori argudiatzeko, EAJk salatu du atez atekoa "%100 birziklagarria izango balitz bezala" aurkezten dutela, eta hori ez dela horrela: "Gezur bat hainbatetan errepikatuta ere ez da egia bihurtzen. Ezin da jendea iruzurtu".

## Errauskailuaren onurak

Bestalde, azpimarratu du atez atekoa Gipuzkoan Usurbilen jaio

dela. "Bertatik ikusten dira errauskailua eraikitzeo obrak, nahiz eta Zubieta Donostian egon", jakinarazi dute.

Horrekin lotuta, dena den, azaldu gura izan dute errauskailu hori "teknologiarik aurreratuena duen eraikuntza" dela, eta azpimarratu dute "edozein zabortegik baino askoz gutxiago kutsatzeaz gain, 60.000 familia gipuzkoarrentzat" argindarra lortuko dela bertatik. "Teknologia hau da Europako herririk aurreratuena eta ekologistenetan errauskailuak egiteko erabiltzen den azken puntako teknologia. Europako herrialde aurreratu huetan, errauskailu edo energia balioan jartzeko eraikinak, hiriburuetan bertan, jenderik gehien bizi den hiriguneetan, hau da, hondakin gehien sortzen den lekuetan daude eraikita. Zer erretzen da bertan? Birziklapen eta

konpostaje plantetan birzikla ezin daitekeena, eta baita araztegi guztietako lokatzak ere. Bilduk defendatzen duen ereduari, Diputazioak aurkeztutako ereduari, birzikla ezin daitezkeen hondakin hauek guztiak betiko lur azpian lurperatzea proposatzen da", salatu dute.

Ildo beretik, gogora ekarri dute Ingurumen Diputatu ohiak, Bildukoak berak onartu duela "errausketa ez dela berez txarra, baina helburu nagusia oztopatzen duela birziklatzearen bidean". Eta kontatu dute, baita ere, kazetari bati honako erantzun hau eman ziola: "Ez zenidan sekula entzungo errauskailuak kutsatzen duenik".

## Zabortegien kiratsa

Hala, eta errauskailua ez bada "ez txarra eta ezta kutsakorra" ere, EAJk ez du ulertzen zergatik EH Bilduk egiten duen "gehien kutsatzen duen" sistemaren alde: "Zergatik egiten du zabortegien alde? Gipuzkoako harrobiak zaborrez betetzea da aukeratutako sistema. Zabortegi berriak irekitzea, alegia. Orain bi aste Ormaiztegi bizi-lagunen kexuaren berri izan genuen usain txar eta kiratsak direla eta. Kirats hori botatzen dutenak ez dira etxean jasotako zabor organikoak... inerteak baizik. Hondakin hauek lixibatu eta ur kutsakorrak botatzen dituzte erreka inguruetan, bertako landare eta arrainak akabatuz", kontatu dute.

## Zaborren turismoa

Atez ateko sistemara bueltatuz, berriz, EAJk salatu du gaur egun sistema horrek, indarrean dauden herrietan (Hernani, Oiartzun, Usurbil eta Antzuola), "zaborren turismoa" eragin duela: "Zabor bilketa eta birziklatzerako banaketa jendeak geroz eta gehiago bere kabuz egin dezan, kontzientziazioa eta irakaskuntza erabili



Arrasateko Otalora lizentziaduna kaleko edukiontzien itxura ez da batere txukuna, EAJk

beharrean "inposatu" egiten denean, zenbait herritarrek ez dute sistemarekin bat egiten eta banatzeko esfortzurik egin gabe, dena zaku berean sartu eta inguruko herrietara eramaten dute. Aterapausoa besterik ez da hau. Mankomunitateak ez digute esaten zenbat jaitsi den hondakin kopurua Antzuolan atez ate ezarri geroztik. Ez digute esaten badakitelako Antzuolan jaitsi dena Bergaran eta Zumarragan igo dela. Argi egin ezan". (Bi sistemen arteko konparazioa, beheko tauletan).

## Bosgarrenaren onurak

Horrekin batera, bosgarren edukiontzia onurak ere azpimarratu gura izan dituzte jeltzaleek, adibideak erabiltzaileak: "Hondakinak edukiontzien bitartez bakarrik jasotzen dituzten lekuetan, bosgarren edukiontzia barne, sistema honen emaitzek denbora laburrean oso nabarmenki gora egin dute. Urretxun, adibidez, Bilduren gobernu dutelarik, baina gehiengo nagusirik gabe, bosgarren edu-

kiontzia ezarri zela zazpi hilabete besterik pasa ez denean, bilketa selektiboak % 35,5 gora egin du (ez bakarrik materia organikoan, edukiontzia guztietan baizik). Guztira ia %50era iritsi dira inolako inposaketarik gabe. Jendearen esfortzu pertsonalarekin".

Beste adibide bat ere ipini dute, beste edukiontzia mota batekin lotutakoa: "Zarautz dugu Bilduk gobernatzen duen beste herri bat. Kasu honetan edukiontzia berdea, errefusarena, astean egun batzuetan ixten hasiak dira. Zergatik? Hondakinen gaikako bilketa igo egin da edukiontzien ereduarekin eta igoera honek errefusa %20 jaitsarazi du".

Hori ikusita, EAJk uste du "tresnak jarriz gero, gipuzkoarrok oso ondo" egiten dugula hondakinen gaikako sailkapena "geroz eta gehiago birziklatzeko". "Ez dugu inolako gauzak nola egin behar diren erakusteko beharrik eta gutxiago oraindik inolako ezer inposatzeko beharrik", esan dute.

Salatu dute, baita ere, ibarreko edukiontzien baldintzak txar-

## ESANAK

"Europako herrialde aurreratuena errauskailuak hiriguneetan daude eraikita"

"Gipuzkoako harrobiak zaborrez betetzea da aukeratutako sistema"

## BI SISTEMEN ALDEA, EAJ-REN ESANETAN

EDUKIONTZIAK	ATEZ ATE
<b>Borondatezkoa</b>	Behartuta
<b>Garbia</b>	Zikina
<b>Merkea</b>	Garestia
<b>Intimitateari errespetua</b>	Intimitateari eraso
<b>Hiritar estetika</b>	Antiestetiko
<b>NOLA?</b>	
<b>Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa</b>	Inposaketa
<b>KUDEAKETA</b>	
<b>Udala eta Mankomunitatea</b>	Garbitania



salatzen duen moduan. | U.M.

ESANAK

**"Ez dugu inork gauzak nola egin behar diren inposatzeko beharrik"**

**"18 milioi euroko gastuak aurreikusten dituzte ibarreko bost herriotan"**

**PSE-EE: "Inposaketaren ereduaren aurka gaude"**

Sozialistek ere gogor kritika-tu dute atez ateko sistema eta hura ezartzeko erabiltzen diharduten bidea.

Hasteko, onartzen dute zaborteziak "gainezka" daudela, haien bizitza "agortuta" dagoela, argi ikusten dute erakunde aldetik zerbait egin beharra dagoela gai horretan, eta gogora ekartzen dute Gipuzkoan hasi ere hasita bazeudela zentzu horretan lanean eta lortuta zuten adostasuna apur-tuta dagoela gaur egun, Bilduren eraginez: "Hainbat urte debatitzen egon ondoren, Gipuzkoak orain dela urtebete hondakinen alorrean adostasun sendoa lortu zuen; alegia, hondakinek kudeatzeko modelo bateragarri bat lortu zuenean. Ez zen erraza izan erronka askoren ondoren akordio batera iristea; hala ere, beharrezkoak izan ziren erakunde eta politikarien arteko entendi-menduak lortu ziren. Adostasun hori dokumentu baten islatu zen, PIGRUG deritzona, non lurraldearen hondakinen kudeaketa ereduak garatzen den. Hondakinen kudeaketa eredu hau Europako herri ongizate, ekonomia eta ingurumen alorreko aurrerakoenetakoenekin bat egiten du. Baina Bilduko koalizioa erakunde eta helduekin bat, adostasun horiek apur-tu egin ziren eta konponbidea zegoen lekuan, orain, arazo galanta daukagu. Bilduk adostutako hondakinen plana geldiarazi du eta honen alternatiba bakarra atez ateko biltzeta izan da; honetaz gain, zaborteziak berriz ere zabaltzea proposatzen dute hondakinak bertan lurperatzeko asmoarekin, baina non egongo diren ez dute esaten".

Horren harira, pertsonetikiko, eta zehazki gipuzkoarrekiko errespetua aldarrikatzen du PSE-EEK: "Argi daukagu birziklapen tasak handitu behar direla, gaur egun ingurumenarekiko mehatxuak ezagutzen ditugulako. Baina pertsonen errespetua eta gipuzkoarren errespetua ere kontuan hartu beharrekoa da. Horregatik, Bilduren gobernatzeko inposaketaren ereduaren aurka gaude, ez dugulako uste alkate dekretu baten bitartez birziklapenaren tasak handituko direnik, herritarrei bai gauze bai egunez edo 'nik nahi dudalako' motako inposaketaren aurka gaudelako. Atez atekoaren aurkako sinaduren jasotzea izan da herritarren erreakzioa".

Uste dute "birziklapenaren beharrezkotasuna" erakutsi egin behar zaiela herritarrei, "informazio eta sentsibilizazio kanpaina bitartez", baina "inoiz ez inposaketaren bitartez".

**Errauskailua**

Bukatzeke, PSE-EEK, birziklapenaren alde egiteaz gainera, posible ikusten du duten helburua lortzea Zubietako errauskailuaren bidez: "Birziklapen tasa %60ra heltzea da, Alemania, Holandan edo Danimarkan lortzen den bezalaxe. Horretarako, hondakinen gutxitzearen, birziklatzearen eta berrerabiltzearen apustua egiten dugu, eta ezin dena edo sobran geratzen diren hondakinak ezin direlako birziklatu Zubietako plantan utziko lirakeke PIGRUG-ek jasotzen duen moduan".

Bada, sozialistek salatzen

dute hori guztia horrela izanda ere, Bilduk "atez ateko inposatzen" duela, horrek dakarren "zaborteziaren zabal-keta eta zaborrak garraio bitartez beste leku batzuetara eramateko erabakiarekin". Eta salatu dute, baita ere, Bilduk enpresa bati mesede egin gura diola hondakinen kontura: "Garbitania enpresari negozioa ematea da euren helburua, emate beharra dago, euren kontrolatzen duten enpresa dela, alegia. Beraz, Bilduren burugogorkeriek etorkizunerako gipuzkoarrei urtetako pisu latz ekonomiko eta ingurumen krisia utziko dizkigu".

**"Bildu erakundeetara helduez bat, adostasunak apur-tu egin dira"**

**"Bilduren gobernatzeko inposaketaren ereduaren aurka gaude"**

**"Hondakinak gutxitu, birziklatu eta berrerabiltzearen alde egiten dugu"**

**"Garbitania enpresari negozioa ematea da euren helburua"**

**Sistema hobereana behar**

Sozialistek salatu dute, baita ere, atez ateko sistema "inposizio" bidez ezarri gura dutela: "Atez atekoa hondakinak jasotzeko sistema bat besterik ez da, eta ez birziklapen sistema bat; beraz, inposizio honen aurka, sozialistok Gipuzkoa gehien birziklatzen duen lurraldea dela deritzogu. Adostu behar dena gure lurralde eta dentsitatearen tipologiaren arabera hondakinak jasotzeko sistemarik hoberenaren proiektu bat lortzea izan behar litzateke".

dituzten botoak baino askoz gehiago direla". Datuak ere eman dituzte: Legebiltzarrerako hauteskundeetan "EH Bilduk bost herri hauetan 12.649 bozka. Bost herri hauetan sinadurak: 16.700".

**la kostu bikoitza**

Eta datu ekonomikoak ere jarri dituzte mahai gainean, atez ateko sistema garestiagoa dela azpimarratu guran: "Orain hilabete Mankomunitateak lehiaketara atera dituzten kontzentratuta edo multzoetan... 18 milioi euroko gastuak aurreikusten dituzte eta Bergara, Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udaletako oposizio zinegotzietatik, bideragarritasun planak, bideragarritasun ekonomiko eta sistema berriaren nondik norakoen berri behin eta berriz eskatuta ere, Bilduko gobernuak uko egin diote, gardentasuna eta partehartzea baztertuz, eta baita zinegotzi guztiek euren lana egiteko beharrezko duten informazio eskubideari muzin eginez. Kontuan izan behar dugu bi eredu desberdin hauekin antzerako kopurua jasotzen dela selektiboki. Hernanin baditugu datu zehatzak: 22.000 biztanleko herri honetan, edukiontzi edo edukiontzien sistematik atez atekora pasatzean, 800.000 euro gehiago kostatzen da". Horregatik, EAJk galdetzen du ea udalak ez duen "dirutza hori gastatzeko edo inbertitzeko zaborretan gastatzea baino premia handiagoa duen beste lekurik".

**EREDUAK, EAJ-REN IKUSPUNTUTIK**

	BILKETA	AMAIERA
EAJ		
BILDU		

rrak direla: "Mankomunitateak ez ditu konpontzen edo behar denean berriak ipintzen. Edukiontzi marroiaz (organikoa biltzeko) ez da hitzik ere egiten eta lehendik zegoen lekuan, Aretxabaletan, erabat utzita dute."

**"Herriarekin kontatu gabe"**

Bestalde, gogorarazi dute "Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñatin sistema berriaren aurkako

milaka sinadura" jaso diren arren, ez dituztela "ezertarako kontuan hartu". "Herri partaidetzari buruz hitz egiten dute, baina herriaren partaidetzarik ez dute onartzen (dena herriarentzat baina herriarekin kontatu gabe). Inposizio bidea hartu du Bilduk eta kontuan hartu behar luke sinadura hauek atez atekoaren alde egiten duten alderdi eta koalizio politikoek azken hauteskundeotan atera

**EAJ: ERRAUSKAILUA VS ZABORTEGIA**

ENERGIA BALOREZTATZEA	ZABORTEGIA
(errauskailua)	
<b>Oraina eta etorkizuna</b>	Iragana
<b>Argindarra sortzen du</b>	Gas-emisioa
<b>Birzikla ezin daitekeenari etekina</b>	Mantenu kostu handiak (75M)
<b>Kutsaduraren aurkako filtroak</b>	Kutsadura handia
<b>Puntako teknologia</b>	Herririk atzeratuenean eredu
<b>Aukera jasangarria da</b>	Euroaren helburua: denak ixtea
<b>Eskumena: Partzuergoa</b>	Eskumena: Partzuergoa

ITURRIA: EAJ



Negozia baldin badaukazu,  
iragarki hau zuretako da

# Asmatuko duzu!

## goienagida

Sarean | Mugikorretan | Tabletetan | Paperean



Google-n azkarrago  
topatuko zaituzte.




Google Maps bitartez  
topatuko zaituzte.




Zure negozioaren eta  
produktuen irudiak.



Zuzeneko deia egiteko  
aukera.



Geolokalizazioa.



'Nola joan' aukera.




Papereko edizioan zure negozioaren berri 20.700 etxetan.



## goienagida

# 2013


**OÑATI**  
**BERGARA**  
**ANTZUOLA**  
**ELGETA**  
**ARRASATE**  
**ARETXABALETA**  
**ESKORIATZA**  
**LEINTZ GATZAGA**  
**ARAMAIO**


**Gidan azaldu**  
**gura baduzu,**  
**garaiz zabilta.**  
**Deitu 943 25 05 05**  
**telefonora.**

# Euskal Herriko jakintzuak Bergaran izango dira gaur

Oraingo asteen inauguratu dute Jakiunderen egoitza, Bergarako OIaso dorrean dagoena

U.M./Z.V.D.M. | BERGARA

Jakiunde, Zientzia, Arte eta Letren Akademia, zientzia, artean eta letretan adituak diren zenbakidun 12 kide berriek kargua hartzeko batzarra egingo du. Eta lehen aldiz, batzar hori akademiaren beraren egoitza berrian (Bergarako OIaso dorrean) egingo dute.

### Jakintzuak eta ezagunak

Jesus Mari Ugaldek, Jakiunde presidentea gidatuko du batzarra, baina ekitaldian akademiako jakintzu guztiak izango dira, guztira, 56 lagun, horien artean zazpi dira unibertsitate-erretore, adibidez, eta gurera etorrita, Josu Zabala MUko erretorea. Eta izen esanguratsu batzuk aipatzearren, Jakiunde-kide dira, adibidez, Bernardo Armendariz zinemagilea, eta jakina, Pedro Migel Etxenike zientzialaria da akademiako ohorezko presidentea.

### Egoitza inauguratuta, asteen

Oraingo asteen bigarren aldia da Jakiunde kideak Bergaran elkartzen direla. Izan ere, martitzenean Bergarako egoitza inauguratu zuten. Hain justu, historia handia duen OIaso Dorreko azken solairuan dago akademia. Horrek esan gura du, besteak beste, bost urteetan Euskal Herriko lurralde ezberdinetan bildu dela Jakiunde akademia bilerak egiteko eta hemendik aurrera berriz, Debagoienean elkartuko direla.

Akademiaren bulego operatiboa Donostian izango da; han jardungo du Jakiunde idazkariak, baina Bergaran ere aritu ahal izango da. Ugaldek Goienari esandakoaren arabera, Bergarako "aukera ona" da Bergarentzat eta Jakiunderentzat. "Herriarendako akademia izatea nahiko nuke, ohiko akademiatik alden du eta jakintzuendako bakarrik izan beharrez, herritar guztiendako izan dadila".

# Debagoiena "EH Bilduren proiektuarekin bat"

U.M./G.A. | ARRASATE

Koalizioko ordezkari debagoienarren esanetan, urriaren 21eko hauteskundeetan bailarako herri guztietan EH Bilduk irabazi izanak erakusten du "debagoienarrek

bat egiten" dutela euren proiektuarekin. Dena den, gauzak "oraindik ere hobeto" egin behar dituztela adierazi zuten martitzeneko prentsaurrekoan, Debagoienean nahiz Gipuzkoan aurreko hautes-

kundeetan baino boto gutxiago lortu dituztela onartuta.

Aurrera begira dituzten erronkak aldaketa politikoa eta soziala direla azaldu zuten, eta, muturreko egoerei erreferentzia eginiz, bere burua leihotik bota zuen Amaia Egaña izan zuten gogoan. Heriotza hori ez da kasualitatez gertatu, euren esanetan, "kapitalismo basatiaren" ondorioz baizik, eta gaineratu zuten guztiok dugula zer hausnartu, boterean egon diren eta dauden alderdiek, batez ere.

Horrekin lotuta, epe motzera, bizi dugun emergentzia sozialeko egoerari aurre egiteko lan egingo dutela hitzeman zuten, besteak beste, etxe-desjabetzeak gelditzen ahalegintzeko presioa "areagotuko dutela eta instituzioetan ez dituztela murrizketa sozialik egingo."



Joseba Ugalde, Enrike Letona, Mainer Otamendi eta Joxe Etxeberria. | PERU ARREGI

# Eguazteneko grebak oso erantzun txikia izan zuen Debagoienean

ENEKO AZKARATE | DEBAGOIENA

Grebak ez du apenas eraginik izan ibarrean. Bailarako enpresa ertain eta handi guztietan lan egin zuten normaltasunez, udaletan ere bai, eta berdin ikastetxe gehienetan; ikasle batzuk kalera irten ziren.

Eguazteneko lehen orduan CCOO sindikatuak egindako lehen balorazioaren arabera, greba deialdiak Debagoienean izandako jarraipena "porrota" izan da. Jarraipen "oso txikia" izan dela adierazi dute, gutxi batzuk baino ez zirela kalera irten-afiliatuak, gehienbat-eta "etsipen" handia izan dela eurentzat.

### Mobilizazioak gurean

Edozelan ere, eguazten iluntzean hainbat ekimen egin zituzten murrizketen aurka eta Espainiako Gobernuaren gizarte politiken aurka.

Arrasaten, ESK, ESTE-EILAS eta Ahots Kooperatibistak deituta, 40 bat lagun elkartzu ziren pankartaren atzean *Murrizketen aurka* lelopean. Oñatin, berriz, burujabetza ekonomikoa eta egoera errotoaldatzeko neurriak aldarririkatu zituzten, besteak beste, EH Bildu osatzen duten koalizioko alderdiek eta beste hainbat eragilek.

# Zapatuan eta domekan AHTren aurkako baraualdia izango da

Mugitu! AHTren aurkako mugimenduak baraualdia egingo du, AHTk platera hutsik uzten digu lelopean. Ekimena zapatuan hasiko da, Bilbon, eta Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan, bakoitzean astebeteko baraua egingo dute. Batetik besterako bidean, bi egun egingo dituzte Debagoienean: 17an Antzuolan eta 18an Arrasaten.

# Iban Arantzabal da Goienako zuzendari nagusi berria

Inazio Arregi ordezkatzuz. Goienako Errektore Kontseiluak hautatu berri du. 37 urte ditu eta elgetarra da. Sorreratik dihardu Goienan. Telematika alorrean jardun zuen, gero ikus-entzunekoetako zuzendari eta, azkenekoz, antolaketa zuzendari. Iban Arantzabali elkarrizketa sakona egingo dio du datorren asteen.

**TOYOTA**

## 75 URTEURRENA

**APROBETXA ITZAZU BERE ABANTAILAK TOYOTA GAMA OSOAN**

**Finantzaak**  
7 urteko erretiroa

**Garantia**  
5 urteko

### Toyota Auris Diesel

**14.990 €** -ren truke edo hilean **185 €** -ren truke  
Sarrera: 2.834 € - 185 euroko 84 kuota. TIN: %6,42, TAE: %7,5

**2.800 €** balio duen ekipamendu honekin.

PIVE PLANA BARNE

# EuskoAuto

www.euskoauto.toyota.es

**BERGARA**  
Olabarra, 2/g  
Tel: 943 762 385

**ELGOIBAR**  
Olaso industrialdea  
Olaso kalea 23 - Tel: 943 747 417

**PASAIA ANTZO**  
San Markos errepeidea 32  
Tel: 902 345 245

**OLABERRIA**  
Karubi industrialdea  
Tel: 943 805 926

**TOYOTA** Finantzaak eta abantailak bere abantailak dira.

Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,5. CO2 igorpena (g/km): 118

## ZABALIK



AMAGOIA LASAGABASTER  
http://goiena.net/iritzia/

## Teoriak, teorian

Duela gutxi Madrid-Arenan gertatutako ezbeharrak nire teoria zoro horietako bat baieztatu dit. Festara, mozkoztara, musika entzutera, drogatara eta ondo pasatzera zihozten gazteak elkartu ziren, eskubide guztiarekin, urriaren 31ko gauean aipatu lekuan. Zoritxarrez, 10.000 lagun inguru sartzen ziren pabiloi itxian 20.000tik gora sartu zirela baieztatu dute hainbat iturrik... Dirudienez, *litroak* edaten zeuden milaka lagun gerturatu ziren festara sarrerarik gabe. Hortxe ezbeharrak, batzuk barruan, eta kanpokoak barrura sartu nahi. Badakizue zenbat polizia zeuden festa hori kontrolatzen? 12 polizia municipal.

### "Festara doazen gazteak, joan daitezela lasai, kontrolrik gabe"

Beste behin Madrilen. Irailaren 25ean, Kongresu aurrean egindako manifestazioa. Milaka gazte, 6.000, datu ofizialen arabera, euren aldarrikapenak egiten. Horiek ere eskubide guztiarekin. Badakizue zenbat polizia zeuden horiek kontrolatzen? 1.500 polizia nazional lepo armaturik! Harrapazak!

Ondorioa: festara doazen gazteak, joan daitezela lasai, inongo kontrolrik gabe, aingeruak baino zintzoagoak dira eta guztiak... Baina adi! Gazte horiek protestatzera, euren eskubideak eskatzera badoaz, orduan egurra! Bazter nahastaileak besterik ez da-eta!

Onartzen dut nire teoria ez dela oso zientifikoa; Naomi Kleinen *La doctrina del shock* liburuan azaltzen denak, ordea, guztiz konbentzitu nauka. Kleinek baieztatzen du askotariko hondamendiak aprobetxatzen dituztela agintariek gizarteak beste egoera batean onartuko ez lituzkeen neurri bidegabeak onartzeko.

Eta gure egoerara ekarrita. Krisi garaia bizi dugu, langabezia izugarriarekin, pobrezia geroago eta gertuago... eta beldur kolektibo hori aprobetxatuz erreformak eta erreformak egiten dabilta. Pentsioak jaitsi, jubilatzeke adina gehitu, soldatak gutxitu, ikasketak garestitu, ongizate zerbitzuak pribatizatu... teoria soila ote?

## USTEAK USTE

ARANTZAZU EZKIBEL | aezkibel@goiena.com

## Euripeian eta gustura!

Dagoeneko pasau xat hankako mina. Domekia egun ederra izan zan antxintxika egiteko, ez hainbeste ikusteko, baina bai antxintxika egiteko. 21.000 bat lagun Behobian, akaso larrei; halabe, hau gustuko dogunok asko disfrutau geben! Zorionak, antolatzaileei! Modan dau Behobia-Donostia egittia, baina kontuan hartu bihar da 20 kilometroko lasterketia dala. Modan dauelako, danok egiten dauelako, egin bihar dala... ez dau merezi! Benetan antxintxiketean disfrutaitten dozula, hori da lasterketa bat egiteko motibo onena! Eta kirol honetan hasteko modua, berriz, herri lasterketak. Santamasetako krosa eta San Silvestria bertan dauz. Hasi preparaitten!

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Ez damu, ez ahalke

Aritz Galarraga  
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Behin hitz egingo irratiantzat eta, hara, lotsagorrituta atera nintzen. Hamaika galdera nituen aurreikusita, baina ez garrantzitsuenak, kolpetik egin zidatena: zer ari zara orain ikusten? Eta, ez motz ez nagi, zintzurretik gora igo zitzaidan saioaren izena, bulkada itotzeko denborarik izan gabe. Lotsagorrituta atera nintzen, onartuta daukat. Ez naiz damu, ez ahalke: *¿Quién quiere casarse con mi hijo?* zen ikusten ari nintzen saioa. [...]

Kapaz bagara gure jarrera militantea astean ordu eta erdiz stand by uzteko, kapaz bagara gure izpiritu kritikoa astean ordu eta erdiz bide ertzean uzteko, kapaz bagara gure ideiak usteak aurreiritziak astean ordu eta erdiz zintzilik uzteko, bada, barre egingo dugu gogotik.

Nik, behintzat, hala egin dut, hala baitago saioa pentsatu-prestatua. Ezin da bestela ikusi, ezin da bestela irakurri: umore saio bat da *¿Quién quiere casarse con mi*

*hijo?* Eta han agertzen den gizajo kuadrilla, aspaldi handian ikusitako aktore talderik natural-bikainena. [...]

Baina seguru batek baino gehiagok zerrendatuko lukeela niretzat bizitza honetako plazerik behinena den hauxe: gauean esnatu, iratzargailuak jotzeko, nik zer dakit, lau, hiru, pare bat ordu geratzen direla ikusi eta buelta erdi ematea.

Bada, gauza bertsua gertatu zitzaidan joan den ostegunean *¿Quién quiere casarse con mi hijo?*-rekin. Finala espero nion, aste bete atzera semeek aukeratuak baitzituzten jada hautagai definitiboak.

Baina saioak eman dituen momentu onenen aukeraketa bat pasatu zuten, gala baten gisara. Engainatua sentitu ote nintzen? Ez, keba. Garai aurreko iratzartzearekin bezala, poz poxi bat hartu nuen, eta biharko eguna itxaroten hasi nintzen atsegin handiz.

Egia da luzatzen ari dela kontua. Egia da saioak aurrera egin ahala puntua galdu duela nabarmen, jada ez dela hasierako hura. Egia da ez nukeela denboraldi berri bat hasiko, aguantatuko. Baina zenbat barre egin dugun bien bitartean.

## Futbolaren monopolioa kiroletan

Joxe Aranzabal  
http://goiena.net/blogak/farao/

Herenegun 21.472 lagunek lasterka egin zituzten Behobia eta Donostia banatzen dituzten 20 kilometroak, euria goian behean ari zuela.

Lasterkariaren artean denetik zegoen: euskaldunak, espainiarrak, frantsesak, alemanak, ingelesak, zaharrak eta gazteak, neskak eta mutilak... Eta milaka horiei animoa ematen, beste horrenbeste edo gehiago.

Behobia-Donostia da munduan egiten den lasterketarik ederrren eta ikusgarrienetako bat. Lasterkariengatik, publikoarengatik eta ibilbidearengatik. Sekula bertan parte hartu duenak badaki zelako emozioak sentitzen diren lasterketa horretan.

Hala ere, igandean bertan, ETBren kirol saioan, gauean, zerekin uste duzue ireki zutela saioa? Futbolarekin, betiko moduan, Behobia-Donostia astero korrituko balitz bezala. Inertzia madarikatua.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

**Lehendakaria** Estepan Plazaola

**Zuzendari nagusia** Iban Arantxabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ubane Madera  
**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa


**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
**ARRASATE 20500:**  
Utalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**  
**ARETXABALETA 20550:**  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Lego Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## Elkartasuna Arcelor Mittal-eko langileekin!

**Ibon Artola**

(EHS aldizkariko kidea)

Debagoiena

Arcelor Mittal-en helburua are gehiago aberastea da, langileak pobretzearen kontura. Mahai gainean ditu %34ko soldata murrizketa, soldatak izoztea 2015a arte, lanorduak handitzea 96 ordu (12 egun gehiago) eta antzinatasuna eta beste eskubide batzuk suntsitzea. Gainera, beren proposamena onartzen ez bada, lan erreformak ematen dizkien aukerak indarrez inposatuko dituztela mehatxatzen dute.

*Euskal Herria Sozialista*-k babes osoa eman nahi die Arcelor Mittal-eko langileei eta antolatatu dituzten mobilizazioei.

Zerbaitetarako balioko dute enpresak planteatutako eraso guztiek? Zenbat kontzesio gehiago egin behar dituzte langileek? Ezerk ez du ematen nahikoa. Ez dago azken sakrifiziorik, enpresak beti aurkitzen du langileen lepoa estutzeko arrazoiren bat. Etengabeko xantaiarekin, beste modu batera irentsaraztea oso zaila izango liratekeen lan baldintzak inposatu nahi dituzte. Horregatik, sindikatuek atzerapausoa ekarriko lukeen edozein akordiori ezezkoa eman behar diotela uste dugu, honek ez bailuke balioko enpresaren erasoak geratzeko, bera are gehiago harrotzeko baizik.

Posible da eraso geratzea, langileen arteko batasun handienarekin. Borrokan langileen batasun handiena lortzeko, oinarritzakoa da Batzar Orokor bateratuak antolatzea, langileek mobilizazio eraginkorren plana erabaki eta bozkatzeko. Borroka ez da erraza, baina enpresa gogor doa eta langileak asko jokatzen ari dira. Batzuek behin eta berriro sinetsarazi nahi dutenetik urrun, enpresa ez da ahalguztiduna, langileok indarra dugu, handia, ondo erabiltzen bada.

Beharrezkoa da greba eta mobilizazioen egutegi argia antolatzea, langileei konfiantza emateko beren indarretan. Baina beharrezkoa da lehen unetik gatazka kanpora ateratzea, elkartasuna eta batasuna bilatzea Europako Arcelor Mittal-eko beste fabrikekin, Goierrin eta Euskal Herrian borrokan ari diren sektore guztiekin (Corrugados, Cementos Lemona, Guardian, Gamesa...). Arcelor Mittal-ek zatiketa eta beldurra erabiltzen baditu langileak beren artean aurrez aurre jartzeko, langileek batasun eta elkartasunaren alde egin behar dute apustu. Arcelor Mittal-eko borroka milaka langilerentzako erreferentzia puntu bihur daiteke. Hau gertatzen bada, enpresak jasan beharko lukeen presioa

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunak, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak bame). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

ikaragarria izango litzateke eta beren planak atzera botatzeko posible izango litzateke.

Murrizketen, kaleratzen edo itxieraren mehatxuen aurrean beharrezkoa da alternatiba argia defendatzea: enpresaren birnazionalizazioa langileen kontrolpean. Egin daitekeen sindikalgintza errealista bakarria gure eskubideak defendatzeko mobilizazioan eta langileen batasunaren indarrean oinarritzen da.

## Mendebaldeko Sahara eta azaroa

**Agurne Juldain**

(Nubi elkarte)

Arrasate

Herri sahararrak urte gehiegi daramatza borrokan bere askatasuna eskatuz, bere eskubidea aldarrikatuz. Urte asko izanik borrokan daramatzanak, bereziki urte osoko hilabete batek erakusten digu herri sahararrak bizi duen egoera gatazkaren lehen egunetik. Hilabete deigarrienetakoa dugu azaroa, hilabete luzea eta odolez margotutakoa.

1975eko azaroaren 6an hasiera eman zitzaion Martxa Berdeari, Marokok Mendebaldeko Sahara indarrez hartzeko emandako lehen pausoa. Urte bereko azaroaren 14an Espainiak, Marokok eta Mauritaniak hiruko hitzarmena sinatu zuten Mendebaldeko Sahara Maroko eta Mauritania artean banatzeko. Herri sahararra Marokoko errege hiltzailearen eskuetan gelditu zen eta gaur egun jarraitzen du.

2010eko azaroaren 8an Marokoko erreprezio indarrak Aaiungo hirian sahararrekin jasotako Gdeim Izik kanpamentuetan indarrez sartu ziren, bertan zeuden 20.000 sahararrei indarrez eraso eginez. Kanpamentuaren helburuak herri sahararraren giza eskubideen bortzaketa salatzea eta herriaren askatasuna eta autodeterminazioa eskatzea ziren. Urte gehiegi daramatzagu sahararrak eta haien lagunak garenok haien eskubideengatik borrokan. Bitartean gatazka honen arduradun nagusiak, Espainiako Gobernuak, beste alde batera begira segitzen du.

Idatzi honen bitartez Arrasateko Nubi Elkarteak Arrasateri gogoratu nahi dio herri sahararrak gatazkan segitzen duela, atxiloketek eta giza eskubideen urraketek Mendebaldeko Saharan jarraitzen dutela, azken egunotan Mendebaldeko Saharatik herri sahararraren alde egunero borrokatzen dugunon zenbait lagun indarrez bota dituztela. Baina egunetik egunera herri sahararrak bizi duenaren egia kaleratzen segituko dugu. Herriak askatasuna eta autodeterminazio eskubidea lortu bitartean, Nubik gatazkaren salaketa egiten segituko du, urte asko igaro arren Espainiako Gobernuari ardura eskatzen segituko du eta Maroko hiltzailea den salaketa egiten segituko du. Herri sahararrak, beste herri batzuek bezala, bere etorkizuna zein izango den erabakitzeko eskubidea duelako.

Autodeterminazioa eta independentzia herri sahararrentzat! Maroko errudun, Espainia arduradun.

## Eskerrik asko!

**Aitor Rementeria**

(Antxintxika triatloi taldea)

Bergara

Antxintxika triatloi taldeak eskerrak eman nahi dizkie Antxintxika lasterketa egiteko laguntza eman diguten guztiei. Denda, lantegi, boluntario eta herritarrei. Denon laguntzarik gabe ez zatekeen posible izango aurrera eramatea. Eskerrik asko, animatzen egon zineten guztioi, jendea hurrengo urtean bueltatzeko gogoarekin joan baitzen. Eskerrik asko, denoi.

## Gallinerotik Bergarara

**Gotzon Iparragirre**

(Mariaren Lagundia Ikastola)

Bergara

Ahal izan dugun kariño eta ilusio guztiaz euren bisitaldia prestatzen saiatu gara. Eta etorri ziren, eta joan dira; Gallinerotik bisitan etorri zaizkigun 37 ume eta 4 begiraleez ari gara. Elosu aldeak harritu zituen hasieran, harritu bere edertasunaz, berdetasunaz, behe-laino finaz... larrean ari ziren ardiek

ere bai, nola ez, eta egia esateko, ardiak ere harritu ziren eurekin, hartantxe maisu baitira: inor axolagabe ez gara geratu euren aurrean, ardiak ere ez. Etorri ziren geroago, Donostia, Aquariumeko arraintxoak, Gomiztegiko Artzain Eskola eta Arrikrutz, Elosuko zaldiak...

Bizi izandakoa kontatzea eta bizitzea gauza bera ez diren lez, eskertu nahi duguna eta hitzez adierazi ahal duguna ere ez. Hala ere, eskerrak ikastolako gurasoei, askoren jarreragatik, eta bereziki, arropa guztiagatik, langileei, emandako guztiagatik, Lehen Hezkuntzako ikasleoi, Gallineroko umeak nola hartu dituzuen moduagatik, Aquariumeko Fundazioari, Arrikrutz eta Gomiztegiko arduradunei, Elosuko zaldi-haztegiko arduradunari, Elosuko auzo-lagunoi, izan duzuen laguntzeko jarreragatik, jateko hainbat produktu eman diguzuen guztioi, eta batez ere, Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleei, zuek barik hau ez zen-eta posible izango.

Ume batzuen oinarritzak eskubideak bete zitezten nahi izan dugu, lau egunetan zehar bakarrik izan bada ere. Jakin dugu umeak Gallinerora iritsi zirenean ze aurpegi zoriontsuz iritsi ziren. Horrekin geratuko gara, horrekin, eta transmititu diguzuen bizi-nahi, ilusio eta alaitasunaz, horixe dauka-eta emateak: ematen dena baino gehiago jasotzen dela. Eskerrak, guztioi!

## Eskerrik asko!

**Txaro Iraeta**

(Arizmendi Ikastolako zuzendari

orokorra)

Arrasate

Joan zen ostiralean Arizmendi Ikastolako antzerki taldeak eta herriko hainbat kultur taldek, elkarrekin, *Asaba zaharren oihartzuna* antzezlanaz aurkeztu zuten Arrasateko Amaia Antzokian. Ikastolak Nafarroako konkistaren bostehungarren urteurrenaren abagunea aprobetxatu nahi izan du ekimen hori egiteko; izan ere, Arizmendi ikastola izanik, euskal kulturaren, hizkuntzaren eta historiaren transmititzailea ere bada.

Egin den lanak, esfortzuak eta partaideek jarri duten ilusioak fruitu ona eman dutela ikusi ahal izan genuen

ostiralean. Eskutitz honen bidez, bertan parte hartu zuten guztiei eskerrik beroena bidali nahi diegu; izan ere, euren partaidetzari eta ekimenari esker barruraino iritsi zitzaigun obra bat ikusi ahal izan genuen. Eskerrik asko, beraz, Arrasateko gaiteroei, Txikitxu-Arrostaitz dantza-taldeari, Goikobalu-Arizmendi abesbatzari, jantziez arduratu den Maria Gonzalez eta Arizmendi Ikastolako antzerki taldeari. Eskerrik asko, halaber, gure deia erantzunez, bertara hurbildu zineten herritarroi ere. Mila esker, guztioi!

## Kukumiku, esandakoak argituz

**Nerea Altuna Arkauz**

(Kukumiku elkarteko kidea)

Aretxabaleta

Azaroaren 5ean, asteleheneko *Goiena*-n, Aretxabaletan sortu berri den Kukumiku elkarteari buruzko erreportaje bat azaldu zen. Eskerrak eman nahi dizkiogu komunikabide honi gure asmoen berri ematen laguntzeagatik. Dena den, zuzenketa pare bat ere egin nahi genituzke gaizki ulertuak ekidin aldera, guretzako garrantzitsua baita.

Alde batetik, elkarte ez da hazkuntza taldea. Elkarte haur txikiak dituzten familientzako topagune bat da. Eta topagunea diogu, zentzu zabalenean. Hazkuntzan laguntzeko taldeak, berriz, elkartetik antolatatu ditugun lehenengo jarduerak izan dira eta momentu honetan hiru talde daude martxan. Hilean behin, bi orduz, hainbat guraso elkartzeko dira hazkuntzari lotutako hainbat gai lantzeko. Bertan, bakoitzaren bizipenak elkarbanatzeko aukera izaten dugu, baita profesional baten ikuspuntu objektiboa jasotzekoa ere. Hazkuntzan laguntzeko taldeez gain, beste hainbat ekintza burutzeko asmoa dugu. Joango gara honen guztiaren informazioa helarazten.

Bestalde, gure elkarte liderrik gabeko taldea da. Bazkideok asanbladan hartzen ditugu erabakiak eta egunerokotasuneko zereginak lantaldeetan banatu ditugu. Hazkuntzan laguntzeko taldeetara etortzen den pertsona hurrengo hileetan, eta espero dugu urteetan, bisitan etorriko zaizkigun pertsonen parekoa da, guretzako erreferentzia bat, baina inondik inora ere liderra.

Gure kolektiboa nahiko ezegonkorra dela esaten dugu maiz. Denbora ez dugu soberan eta ahal dena ahal denean egiten saiatzen gara, poliki-poliki, baina ilusio handiz. Nahi duenak zabalik ditu ateak.

**Nekane San Miguel** | Epailea

# "Orain guztion ahotan dabilena aspaldi salatu genuen, baina ia inori ez zitzaion interesatu"

- ▶ Epaile arrastearrak etxe husteez, tasa judizialez eta euskararen normalizazioaz dihardu
- ▶ "Euskararen normalizaziotik urruti gaude, bai Administrazioan, bai eguneroko bizitzan"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Etxe husteen kontuak bazterrak nahastu ditu eta irteerak topatu eta legea aldatze aldera, Espainiako Gobernu eta oposizioko alderdi nagusia negoziatzera behartu ditu muturreko egoerak. Epaileek ere egin dute berba. Guk ere epaile batengana jo dugu, emakumezko epaile arrasatear eta euskaldun batengana, Nekane San Miguelengana. 1976an hasi zen abokatu lanetan eta 1991 ezkerer da epaile. Gaur egun, Lurralde Auzitegian, Bilbon.

**Etxe huste prozesuren batean epailek ematea egokitu zaizu?**

1997a ezkerer Zigor Arloko Epaitegi eta Auzitegian ari naiz lanean, eta etxe huste prozesuak zibilekoak dira; hala ere, oso gertutik jarraitu dut epaile lagunen kezka, eta mina konpartitu. Gogoan dut duela urte bi inguru, epaileon arteko bilera baten azaldutakoa, gaur egungoa aurreikusten genuelako eta indarrean dagoen legediak etsipena areagotzen zigun, interpretazio gutxitarako baitago. Zehatza eta bortitza da.

**Esaten da etxe desjabetzen legea zaharkituta dagoela; duela 100 urte ingurukoa dela eta ez dela eguneratu edo gaurkotu. Hala dela uste duzu?**

Bai, hala da, baina desjabetze eta etxe hustea oso gai korapilatsua da, hari-mutur asko ditu lege aldaketaren bidez bakarrik konpontzeko.

**Hala ere, epaileon aldetik abusuz ohartarazi duzue. Ez da ohikoa horrelako adierazpenak egitea, ezta?**

Gure kolektiboan, beste guztietan bezala, denetik dago (gaude) eta askotan ohartarazten dugu hainbat legeren injustiziaz, baina ez du beharko lukeen oihartzunik izaten. Prentsak ozenki ez badu aireratzten zerbitu, badirudi ez dela, eta orain guztion ahotan dabilena guk aspaldi salatu genuen, baina ia inori ez zitzaion interesatu orduan.

**Oraingoan, bankuek edo finantza erakundeek hartutako erabakiaren arabera, muturreko egoeran daudenei desjabetzea urte bi atzeratuko ei zaie...**

Bueno, ez dute ezer galtzen horrekin. Kontua atera: desjabetzearen dauden etxe horietakoekin ezin dute kreditua ordaindu; ezta etxetik botako dituztela aginduta ere. Etxea hustu eta zer irabazten du Bankuak etxe husten jabe izanik, gaur egun etxe salmenta eta prezioak dauden bezala? Badakite kreditua eman zutenean jarri zitzaizen balorazioa, urrutitik ere,



Nekane San Miguel epaile arrasatearra. | GOIENA

ez dutela lortuko gaur egun. Prozesuak kostu batzuk ditu, eta azkenean zorpetuaren bizkarre-ra badoaz ere, aurreratutako behar du Bankuak.

**Hortaz, legea aldatu beharra ikusten duzu?**

Dudarik ez egin, baina hemen legeak hedabide batzuen deien arabera aldatzen dira, eta hori ez da serioa. Edozein lege aldatzeko, aurrea azterketa sakona egin beharko litzateke. Lehen esan dudan moduan, alde, arrazoi eta historia diferentea dago desjabetze bakoitzaren atzean, hasieratik: zeinek eskatu zuen kreditua? Zertarako? Zein berrerekin? Ez dugu ahaztu behar etxetik kanporatu dituzten asko eta asko edadeko jendea dela, eta ez zutela kreditua etxea ordaintzeko eskatu, seme edo alaba bati laguntzeko baino. Abalista bila-

**"Hipoteken legea zehatza eta bortitza da; interpretazio gutxirakoa"**

**"Legeak hedabideen deien arabera aldatzen dira, eta hori ez da serioa"**

katu dira Bankuari ez ziolako nahiko berme ematen zuzenean zorpetzen zenak, ez zuelako Bankuak inolako seguritatekerik kreditu horren dirua bueltan jasoko zuenik. Eta hemen kontu larriena dator: informazio falta. Zalan-zarik ez dut banku eta kuxetako langileek ez dutela informazio zuzena eman esaterakoan. Badakit enplegatu horiek ere euren Zuzendaritzaren presiopean direla, baina nola esplikatu ohi da kreditu hartzaileak ez badu ordaintzen, zer-nolako kopurutan sartzen den abalista? Desastre honen errudun asko dago, kontsumismo eta arinkeriaren filosofia ahaztu gabe. Nahastu ditugu bizileku duin baterako eskubidea, batetik, eta jabegoa, eta ez dugu ezarri lehena babesteko baliabide eta tresnarik.

Gai konplexuegia da, orain PP eta PSOEk bi astetan ezer konpontzeko. Berriz diot, hainbat kontu berraztertzen ez badira, hemendik gutxira okerrago egon gaitzke.

**Beste kontu bat da tasa judizialena. Zela ikusten duzu?**

Ba, zer esango dizut, beste desastre bat. Duela 30 urte inguru kendu ziren tasak, eta orain diote epaiketa gehiegi dagoela, jendeak oso arin eta bidegabe jotzen duela epaitegietara. Hori ez da egia. Salbuespenak salbuespen (kontu guztietan moduan), jendeak ez du epaitegira jo nahi. Nire lanbidea izan arren (alde baten edo bestean 36 urte daramat lan

bide batzuetan azaldu dira Abokatu Kolegioen keak. Badakizu txanda berezi bat dela pobreziaz aritzen direnentzat, zeinetan abokatuei Administrazioek ordaintzen dieten lana (exkax diote). Bada, dirudienez, ordainketa urri horiek egiteko ere arazoak sortu dira... Esango didazu!

**Krisiak eragina justizian ere...**

Ez egin dudarik, aipatutakoez gain, beste hainbeste eta gehiago ere, badira.

**Euskara justizia arloan erabileran ere nabarmentzen da krisia?**

Egia esan, ez dakit nondik hasi kontu honetan. Gaur egun Erki-de Autonomoaren Epaitegietan euskaraz jardun ahal izateko baliabide asko dago. Hainbat prozesutan erabiltzen diren eredu eta inprimakiak euskaratuta daude; funtzionarioen artean, nik behintzat, euskara gehiago entzuten dut, eta azken gobernuak atzerapausoak eman dituen arren, datorrenak bidea berriz hartuko duenaren esperantza nago. Hala ere, eskubide urraketak nabarmenak dira. Duela urte eta erdi Europaren Batzordeak aldiro egin behar duenaren txosteneko datuak ematera joan nintzen, eta adierazi nien zein nolako egoeran gauden. Azaldutako guztia (bai abokatu talde batek, bai erabiltzaileek, eta bai nik, Euskaditik epaile *salatari* bakarra izan nintzen arren) duela gutxi Batzordeak berak eta Kontseiluak publiko egin duen txostenean jaso zen, salatutakoa egiaztatu ondoren. Oraindik asko dago egiteko, baina batez ere euskaldunon artekoa da lana, eta alde horretatik oso kezkatuta nago, gure jarrerarekin gure hizkuntza, gure anima hondamendira eramaten ari ote garen. Duela aste batzuk Arrasaten, euskararen erabilera erreklamatzeko gertatu zitzaidan historia lotsagarri bezain iraingarri baten berri emateko asmoa nuen Arrasateko hedabideetan, gutun baten bidez. Gutun hori prestatuta nuen, elkar-hizketa honetarako zuen deia jaso dudanean.... Administrazioa eta Agintea salatzen dugu, baina gertukoek jarrera bortitza egiten dituzte, euskararen erabilera zokora, bazterreran botatzean, hori baita eremu jakin batzuetara mugatzea erabilera, eta ez onartzea normalizazioaren lehen urratsa ekitaldi guztietan euskarak presentzia izatea dela. Normalizazio bidetik oso, oso urruti gaude, bai Administrazioan, oro har, bai eguneroko bizitzan.

**"Gai konplexuegia da, orain PP eta PSOEk bi astetan ezer konpontzeko"**

**"Euskararen asko dago egiteko, baina euskaldunon artekoa da lana"**

# HERRIAK

ARAMAIO

## Era ekologikoan eta arduraz kontsumitzeko konpromisoa

- ▶ Aramailur kontsumo taldea ekonomatua sortzeko lanean ari da orain
- ▶ Bertako zein Euskal Herriko denetariko produktuak sartu dira saskian

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Hamar familia inguru dira egun, baina gehiago izateko esperantzaz dihardute. Helburua, kontsumitzeko modua aldatzea, bertako eta sasoiko produktu ekologikoei lehentasuna emanda. Duela bi urte sortu zenetik, Aramailur kontsumo taldea indarra hartzen ari da Aramaion. Azken asteotan, gainera, leku fisiko bat eman die Udalak, Aramaixo Basarri Barri proiektuaren barruan dago-eta.

Orain arte udaletxeko arkupe azpian elkartzen ziren eta orain hiltegi zaharra dute egoitza: "Saskia hartzeko gelditzen garen bitartean, gure artean bertako produktuak kontsumitzeko ohitura bultzatu gura dugu", diote. Bertako produktuen zerrenda luzea da oso: esnea, arrautzak, gazta, ezti, barazkiak, frutak, babak, sagardoa, sagar-zukua, txikoa, untzia, oilaskoa, txorizoa...". Prezioa ekoizleak zehaztu ohi du. Bestalde, Aramaion ekoiztu ezin diren produktuez ere gozatu gura dute: "Euskal Herriko txoko ezberdinetako produktu ekologikoak ekartzen hasi gara, kontsumo ohitura jasagarriagoak bultzatu eta herrian ekoizterik ez dauden elikagai osasuntsuak herritarren eskura jartzeko".

**Aurkezpen eta zabaltze fasean** Leku fisiko bat izanda, Aramailur-eko kideek espero dute herritar gehiagok egingo dutela bat proiektuarekin: "Aurkezpen eta zabaltze fasean murgildu gara, jende asko interesaturik egongo dela uste dugu-eta. Ez da dendaririk egon-



Kontsumo taldeko kideak martitzenero elkartzen dira hiltegi zaharrean. | J. BEREZIARTUA

go, gure artean antolatuko ditugu lan txandak. Beraz, ekonomatua sortzeko herritarren inplikazioa ezinbestekoa izango da: produktuak lortu, ekonomatua txukundu, mahaiak eta apalak ekarri...". Era berean, zenbait produktu ekartzeko ordainketak aurrez egin

behar direnez, hasieran diru maila egingo duten herritarrek ere behar dituzte: "Nolabait dirua aurreratuko duen jendea, behin martxa hartuta itzuliko dena". Ekarpina 50 euro izatea aurreikusitako dute, ez gehiago. Aurrera begira bazkideza bidez funtzio-

### KANPOKO JAKIEN PREZIO ZERRENDA

PRODUKTUA	PREZIOA	KOPURUA
Urteko ardoa	2,75 €	botila
Kriantza ardoa	4,00 €	botila
Berakatzak	0,65 €	burua
Olioa	5,00 €	litroa
Aroza: integrala	2,88 €	kiloa
Aroza: erdiint.	2,96 €	kiloa
Arroza: zuria	3,04 €	kiloa
Garbantzuak	3,12 €	kiloa
Lentejak	3,12 €	kiloa
Espelta irina	2,12 €	kiloa
Zekale irina	1,08 €	kiloa
Esparragoak	4,07 €	potea
Gorringoak	1,87 €	potea
Piperrak	2,03 €	potea
Orburuak	4,73 €	potea
Shitakea	2,03 €	potea
Tomatea	1,00 €	potea

natuko luke ekonomatua, eta kanpoko produktuei –ikus goiko zerrenda– gehigarri txiki bat ezartzea "beharrezko" ikusten dute, garraio gastuak ordaindu ahal izateko. Interesatuak ager daitezela hiltegi zaharrean; edozein martitzenetan, 19:00etan.

JOKIN OROBENGOA  
ARAMAILUR-EKO KIDEA

**"Bertako produktuek ez dute irteerarik; hutsune hori betetzera goaz"**

Aramaion bizi den Jokin Orobengoa arrasatearrak eman digu Aramailur kontsumo taldearen azken urratsen berri.

**Urrats berriak egiten ari zarete. Zeintzuk?**

Duela bi urte udaletxeko arkupean elkartu ostean, Udalak, gurea Aramaixo Basarri Barri fundazioaren barruan dagoen proiektua denez, hiltegi zaharra utzi zigun produktuen trukea egiteko. Leku fisiko bat oso garrantzitsua da, elkartu eta produktuak gordetzeko.

**Zertarako kontsumo talde bat Aramaion?**

Gure helburua da Aramaion bertan ekoizten diren produktuei irteera ematea, herritarrek bitartekari barik jaso dezan. Izan ere, bertako produktuek ez dute irteerarik; hutsune hori betetzea da gure asmoa. Bestalde, Aramaion ekoizten ez diren beste produktu ekologiko batzuk ere hasi gara ekartzeko.

**Nola lan egiten duzue?**

Baserritarrek konpromisoa hartu dugu astero saski bat kontsumitzeko. Era berean, baserritarrek konprometituta dira urtean zehar sasoiko produktuz osatutako saskia astero banatzeko.

**IparProject**

www.iparproject.com  
info@iparproject.com

Barne diseinua - Gremioen koordinazioa  
Erreforma eta ekipamendu integrala  
Altzariak eta merkatuko lehen markak



**BERGARA**  
Telleria 23 - D5 pabilioia. Labegarieta industrialdea  
Tel.: 943 76 98 30 / Faxa: 943 76 52 44

**AZPEITIA**  
Landeta auzoa. Atxubiaga 5 - Behea  
Tel.: 943 15 03 33 / Faxa: 943 15 73 16

## Bizkaia etorbideko igogailua ireki dute, 5.000 euroko konponketekin

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE  
Asteon erabilgarri jarri dute Bizkaia etorbideko igogailua, urriko azken asteburuan apur-tuta agertu ostean. Udaleko Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Sailak hasieratik pentsatu du "ekintza bandaliko" bat izan dela, otsailean ere igogailuak antzeko beste eraso bat jaso zuen-eta. Hala, Bizkaia etorbidean ipinita dauden bideokameretako irudiak aztertzen dihardute erantzuleak identifikatzeko.

Kalteak berehala konpon-tzeko erabakia hartu zuen alkatezak, igogailu hori herritar askok erabiltzen dute-eta. 5.000 euro baino gehiagoko kostua

izan dute konponketek eta Orona enpresa, igogailu horren mantentze kontratua duen enpresa bera, izan da lanok egin dituenak.

**Sauna berria kiroldegian**  
Bestalde, asteon onartu da Tokiko Gobernu batzarrean Musakolako kiroldegian sauna berria jartzeko lanak Juper enpresari esleitzea. Lanok 7.500 euro inguruko aurrekontua dute; aurkeztu diren hiru enpresetatik merkeena aukeratu du Udalak, eskaintza guztiak egokiak direla pentsatuta. Erabiltzaileen eskaerak aintzat hartu dira, beraz, eta laster sauna berria izango da kiroldegian.



Udazkeneko produktuak nagusituko dira bihar baserritarren azokan. | ARTXIBOA

## Urteko azken baserritarren azoka egingo dute bihar

'Berria'-ri laguntzeko tonbola bat ipiniko dute

**ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL**  
Udazkeneko produktuak nagusituko dira bihar Seber Altube plazan egingo den baserritarren azokan. Urteko azken azoka izango da, abenduan Santamasetan izango baita hitzordua. Hamazortzi postu egongo dira bihar azokan: lau Arrasateko baserrietakoak, sei Debagoienekoak, artisau arrasatear bat, Harremannen postua...

Jesus Romero sukaldariak pintxoak prestatuko ditu, beste

behin ere, eta herritarrek denboraldiko produktuekin egindako jakiak dastatu ahal izango dituzte. "Doan izango dira azokako bezeroentzat, zerbait eros-tearekin pintxo baterako txartela eskuratuko baitute". Hala adierazi du Marga Garmendia udal teknikariak.

**Tonbola, sekulako opariekin**  
*Berria*-ri laguntzeko tonbola egongo da biharko azokan. AEDko Itxaro Artolak Arrasate Irratiari adierazitakoaren arabera, zarata apur bat eginez diru bilketa txiki bat egin gura dute. Bertan, Ibai-Arteko zenbait dendak, Astorek, Arrasateko euskalgintzako taldeek eta *Berria*-k berak emandako produktuak irabazi ahal izango dituzte parte-hartzaileek, euro baten truke.

### PSE-EEK enplegua sustatzeko eskaera egin dio alkateari

Enplegua sustatzeko Udal Gobernuaren "ekimen falta" salatu dute: "Ezohiko egoera baten aurrean ezohiko neurriak hartu behar dira, krisiari aurre egin eta enplegua sustatzeko", adierazi du Aritz Arrietak. Gainera, uste du Bilduren erruz 2011a eta 2012a krisiaren aurrean galdutako urteak izan direla.

### OHARRAK

#### 1959AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 24an bilduko dira. 3035 0202 70 2020039448 kontu zenbakian 55 euro sartu, hilaren 17a baino lehen.

#### 1976AN JAIOTAKOAK

Abenduaren 1ean elkartuko dira. 40 euro sartu behar dira 3035 0001 50 0010101654 kontu zenbakian, izen-abizenak jarrita, azaroaren 26a baino lehen.

AUTOA ALDATU, BEREHALA. [www.citroen.es](http://www.citroen.es)

**CITROENK PIVE PLANA HOBETZEN DIZU**  
APARTEKO PREZIOEKIN.

**CITROËN C4**  
11.800€-tik aurrera  
NABIGATZAILEA, MULTIMEDIA  
ETA RADAR OHARTARAZLEA

CITROËNek nahiago du TOTAL

**CITROËN C3**  
7.990 €-tik aurrera\*

**CITROËN GRAND C4 PICASSO**  
12.900 €-tik aurrera\*

TABLET NABIGATZAILEA, MULTIMEDIA  
ETA RADAR OHARTARAZLEAREKIN.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 igorpena (g/km): Citroën C3: 3,4-6,7/87-155. Citroën C4: 4,2-6,4/109-148. Citroën C4 Picasso: 4,9-7,0/129-175

\* Prezio gomendatua Citroën C4 Vti 95 Business, Citroën C3 Vti 68 Attraction eta Citroën Grand C4 Picasso Vti 120 First autoendako (zergak, garraioa, eskaintza eta Pive plana barne), Pive planari eusten dioten eta trukean beste auto bat utzita Banque PSA Financeren bidez gutxienez 6.000 euroko kapitala eta 36 hilabeteko (Citroën C4 eta Citroën C4 Picasso autoentzat) eta 48 hilabeteko (Citroën C3) finantzaketa egiten duen bezero partikularrendako. Hilabetea amaitu arte, eskaintza dagoen salmenta puntuetan. Ikusten diren modelook: Citroën C4 Exclusive, C3 Exclusive eta Grand C4 Picasso Exclusive. Tablet nabigatzailea: Vexia Navlet 2 Android 4.0. Eskaintza ez da bateragarria. Baldintzak [www.citroen.es](http://www.citroen.es) webgunean kontsultatu.



**T. CHAPIME**, San Andrés Auzoa 5 • ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22 • Fax: 943 77 10 47

### ZALDIBAR

#### EMAITZAK

At. Betraye - Sonografos	4-8
Aston Birra - Fidel & Discipulos	2-5
Iluntz - Iriztu	3-10
Lasagabaster - Ostantz	1-2
Haizea's Weah - Iluna	6-2
Aldatz - Dribling	2-12

#### SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Dribling	3	1
2 Iriztu	3	1
3 Sonografos	3	1
4 Haizea's Weah	3	1
5 Fidel & Discipulos	3	1
6 Ostantz	3	1
7 Lasagabaster	0	1
8 Aston Birra	0	1
9 Iluna	0	1
10 At. Betraye	0	1
11 Iluntz	0	1
12 Aldatz	0	1
13 Abokajarro	0	0

#### PARTIDUAK

##### HILAK 17, ZAPATUA

10:30 Haizea's Weah - Dribling / Iluna  
11:30 Abokajarro - Iluna / Dribling

12:30 Sonografos - F & D / Abokajarro

##### HILAK 18, DOMEGA

10:30 Aston Birra - Ostantz / Iriztu

11:30 Aldatz - Iriztu / Ostantz

12:30 Lasagabaster - Iluntz / Aldatz

Atsedena: At. Betraye

### Lehen jardunaldian, favoritoek hutsik ez

Sorpresa aipagarriarik gabe hasi da txapelketa. Favoritoek nagusitasunez irabazi dute: Sonografos iazko txapelkunak 4-8 eta Driblingek 2-12.

### Partiduak goizez

Aurten inoiz baino talde gutxiago daudenez, antolakuntzak erabaki du partiduak goizez bakarrik jokatzeko.

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotritate eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

**Goiena i-rent**  
Ibilgailuen alokairua



- **IBILGAILUA ERAMATEN DIZUGU:**
  - LANTOKIRA
  - ETXEKO ATARIARA
  - AIREPORTURA...
- **ETA ABENDUKO ZUBIA BEZ BARIK DISFRUTA EZAZU!!!**

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

**943 71 66 52 / 619 44 71 75**

[info.goienarent@i-rent.es](mailto:info.goienarent@i-rent.es)  
[www.goienarent.com](http://www.goienarent.com)



# Bigarren fasean sartu berri da azoka biziberritzeko plana

Azaroa amaierarako lantalde guztiak martxan egotea gura dute GUREZTATUKO kideek

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Azoka biziberritzeko planak bigarren fasea hasi berri du. Hau da, orain arte ideietan zentratu badira, proiektuari berari forma ematera igaroko dira datozen hilabeteotan GUREZTATUKO lagunak.

Hitzordua udaletxeko pleno aretoan izan zen, martitzenean. Bagarako Nagore Iraolak bertaratutakoan artean ilusioa igartzen zela nabarmendu du: "Lanerako prest, ilusioz ikusi ditugu deialdira gerturatu zirenak. Pentsatzen genuen moduan, gainera, jende ugari etorri da".

Hain zuzen ere, 40 bat pertsonak hartu zuten parte mar-

titzenean, "udal ordezkariak, herri eragileak eta herritarak".

## Lanean hasteko unea

Datozen asteetan lantalde ezberdinak martxan ipintzea da orain asmoa. "Horretarako, interesatzen zaien taldean eman dute izena: batzuk finantziario gaia landuko dute, besteek kudeaketa eredu edota proiektu arkitektonikoa".

Ez dute adierazi hurrengo bilerak noiz egingo dituzten. "Taldea bakoitzak bere denbora beharko du gaia lantzeko, izan ere, zenbait gairi forma ematea beste batzuei baino errazagoa izango dela badakigu".

## The Ricky C Quartet-en punka gaztetxean eta Razorlight-en britpopa Taupan

J.D./Z.V.D.M. | ARRASATE

Londresetik irten eta Gaztetxean hartuko du lur The Ricky C Quartet taldeak bihar zapatua. Base erritmiko sendoak eta aurreneko unetik sutua den ikuskizuna emango dute ingeles. Beraiekin Dirty Brothers eta Zantarrak taldeak arituko dira, 22:30ean hasita.

## Razorlight Taupan

Londresetik dator baita Razorlight. Estadioak bete izan ditu eta oraingoan, lagunartean emango du kontzertua. Sarrera mugatuak ipiniko dituzte salgai. Astelehena 19:00etan hasita Britainia Handiko zerrendetan lehenengo postua lortu izanaren arrazoia erakutsiko dituzte.

arbolapeta



arrasate

★

beinke

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

## Arkeolan, Erdi Aroko gazteluaren aztarnen bila

San Viator ondoan induskatuko dute, gazteluaren defentsa sistema osotasunean ulertzeko asmoz

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalaren baimena lortu ostean -asteon onartu da Tokiko Gobernu batzarrean-, Arkeolan fundazioak indusketa kanpaina berria abiaraziko du Erdi Aroko gazteluaren defentsa sistema osotasunean ulertzeko asmoz. Santa Barbara goialdean, Goikobalun, gazteluaren azken defentsa lerroa osatzen zuten dorre eta murrak identifikatu ostean, aurtun behe-rago egingo dute lan, San Viator eskola ondoan. Izan ere, arkeologiek uste dute azken lerroa baino lehenago, muinoaren beheal-

dean, murre gotortu bat eraiki zela, etsaia geldiarazteko lehen elementu moduan: "Gazteluondo kaletik Santa Barbarara igotzen den bidearen ondoan kokatzen den eremuaz ari gara. Dorre hau ezaguna da begien bistan geratzen delako, eta, momentu honetan erabat estalita dagoen arren, zailtasun handirik gabe identifikatzen da haren morfologia", adierazi du Mertxe Urteaga indusketa arduradunak. Urteagak jakinarazi duenez, eguraldiak laguntzen badu gaur bertan egingo dira indusketak. Metro erdi



lazko indusketa Goikobalun. | J.B.

bider metro bateko eremua induskatuko dute; eskola ondoan dagoenez, eremu handiagoak babes neurriak handitzea eskatuko luke eta. Goizean ireki, gunea induskatu eta arratsaldean erretena berriro ixtea planteatzen dute.

## Xarma ile-apaindegia: "Zure edertasuna eta ongizatea axola zaigu"

Eskaintza berriekin dator Arrasateko Xarma ile-apaindegia. Gorputz tratamenduak aurkeztu dizkigu: erlaxatzekoak dira batzuk, gorputz pizgarriak beste batzuk...



Erlaxatzera gonbidatzen duen txokoa.

“ Ilea apaintzeaz gainera, ilearen osasun eta estetikan azken joerak aurkituko ditu bezeroak Xarman. Eta baita tratamendu ezberdinak ere: masajeak, peelinga...”

**E**sme, Mirian, Carmen, Iraia, Maider eta Izaskun; etengabe ezagutzak birziklatzen diharduen taldeak osatzen du Arrasateko Xarma ile-apaindegia. Ilea-apaintze eta osasunean eta estetikan azken joerak aurkituko ditu bertan bezeroak, bai eta mota askotariko masaje eskusiboak ere.

Bezeroari bere irudirik onena bilatzen lagundu nahi diote, eta zerbitzuen zerrenda luzea ipintzen dute bakoitzaren eskura. Besteak beste, Xarmako bezeroek berrikuntza, erosotasuna, gustu ona, kalitatea eta prezio bikaina aurkituko dute, betiere familia giroan sentituta.

**Ongizatea opari**  
"Emaiozu ezustekoa maite duzun horri ahaztuko

ez duen esperientzia baten bidez". Horretarako, Xarmako tratamendu eta produktuak opari egin daitetzke, direla masaje erlaxagarriak, edo lurrin-olioekin eginkoak, zein edertasun errituak... "Gainera, abenduaren 15era arte, *Secretos del agua* aurpe-

gi-tratamendua probatuz gero, gorputzeko masaje lasaigarria opari egingo dizugu".

**Tratamendu ugari**  
Dituzten tratamenduen artean bi nabarmendu dituzte: "*Total experience* osatuena da, oinetako

masaje bat, gorputz peeling bat, eta lurrin zein buruko eta aurpegiko masajeaz osatua dago".

Bigarrena, berri, *Xarma fusion* da: "Lurrin masaje lasaigarria harri bolkanikoen energiak uztartutako tratamendu paregabea".



xarma  
edertze zentroa

Olarte 31, ARRASATE  
943 79 91 25

Uraren sekretuak aurpegi-tratamendua proba ezazu eta erlaxatzeko

**masajea opari**  
egingo dizugu.\*

\* Baliagarria abenduaren 15era arte.



Leire Iruin zinegotzia informazio bulegoan egongo diren bi teknikariek batera. | ARRITXU BARRUSO

# Atez atekoaren gaineko zalantzak argitzeko bulegoa

Informazio bulegoa Oxirondo azokako bigarren solairuan egongo da

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Hasiera batean ipinitako data atzeratu egingo den arren, gero eta gutxiago falta da Bergaran atez ateko zabor bilketa sistema abian ipintzeko. Udalaren asmoa da 2013-ko lehenengo hiruhilekoaren amaieran ipintzea martxan; hau da, martxoaren amaiera aldera. Momentua gerturatzen doala-eta Udalak informazio bulegoa ipini du Oxirondo azokako bigarren solairuan. Datorren egubakoitzean, azaroak 23, irekiko ditu atea.

Bulegoa irekita, ze fasetan dago atez atekoa martxan ipintzeko prozesua? Ingurumen zinegotzi Leire Iruinen esanetan, Debagoieneko Mankomunitatean "lan handia egiten ari dira": "Atez atekoa martxan ipini ahal izateko hainbat proiektu lehiaketara ateratzen eta beste batzuk adjudikatzen ari dira: zintzilikarioak, kuboak... kudeaketa bera... Prozesua poliki doan arren, badao aurrera".

**Zintzilikarioen zirriborroa prest**  
Zintzilikarioei dagokienez, Udalak dagoeneko badauka zirriborro bat; hau da, zintzilikarioak non ipiniko diren zehazten duen proposamena, baina jendaurrean erakutsi aurretik auzoz auzo herritarrekin batu nahi dute. Bestetik, Ingurumen zinegotziak aurreratu

## MAIZTASUNA

HONDAKINA	ASTEAN ZENBATETAN
<b>Organikoa</b>	3 aldiz
<b>Plastiko arinak</b>	2 aldiz
<b>Papera</b>	1 aldiz
<b>Errefusa</b>	1 aldiz

## Bulegoko ordutegia

**Astelehenetik eguenera:**  
10:00-19:00.  
**Egubakoitzean:**  
10:00-14:00.

## DATUA

# 3

EMERGENTZIA GUNE

**Bat erdigunean egongo da eta bi herriaren kanpoaldean, erraz aparkatu ahal izateko.**

du hiru emergentzia gune egongo direla Bergaran, hondakinak edozein unetan eraman ahal izateko: "Bata erdigunean eta beste bi herriaren kanpoaldean egongo dira, autoarekin joan eta erraz aparkatu ahal izateko. Baserri-auzoendako apartazio guneak ere egongo dira".

### Hilaren 23an hainbat ekimen

Hilaren 23an Hondakinak Ekiditeko Europako Eguna dela aprobetxatuz, informazio bulegoa irekitzearekin batera beste hainbat ekintza egingo dituzte azokan bertan.

17:00etatik 18:00etara haurrendako tailerra egongo da Gabonetako apaingarriak egiteko. Komeni da neska-mutikoei erabiltzen ez dituzten CDak etxetik eramatea. Ondoren, txokolate-jana egongo da guztiendako. 18:00etatik 19:00etara konpost ikastaroa egingo da eta 19:00etan inaugurazio ofiziala egingo dute, Mikel Lascurain aktorearen esketx batek lagunduta. Bulegoaren irekiera lunch batekin amaituko da.

Datorren egubakoitzetik aurrera lau teknikariek jardungo dute lanean informazio bulegoan; horietatik bik herritarren zalantzak argituko dituzte eta beste biek "bulego barruko lanak" egingo dituzte.

## Santa Zeziliaren bueltan musika eta kontzertuak han eta hemen

A.B. | BERGARA

Santa Zezilia edo musikarien eguna ospatuko da datorren egunean, hilak 22. Hori horrela, hainbat izango dira Bergarako musikariek egingo dituzten agerraldi eta ekimenak.

### Bandaren kontzertua etzi

Udal Musika Bandak domekan, hilak 18, ospatuko du musikarien eguna. Kontzertua eskainiko dute pilotalekuan, 12:00etan. Alfredo Gonzalez Chirilaqueren zuzendaritzapean honako piezak entzun ahal izango dira: *Cántame un pasodoble*, *El pescador de perlas*, *Broken vow*, *The Sound of Music*, *Big Band in concert* eta *Sagarpe*, hain zuzen ere.

### Musika eskolak egunean

Musika Eskolako guraso, irakasle eta ikasleek egunean bertan, datorren egunean, ospatuko dute egun handia. Hori horrela, ohiko eskolak beharrez hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Santa Zezilia egunerako.

17:30ean Gazte Bandarekin batera Musika Eskolatik plazara kalejira joango dira. Ordu berean, eskolako txistulariek Barrenkalen eta Ariznoan kalejira egingo dute eta trikitilariak Mizpirualde egoitza etorriko dira. Ondoren, emanaldi txiki bat egingo dute plazan; bukatzeko, guztientzako txokolate-jana egongo da.

### Lotsak alde batera utzi eta gerria apur bat mugitzen ikasteko, salsa ikastaroa gaztetxean

Joan den urtean izandako arrakasta ikusita, salsa ikastaroa errepikatuko dute gaztetxean. Antolatzaileen esanetan, "jende desberdina ezagutu eta gerria mugitzeko" aukera aparta izango da. Zapatuan, hilak 17, gaztetxean elkartzeko dira, 11:00etan, eta adierazi dute hamabostean behin egingo dutela. Lotsak alde batera utzi eta ikastaroan parte hartzea animatu nahi dituzte gazteak.

### Doctor Deseo taldeak zapatuan Bergaran bukatuko du 'Al amanecer seguir soñando' diskoaren bira

*Al amanecer seguir soñando* diskoaren biraren bukaera kontzertua emango du Doctor Deseo musika taldeak bihar, zapatua. Hontza elkarteak antolatutako kontzertua da, Bergarako Udalaren laguntzarekin. Emanaldia 21:30ean hasiko da. Taldeko abeslari Francis Diezek pasa den astean Goienari adierazi zion kontzertu berezia izango dela eta inor ez dela damutuko bertara joateaz.

### Pol-Pol taldeak mendiko materialen bigarren eskuko azoka txikia egingo du hilaren 26tik 30era

Pol-Pol taldeak mendiko materialen bigarren eskuko azoka txikia egingo du. "Mendiko materiala baduzu, egoera onean, eta ez baduzu erabiltzen, ekarri azokara. Beharbada, material hori beste norbaitek erabil dezake eta zuk diru pixka bat ateratu", diote elkartetik. Material batzea azaroaren 19tik 23ra egingo dute eta azoka 26tik 30era Udal Pilotalekuko bulegoan.

### Bergara Garbiak Legazpiko atez atekoaren kontrako manifestazioan parte hartzeko dei egin du

Bergara Garbia plataformako kideek dei egiten diete hondakinak batzeko atez ateko sistemaren kontra dauden herritarrei gaur, egubakoitzean, Legazpin egingo den manifestazioan parte hartzeko. *Birziklapena bai, atez atekorik ez* lelopeko manifestazioa izango da, 19:00etan.



**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

## TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93



Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

# Topaketa egingo dute 40 bat autokarabanak Labegaraietan

Turismo mota hori erakartzeko gune bat egokitzeko aukera aztertzen ari dira

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Autokarabanisten topaketa antolatu du Udaleko Turismo Sailak Sorbeltz elkartearekin batera astebururako. Gaur, egubakoitza, hasi, eta domekara bitartean, Euskal Herri osotik etorritako 40 bat autokarabana batuko dira gurean; guztira, 80tik gora pertsona batuko dira.

David Zapirain Turismo teknikariaren esanetan, "Bergarak bete egiten ditu autokarabanazaleek -baita furgonetan mugitzen direnak ere- bilatzen duten giro mota. Bizitza du, ondarea, mendia... Toki aparta da asteburuko bisita egiteko, bai eta bidaiia luzeago batean geratu eta atsedean hartzeko ere". Eta gehitu du: "Euskal Herrian ehunka dira turismo mota horretako zaleak eta Bergara ez dago euren zirkuituetan txertatuta". Hori dela eta, Bergara eta autokarabanazaleak elkartu nahi ditu Udaleko Turismo Sailak. Azken batean, Bergararendako ere "halako turismo edo aisialdi mota interesgarria delako".

## Turismo mota hori herriratu

Udalaren helburua da turismo mota hori herrian "naturaltasunez hartzea eta haren jariora fin-

**ESANAK**

**"Turismo mota hori herrira ekarri nahi dugu"**

DAVID ZAPIRAIN | TURISMO TEKNIKARIA

**DATUA**

**80**

PERTSONA

40 autokarabana eta 80 lagunetik gora espero dituzte topaketan.

non ase daitezkeen jakitekoa, horretarako Udalak zer egin beharko lukeen jakitekoa... Turismo eta aisialdi mota horrek uzten duen onura Bergarara nola bideratu aztertu eta baloratuko dute, azken batean.

## Labegaraietan egongo dira

Topaketak irauten duen bitartean, autokarabanak Labegaraietan egongo dira, industrialdearen aparkaleku zati baten -Agirrebeña zubitik gertu-. Autobus zerbitzua eta bidegorria ere bertan daude, etorkizunean autokarabandako gunea egokitzeko leku aproposa ote den neurtu nahi dute udal arduradunek topaketa aprobetxatuta.

Topaketan parte hartuko duten autokarabanistendako egitaraua ere prestatu dute Turismo Saileko arduradunek. Zapatu goizean bisita gidatua izango dute Alde Zaharreen barrena eta eguerdian bazkaria egingo dute herriko jate-txe baten, Sorbeltz elkarteak antolatuta. Domekan, berriz, mendi ibilaldia egingo dute. Horrez guztiaz gain, herrian dagoen kultura eskaintzaz -zinema, kontzertuak, erakusketak...- gozatzeko aukera ere izango dute.

katzea". "Turismo mota hori herrira ekarri nahi dugu", dio Zapirainek. "Hori da lortu behar duguna".

Bide horretan, asteburuko topaketa autokarabanistengana hurbiltzeko urratsa izango da: dituzten beharrak ezagutzeko,

## OHARRAK

### DJ JAIALDIA EGONGO DA BIHAR ZABALOTEGI ARETOAN

Ohi bezala, gaztetxoendako saioa izango da, 18:30ean hasita. Sarre-  
ra debalde izango da.

### 1934AN JAIOTAKOEN BAZKARIA EGINGO DUTE HILAREN 24AN

Errekin egingo dute. 14:00etan txikiteoa egingo dute, eta baita argazkia atera ere. 14:45ean izango da bazkaria. Txartela Errekin har daiteke, 12 eurotan.

### 1951N JAIOTAKOEN AFARIA EGINGO DUTE HILAREN 24AN

Zumelagan egingo dute. Izen-ematea hilaren 21ean itxiko da. Horretarako, 35 euro sartu behar dira Kutxako zenbaki honetan: 21010070800128434164.

### 1945EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA EGINGO DUTE

Hilaren 24an egingo dute, Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea Azpeitxin egingo da 30 euro ordainduta, hilaren 19a baino lehen. Plaza mugatuak dira.

### 1964AN JAIOTAKOEN AFARIA EGINGO DUTE HILAREN 24AN

Erreki jatetxean egingo dute eta 20:00etan elkartuko dira Ariznoan. Ikuz garbategian eman behar da izena -azokako lehen solairua-, hilaren 17a baino lehen, 10 euro aurreratuta.

### 1939AN JAIOTAKOEN BAZKARIA EGINGO DUTE

Azaroaren 24an egingo dute, Per-txa elkartearen, 14:30ean. Izena

emateko, deitu 943 76 24 79 telefono zenbakira (Eulalia Elgarresta) edo 943 76 28 58ra (Pello Garitano).

### 1935EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA EGINGO DUTE

Zumelaga jatetxean egingo dute azaroaren 25ean, 14:30ean. 12 euro aurreratuta behar dira Euskadiko Kutxan azaroaren 21a baino lehen.

### 1966AN JAIOTAKOEN AFARIA EGINGO DUTE

Abenduaren 1ean egingo dute, 22:00etan, Zumelaga jatetxean. Izen-ematea hilaren 28ra arte da, Ariznoan, 10 euro aurreratuta. Afari egunean Ariznoan batuko dira, 19:30ean.

## Elbarrien aparkalekuei buruzko arautegia berritu dute

M.B. | BERGARA

Elbarrien aparkalekuak arautzen dituen ordenantza berritu du Udalak. Azken urteotan erabiltzaileen kezak jaso eta aztertu ondoren hartu du Udalak erabaki hori, ikusita elbarrien kalterako erabilera okerrak egiten direla.

Ordenantza berria zenbait arau onartu dira: batetik, mugatu egin dute elbarrien aparkalekuetan autoa lagatzeko denbora. Horren bidez, aukera gehiago eman nahi diete erabiltzaileei aparkaleku horiek erabiltzeko, eta mugikortasuna ere erraztu nahi dute.

Azken urteetan ikusi da zenbait elbarrirendako aparkalekuetan autoak egunetan egoten direla aparkatuta, mugitu gabe. Baina hori ez da aparkaleku horien funtzioa; eguneroko ekintzetarako, elbarriei euren autoa aparkatzeko erraztasunak emateko daude; eta tokiok elkarrekin partekatuta erabiltzeko.

Hori dela eta, elbarrien aparkalekuetan gehienez lau orduz utzi ahal izango da autoa, 09:00etatik 21:00etara bitartean,

eta pegatinak jarri dira hori adierazita. Gainera, behin aparkaleku batetik irtenda, ezin izango da berriro leku berean aparkatu hurrengo lau orduetan. Gazez, berriz, ez dago denbora mugarik.

## Kontrol kanpaina berezia

Azaroaren 19tik 30era bitartean Udaltzaingoak kontrol berezia egingo du, elbarrien txartelen erabilera zuzena dela konprobatzeko.

Txartel horiek pertsona elbarrituek ibilgailuan bidaiatu behar dutenean soilik erabili behar dira, ez gainontzeko kasuetan. Erabilpen desegokia eginez gero, zirkulazio isunaz gain, espediente zigortzailea zabaltzea ere ekar dezake. Horrez gain, erabaki daiteke gaizki erabiltzeagatik isun ekonomikoa jartzea eta txartela kentzea, behin betiko, edo betiko.

Edozelan ere, Udaletik eskatzen diete herritarrei txartelaren erabilpen desegokia egiten dela ikusiz gero, Udaltzaingora dei dezatela, 943 77 91 06 telefono zenbakira, horren berri emanda.



Elbarriendako seinalea, ordutegi berria zehaztuta duela. | M.B.

## Gabonetako postalen VIII. lehiaketa, Serafin Esnaola memoriala, antolatu du Gure Ametsak

Lehiaketan 3 eta 12 urte arteko haurrek har dezakete parte, hiru mailatan: A maila -3 eta 6 artekoak-; B maila, -7 eta 9 artekoak-; eta C maila -10 eta 12 artekoak-. Postalen neurria orri laurdenekoa izango da, eta, ahal bada, kartulinan egingo dira. Marrazkiak Gabonen gainekoa izan beharko du eta atzeko aldean partaideen izen-abizenak eta adina jarri beharko dira. Postalok San Antonioko Gure Ametsa elkartera eramango dira abenduaren 21ean, 19:00etatik 21:00etara. Trofeoak abenduaren 22an banatuko dituzte.

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

**JOXAN**  
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74

# Antzuolakoa eredu, atez atekoa hizpide izan zuten martitzenean

Pedro Iturbe Antzuolako alkate ohiak euren esperientzia kontatu zuen

Z.V.D.M./A.T. | ESKORIATZA

Atez atekoaz egin zuten berba martitzen iluntzean Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Hitzaldiaren asmoa izan zen 2014rako martxan ipini gura duten hondakinak kudeatzeko sistema berriaz herritarrei informazio gehiago ematea.

Beñat Herce Eskoriatzako alkatea eta Igor Ezpeleta Ingurumen zinegotzia arduratu ziren hitzaldia emateaz. Haiekin batera egon zen Antzuolako alkate ohi Pedro Iturbe, ibarrean atez atekoa martxan dagoen herri bakarraren esperientzia izan baitzen berbalduko ardatza.



Igor Ezpeleta zinegotzia berbaldua ematen. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

## Berbaldia

Eguno egoera zein den azaltzen hasi zuten berbaldua; arazorik handienak ere non dauden eman zuten aditzera.

Jarraian, arazoari irtenbidea ematerik badagoela adierazita, atez atekoaren nondik norakoak azaldu zituzten. Eskoriatzako udal ordezkariak adierazi zuten atez atekoaren gainean herritarrek orain arte ez dutela informazio askorik jaso, eta "aldeko zein kontrako iritzia edukitzeko funtsezkoa" dela informazioa izatea,

adierazi zuen Ezpeleta zinegotziak.

Ibarraundiko hitzordura geruratutako asko ez zeuden konforme sistemarekin: "Garrantzitsua da egoera zein den azaltzea". Arazoak irtenbidea daukala "eta gure apustuaren berri eman gura izan diegu". Bertaratutako askok euren zalantza eta kezak azaldu zizkieten udal ordezkariari, eta haiek erantzuna ematen saiatu ziren.

Ingurumen zinegotziak adierazi zuenez, 2014rako ezarri gura

lukete sistema berria Eskoriatzan. "Oraindik lan asko egin behar da eta gauza asko daude zehaztu eta erabakitzeko. Esate baterako, bilketa tokiak non egongo diren eta zein ordutan izango den. Larrialdietarako bilketa guneak ere egokituko ditugu, herriko zenbait lekutan, baina hori ere zehazteke dago".

Hitzaldiak luze jo zuen, eskoriatzarrak hondakin bilketa sistemak kezkatzen dituen seinale, eta bertaratu zirenek informazioa jaso zuten.



Eskoriatza Garbia plataformako kideak. | ESKORIATZA GARBIA

# 1.000 sinaduratik gora jaso dituzte atez atekoaren kontra

Eskoriatza Garbia plataformakoak pozik daude sinadura bilketa kanpainak izandako harrerarekin

AMAI TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Eskoriatza Garbia plataforma atez atekoaren kontra egiteko sortu zen uztailean modu informalean. Irailean, baina, plataforma formalizatu zuten bertako kideek eta sinadurak batzen hasi ziren herrian atez atekoaren kontra.

## Sinadurak batzen

Ordutik hona Azkoaga Enea hotelaren parean, Intxaurtxuetan eta herriko plazan batu dituzte sinadurak atez atekoaren kontra. Horrez gain, hitzaldi informatiboak egin dituzte elizateetan, behe barruetako arduradunekin bilerak egin dituzte eta euren

proposamenen berri emateko esku-orriak banatu dituzte Eskoriatzan.

Azkeneko sinadura bilketa domekan egin zuten herriko plazan, eta horrekin amaitutzat jo dute sinadurak batzeko kanpaina. Herritarrengandik jasotako erantzunarekin oso pozik daude plataformako kideak. Izan ere, dagoneko euren erronka zen 1.000 sinaduratik gora jaso dituzte. Plataformakoek gaineratu dute, Eskoriatzan botoa emateko eskubidea duten pertsonen %50 inguruk sinatu dutela; beraz, atez atekoaren kontra eta oso pozik daudela. Hauxe esan digu Rafa Salidok, Eskoriatza Garbiako bozeramaileak: "1.000 sinadura batu nahi genituen eta zifra hori gaituzte dugu. Orain azken kontaketa egiten gabilza eta errepikatutako sinadurarik ez dagoela baieztatzen ari gara notarioak agindu bezala. Oso pozik gaude lortu nahi genuen erronka gaituzte dugulako".

## Bosgarren edukiontzien alde

Eskoriatza Garbia plataformako bozeramaileak esan digu euren ustez bosgarren edukiontzia dela hondakinak batzeko sistemarik eraginkorrena. Atez atekoaren kontrako hainbat argudio daudela uste dute, gainera: bide publiko toki asko okupatuko duela, inpaktu bisuala ere oso handia izango dela, hondakin presentzia egongo dela bide publikoan, udan usaina egongo dela...

# Bisita gidatua Atxorrotzeko lanak bertatik bertara ikusteko

A.T. | ESKORIATZA

Iñaki Sagredok gidatuko du bihar, zapatua, Atxorrotzen egingo den bisita gidatua. Goizeko hamaiketan Atxorrotzen bertan elkartuko dira, eta herritarrak eta inguruko jendea dago gonbidatuta bisitara.

lekuan egon zela uste da, ur biltegiaren ondoan, esparruko leku altuenean. Biharko bisitan, arkeologoak eta historialariak egiten dabilzan lan horiek bertatik bertara ezagutzeko aukera paregabea egongo da bertaraten direnendako.

## Indusketak bertatik bertara

Aurtengoa indusketen laugarren ekitaldia da, eta ekaineko lehenengo hamabostaldian Atxorrotzeko harresia berreskuratzen aritu zen Larrate Zerbitzu Kulturaletako lantaldea. Urriaren egindako lanetan, ermita barruan zundaketa bat egin zen; izan ere, seguruenik, dorre nagusia gaur egun ermita dagoen

## Lehenengo esku hartzea

Atxorrotzen lehenengo esku hartzea 2009. urtean hasi zen eta gazteluaren eremuko interes arkeologikoa ezagutzeko balio izan zuen. 2010. urtean lagin-zundaketa handitu egin zuten, besteak beste, eta joan den urteko lanen helburu nagusia izan zen hegoaldeko harresiaren zati bat sendotzea.



2011ko indusketan lanean. | ESKORIATZAKO UDALA

## OHARRAK

### DOKUMENTALA

*Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala proiektatuko da Ibarraundin gaur, egubakoitza, 22:30ean. Sarrera doan.

### EHIZA ZOZKETA

Aldaipe elkarteak denboraldiko ehiza postuen azken zozketa egingo du gaur, egubakoitza.

### ENEAGRAMA TAILERRA

Eneagramari buruzko hastapen ikastaroa egingo da bihar, zapatua, 10:00etatik 13:00etara.

### TAILERRA

*Hitzik gabeko komunikazioa* izeneko tailerra egingo da zapatuan 16:00etatik 18:00etara bitartean.

### ARETO FUTBOLA: GAZTEAK

Eskoriatza KE San Martin CDF Vitoria partidua egongo da zapatuan 16:00ean.

### BANDAREN KONTZERTUA

Santa Zezilia ospatzeko Bandaren kontzertua izango da zapatuan parrokiaren, 20:00etan.

### BERTSO AFARIA

Apotzagako merenderoan bertso afaria egongo da, 21:00etan. Bertan izango dira Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsoariak.

### IZEN-EMATEA

Emakumeei zuzendutako tailerlean izena emateko azken eguna gaur da, egubakoitza.

## ZUZENKETA

Joan den asteko Eskoriatzako orrialde honetan bertan argitaratuko Marixol Iparragirreraren albistean harremanetan jartzeko helbide moduan [izuazabeitia@gmail.com](mailto:izuazabeitia@gmail.com) jarri genuen, baina helbide zuzena [irrintzia@gmail.com](mailto:irrintzia@gmail.com) da. Barkamena eskatu nahi dizuegu akatsarengatik.

## Domekan 'Herrixa dantzan' Eskoriatzara helduko da

Ikasturteko lehenengo *Herrixa dantzan* saioa izango da, urriaren ez zelako egin. Domekan izango da saioa Huheziko fakultateko kaperan 18:30etik 20:00etara bitartean. Parte hartzea libre da eta sarrera doakoa da. Ekimenaren helburua da adin askotariko herritarrek elkarrekin dantzan gozatzeko.



# ETXEBIZITZA & DEKORAZIOA

**Etxe agentziak, bezeroen aukeretara egokitzen**

**Etxea orain erosi ala itxaron?**

**Sukaldeak gustu eta behar guztietarako**

**Logelak eta egongelak: nork bere estiloa**

**Egongela goxo eta naturalak**

**Bainugela, toki preziatua**

**Etxe birgaituak, berriak bezain onak**

**Igogailuak: ondo zaintzearen garrantzia**



KIBUK

 **bastidasukaldeak**

**ESKAINZA BEREZIAK**

**Erakusketa aldaketagatik %50eko deskontua sukaldeetan**

**INFORMA ZAITEZ!**

**zarautz**

elizaurre 3, 20800

tel.: 943 89 49 99 faxa: 943 89 49 98

**azpeitia**


perez arregi 9, 20730

tel./faxes: 943 15 05 10

**bergara**

ibargarai 36-38, 20570

tel./faxes: 943 76 70 58



# Bezeroen aukerei egokitzea

Krisiari aurre egiteko, etxe agentziek eskaintza egokitu behar izan dute, betiere kalitatearen aldeko apustu irmoarekin

**E**txebizitzena da, zalan-tza barik, krisiak gehien astindu duen sektorea: "Egoera oso latza da. Krisia dela eta banketxeek hipotekak emateko baldintzak izugarri gogortu dituzte eta ez da batere erraza salmentak aurrera eramatea", diote Arrasateko Bibai agentzia-ko arduradunek.

Era berean, Ormak enpresako arduradunek egoera honetara heltzearen arrazoiak aztertu dituzte: "Bi faktore nagusi daudela uste dugu egoera hain iluna izateko eragin dutenak: krisi ekonomiko latza eta finantza-krisia. Lanerako segurtasunik egon ezean eta finantze-entitateek diru iturria ireki ezean, ezinezkoa izango da higiezinaren merkatua errekupe-ratzea".

Hala ere, Gipuzkoan etxebizitzekiko gogobetetasun maila handia dela diote ikerketek eta horrek etorkizunearan ilusioz lan egitera animatzen ditu etxe agentziak. Debagoienari dagokionez, egoera

zein den gertutik ezagutzeko salmenten beherakada nabarmenari aurre egiteko gertu dauden lau agentziekin egon gara: Bibai, Ortuibar, Sukia eta Ormak. Euren estrategiak azaldu dizkigute.

## PREZIOAK ESTUTU BEHARRA

Guztiak bat datoz bezeroen beharrei egokitu behar izan dutela baieztatzerakoan. Beraz, lehen neurria etxeen salneurriak ahalik eta gehien estutzea izan da. Horrez gain, lehen ematen ziren zenbait prestakuntza ere eskaintzen dituzte bezeroa erakartzeko. Adibidez, sukaldeetako ekipamenduak eta logeletako armairuak prezioaren barruan sartzen dituzte. Hori bai, prezio merkeagoek ez dute kalitatearen beherakadarik ekarri, inondik inora.

Amaitzeko, ezin da ahaztu 2013an BEZaren %4ko igoerak are zailagoa egingo dituela salmentok; horregatik, urtea amaitu aurretik eskaintza bereziak egiten dabilta.

## Bibai agentzia: salneurri onak, kalitatea eta kokapena ardatz

Arrasateko Bibai etxe agentzian ideiak garbi dituzte. Etxebizitzen "kalitatea, kokapena eta salneurria" dira euren bereizgarriak, eta, urte berriarekin BEZaren igoera datorrenez, 2012ko azken hilabeteetan Gelmako etxebizitzaren salneurriak "ahal bezain interesgarrien" jartzen dabilta. Bada, erosleen erantzuna ona ari da izaten: "Beste sustapen enpresa batzuetako lankideekin hitz egiterakoan konturatu gara gure egoera ez dela arruntena", diote.

Era berean, banketxe batzuek %100eko finantzazioa eskaini diete, eta hori azpimarratu gura dute: "Gaur egun ez da batere erraza %100eko finantzazioa lortzea".

### GELMAKO ETXEBIZITZAK

- ▶ Bi logelako etxebizitza, sukaldeko altzariekin eta etxtresnekin.
- ▶ Gelmako etxebizitzaren kalitate "ezin hobea": domotika, pertsiana elektrikoak eta haritzeko arotzeria.
- ▶ Auto batendako garaje itxia.
- ▶ Prezioa: 220.000 euro aurten, BEZ barne.



Gelmako etxebizitza blokea, Arrasaten.

## Ortuibar: zailtasunak zailtasun, kalitatea eskaintzeko apustua

1987an jaiotako Bergarako Ortuibar enpresak aitortu digunez, egoera "oso zaila" da: "Eraikitzen hasteko banketxe gehienek zailtasunak jartzen dizkigute, eta, horren ondorioz, etxe berri bat erostera ilusioz josita datozen gehieni erraztasunak beharrez, zailtasun gehiago jartzen dizkiete".

22 urteko esperientzia duen enpresaren estrategia bi ideia nagusitan labur daiteke: prezioak jaitea eta lehen ematen ez ziren beste prestakuntza batzuk gehitzea: "Orain, etxebizitza gehienak sukalde ekipatuekin eta armairuekin entregatzen dira". Horrek, diotenez, hornitzaileekin tratatu bereziak izan beharra dakar.

### ERREGETXO PLAZAKO ETXEBIZITZAK

- ▶ Kokapen ezin hobea Bergarako hirigune historikoan.
- ▶ Eraikuntza berria.
- ▶ Berokuntza sistema zentralizatua, baina norberak erabil dezakeena; eguzki plakak ur beroarendako.
- ▶ Sukaldeko ekipamendua eta logeletako armairuak.
- ▶ Harrizko fatxada.



Begarako Erregetxo plazako promozioa.



*Jose Aranzabal*



Dr. Bañez 2, Arrasate • Tel.: 943 79 18 92  
aranzabal.cocina@euskalnet.net

Ordainketa 15 hilabeteen, interes barik

**C** aroztegia  
arrascal

SUKALDEAK  
ARMAIRUAK  
BAINUAK



ZEURE NEURRIRA ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • Faxa: 943 10 69 66 • scarrasc\_1@infonegocio.com



## Sukia: arreta pertsonalizatzeko eta prezioak estutzeko erabakia

Sukia enpresa eraikitzaileak ia 40 urteko esperientzia eskaintzen du: "Gure profesionalak oso esperientzia zabala dute sektorean, bai zuzendaritzaren, bai kudeaketaren, bai teknikaren, bai merkataritzaren ikuspuntutik". Horrez gain, etengabe berritzen joateko apustu irmoa dute: "Berrikuntza modu zabalean ulertzen dugu, teknologia, materialak eta harremanak ere barne direla. Inkonformismoa balio bat dela iruditzen zaigu; dena zalantzan jartzen dugu gauzen egungo egoera gainditzeko asmoz". Era berean, egungo krisi egoerari egokitzuz, bezeroarekiko arreta pertsonalizatzea eta prezioak estutzeko erabakia hartu dute.

### URIBARRIKO ETXEBIZITZAK

- ▶ Akabera guztiak pertsonalizatzeko aukera.
- ▶ Etxe batek baino gehiagok, behe solairuak terrazarekin.
- ▶ Garaje itxiak 15.250 eurotik gora.
- ▶ Prezioak: bi logelakoak 198.000 eurotik gora, hiru logelakoak 240.000 eurotik gora. 2013tik aurrera, %4ko igoera BEZa dela-eta.



Arrasateko Uribarri auzoko etxebizitza blokea.



## Ormak: prezioa ahalik eta gehien estutu, bezeroari egokitzeko

Ormak enpresaren etxebizitzaren promozio arloan, egun indarrean dauden proiektuan estrategia argia da: prezioak ahalik eta gehien estutu bezeroen aukeretara egokitzeko. Etorkizunerako proiektuei dagokienez, berriz, hirigintzako tramite eta proiektuen garapenean aurrera doaz: "Enpresak berritzeko duen kezkarri erantzun eta bezeroen gustuak eta beharrak ahalik eta ondoen identifikatu gura ditugu".

Hala, etxebizitzaren proiektu berritzaileetan parte hartzen ari dira, Gipuzkoan halakoak laster eskaintzeko aukera izango duten esperantzaz.

### SAN LORENTZOKO ETXEBIZITZAK

- ▶ Deba ibaiaren ertzean kokatua, Bergarako erdigunetik bost minutura eta bide nagusietatik 500 bat metrora.
- ▶ Hiru bloke dira: A blokean 2, 3 eta 4 logelako 18 etxebizitza eta duplex. B blokean, 1, 2 eta 3 logelako 36 etxebizitza eta duplex. C blokean, 1 eta 2 logelako 18 etxebizitza eta duplex.
- ▶ Bezeroen beharretara egokitzeko apustua: etxebizitza pertsonalizatzeko aukera, diseinu zein banaketa aldetik.



San Lorentzoko etxebizitza blokea Bergaran, Deba ibaiaren ondoan.

ALTZARIAK

ARMAIRUETAN ADITUAK

*Herrero*

ARMAIRUAK NEURRIRA / EGONGELAK  
GAZTE-ALTZARIAK / LOGELAK / SOFAK

DISEINUAK / PROIEKTUAK



Mugitegi poligonoa Vial B 11 • URRETXU (Gipuzkoa)  
www.revestimientosherrero.es  
Tel.: 943 72 33 16 - 639 84 11 47

JARRAI  
GAITZAZU



ARKAUZ  
ARETXABALETA



ARKAUZ  
COCINA INTEGRAL  
ARETXABALETA FAGOR  
banatzaile ofiziala

GRUPO ARKAUZ  
ARETXABALETA 1950-2012 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Arkauz zure etxea da.

ETXE MOBEL  
ALTZARIAK  
ARRASATE



ARKAUZ  
ELECTRODOMESTICOS  
ARETXABALETA expert  
banatzaile ofiziala





Etxebizitza hutsa salgai.

# Erostea ala itxarrotea hobe?

Zergak igo egingo dira eta neurri fiskaletan aldaketak datoz

**P**entsatzekoa da merkaturatu zela dagoen ikusita etxebizitzaren prezioak behera egingo duela hurrengo hilabeteetan, eta, hortaz, hobe dela erosketari atzeratzea. Baina nork bere kalkulatuak atzera behar ditu; izan ere, 2013ko urtarriletik aurrera etxebizitzaren baten erosketan eragin handia duten aldaketak aplikatuko dira.

Lau dira kontuan hartu beharreko aldaketak nagusiak: lehengo eta behin, desagertu egingo da ohiko etxebizitza erostera koan gaur egun indarrean dagoen desgrabazio fiskala –etxebizitzaren prezioaren %15-. Bestetik, etxebizitza berrien kasuan, BEZa igo egingo da urtarrilean: %4tik %10era. Euriborrean ere aldaketak egongo direla antzematen dute adituek. Nahiko behean dago uneotan, eta jaisten jarrai dezake, baina pentsatzekoa da gora ere egingo duela, eta marjina handiagoa du gora egiteko behera egiteko baina. Azkenik, bankuek gero eta hipoteka gutxiago ematen dituzte, eta gogortzen doaz hipoteka horien baldintzak.

## NORK BERE KALKULUAK

Aldagai horiek guztiak direla-eta nork bere kalkulatuak ondo atzera behar ditu etxebizitza erostekotan bada. Etxebizitzaren prezioa behera doa, baina urtarriletik aurrera aplikatuko diren neurri berriak direla-eta, akaso, gares-

tiago aterako zaigu erosketari. Gauza asko hartu behar dira kontuan: ohiko etxebizitza den, bakarrik edo bikotekidearekin batera egiten den erosketari, etxebizitza berria edo bigarren eskuakoa den...

## AHOLKULARITZA EGOKIA

Debagoienean hainbat etxe-agentzia ditugu: Bibai Inmobiliaria, Sukia, Ortuibar/Erregetxo promozioak, Hormak... Eskaintza eta promozio bereziak dituzte, eta ahalegin guztia egiten dute bezeroari behar duen aholkularitza zerbitzua emateko.

Urteetako esperientzia dute, ondo ezagutzen dute salgai duten produktua, kalitatea zaintzen dute eta bizi dugun egoera ekonomikoaren jakitun dira.

Egoera ekonomikoak bezeroa ere aldatu egin du: erosteko erabakia hartu aurretik ondo baino hobeto aztertzen ditugu gure egoera pertsonala eta merkaturatu ditugun eskaintza ezberdinak. Horregatik, bezeroen gustuak eta beharrak ahalik eta ondoen identifikatzeko estrategiak landu dituzte etxe-agentzietan.

Prezioak ahalik eta gehien estutzeko beharra ere argia da, eta aukera berriak landu dituzte: hornitzaileekin tratu bereziak egin eta bezeroari prestakuntza berriak eskaintzea —sukalde ekipatuak edo armairuak—, banketxeekin finantzazio baldintza hobek lortzea... Horregatik, arreta inoiz baino pertsonalizatuagoa da etxe-agentzietan.



## SAN LORENTZO AUZOA BERGARA

**167.500€**-tik aurrera  
27.869.655 pta

**Ez itxaron gehiago!**

**BEZ a %4**  
abenduaren 31 arte

**1, 2 eta 3 logela, sukaldea barne  
Garaje eta trastelekuak**

**Etxebizitzaren  
bukaera  
2012**

Eraikitzailea

INGESLAN  
CONSTRUCCIONES

Sustatzailea

Argibideak  
eta Salmenta

943 424 430

www.ormak.es

sofa

**Davao****IKUS EZAZU MUNDUKO  
LEHENENGO SOFA BEROGARRIA\***

©Kibuc-en  
teknologia  
berogarra



Erlaxatzeko  
eserleku  
elektrikoak



Bere kasa  
itzaltzeko  
mekanismoa



Buru-euskarri  
etzangarra



Erlaxatzeko  
eserleku  
elektrikoak



Ekolarruan  
tapizatuak, 8  
kolore aukeran

Davao sofa  
Plaza bat erlaxatzeko motorrarekin  
Neurria L288xP170xH100 cm

**1.961 €**



\*Ehun adimenduna. Espainiako Patente eta Marken bulegoan erregistratutako baliabide eredu. CETEMMSA Centro Tecnológico erakundearekin lankidetzan garatua.

CETEMMSA  
CENTRO TECNOLÓGICO



diseinua  
Eloy Millán

Aukera gehiago Kibuc.com en. Adierazitako neurri eta akaberetarako balio duten prezioak. BEZ-a barne.

[www.kibuc.com](http://www.kibuc.com) ikus gaitzazu Facebook eta Twitter-en  

[gureametsa@kibuc.com](mailto:gureametsa@kibuc.com)  
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia  
Tel. 943 151 681


**KIBUC** Gure Ametsa

**KIBUC**  
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean



Servimasak ate serigrafiatuak jartzeko aukera ematen du.



Estilo nordikoak gora egin du, Berango Dekorazioan.



Kolore eta gama zabala dute Carrascal

# Gustu eta behar guztiak, sukaldeetan

Sukaldeetako eskaintza pertsonalizatzeko aukera ematen dute saltzaile guztiek

**S**ukaldeetan ere modak joan eta modak etorri egiten dira. Modernoak dira batzuk, klasikoak, koloretsuak... Buru-belarri aritzen dira sukaldetako altzari-dendak bezero bakoitzaren nahiak asetzen. Kontuan hartzeko gai ugari egoten dira sukaldean: armairuak, koloreak, lurra...

## SERVIMASA: ZURE ERARA

Bergarako Servimasa dendatik adierazi dutenez, azken urteetan kolore biziz jantzi dituzte sukalde gehienak, baina, azkenaldian, kolore matea eta zuria itzuli dira. Dekorazio moduan ate serigrafiatuak eskatzen dituzte bezeroek, Servimasako esanetan: "Bini- lo edo marrazkia aukeratzen duzu, eta zure erara ipintzen duzu

sukaldea, pertsonalizatua". Servimasak bezeroei sukaldea euren kabuz muntatzeko aukera ematen die. "Merkeagoa da eta jende asko animatzen da".

Bestalde, lurra aldatu bai, baina obrarik egin gura ez dutentzat irtenbidea eskaintzen dute Servimasan: "Laminatu berri bat daukagu, sukaldetako eta komunerako balio du. Obrarik

gabe, baldosaren gainean ipintzen da, parketaren itxura dauka eta hezetasunen kontra babestuta dago. Guk geuk 25 urteko bermea eskaintzen dugu".

## BERANGO: ESTILO NORDIKOA

Arrasateko Berango Dekorazioa dendara joaten denak, berriz, aldaketa batzuk igarriko ditu azken urtetik hona. Izan ere, Santos

markako sukalde altzariak saltzen hasi dira: "Gama erdi-altukoa da, eta prezio onean dago, gainera".

Berango dendako bezeroek koloreak hautatzeko unean ere aldaketa egon dela adierazi dute; altzarietako tendentziak berriro bueltatu dira zuri kolorera, haien esanetan. "Hala ere, asko eskatzen dute azkenaldian egurrarekin konbinatutakoak; hau da, estilo nordikoa deitzen dena. Epeltasun sententzia ematen du, gainera. Betiere, diseinu sinpleak dira".

Sukaldeetako armairuei dagokienez, gehienbat, heldulekurik gabekoak ipintzen dituztela adierazi dute Berango Dekorazioa dendakoek. "Gainera, jende altua etortzen da, eta egokitu egin behar dira sukaldeak". Eta edukierari dagokionez ere, geroz eta altuera handiagoko armairuak eskatzen dizkietela adierazi dute Berangotik.

# 45

egun falta  
dira

## EZIN IZANGO DA SALNEURRI HOBEAN EROSI

BEZa %4tik %10era igo aurretik

2 logela eta garaje  
itxia (BEZa barne) 220.000 €

3 logela eta garaje  
itxia (BEZa barne) 280.000 €

informazio gehiago [www.inmobibai.com](http://www.inmobibai.com) más información

**BIBAI**  
INMOBILIARIA

Deba kalea 3 ARRASATE  
tel 943 25 38 21 · info@inmobibai.com

**%100 finantziatuta**



aroztegiaren euren hornitzaileei esker.



Fagorren eskaintza du Iker Sukaldeak saltokiak.



Sukaldea baino gehiago, egongela itxura dute Fagorren linea berriek.

**CARRASCAL: NEURRIRA**

Hain justu, neurrira egindako altzariak egitea da Arrasateko Carrascal aroztegiaren ezaugarri nagusia; betiere, prezioa garestitu barik. "Berdin zaigu armairu estandar bat egin edo ezohikoa. Kostua badu horrek, baina ez diogu bezeroari kobratzen".

Neurrira egindakoak bakarrik ez, altzariok kalitatezkoak izateari ere garrantzi handia ematen diote Carrascalen. Detailen kalitatea zaintzen dute, bereziki, horiek direlako altzari askoren kasuan bizi iraupena ziurtatzen dutenak: "Guretako oso inportantea da barruko burdineria, eta hor bai jartzen dugu kalitatea. Ze, bestela, da *gaurko ogia, biharko gosea*".

Eta oro har, eskaintza zabala, osoa eta bezeroaren beharrendarabarako dutela ere azpimarratu gura izan dute. Batetik, hornitzaile desberdinekin egiten dute

lan. Horrek ematen die aukera eskaintza berritzaileenak egiteko: "Gure hornitzaileak azoketan-eta ibiltzen dira, gu ere joaten gara, eta, modu horretan, gaurkotasan handiko eskaintza dugu".

Bestetik, gremioekin ere lan egiten dute: "Bi modu daude: batzuek gremioak eurek aukeratzen dituzte; eta beste batzuek nahiago dute gremioak guk jartzen baditugu. Bi aukerak eskaintzen ditugu".

**ARANZABAL: PERTSONALA**

Oso proiektu pertsonalizatuak eskaintzea eta erreformetan espezializatuak izatea dira, berriz, Jose Aranzabalen ezaugarri nagusi.

**Tendentziarik berrienak kontuan hartzen dituzte**

si. "Aukera guztiak sakon landu eta eskaintzen dizkiogu bezeroari. Diseinuari dagokionez, denetik dago. Gaur egun, esaterako, tendentzia handia dago "ezkutuko heldulekuak" dituzten sukaldeak egiteko. Halakoak ere kontuan hartzen ditugu. Hau da, norberaren kapritxora edo beharren arabera egindako sukaldeak eskaintzen ditugu. Desberdina da, adibidez, etxean bizilagun bakarra izatea edo gehiago bizi izatea".

Bezeroaren gustuez gainera, beste behar batzuk ere oso kontuan dituzte Aranzabalen; esaterako, ordaintzak egiteko erraztasunak ematea: "Momentuko beharrak aintzat hartu eta horietara egokitzen gara. Adibidez, badugu aukera 15 hilabeteetan interes barik ordaintzeko. Edo 6.000 euro interes barik ordaintzeko... Izan ere, banketxeen eskaintza guztiak kontuan hartzen ditugu".

Besteak beste, herrira begira lan egiten dutela azpimarratu dute. Adibidez, Ibai Arte txartela erabil daiteke Jose Aranzabalen. Kalitatearen Q-a ere badute. Eta herrigintzari dagokionez, "hainbat marka eskaintzen ditugu, baina, batez ere, Fagorrek egiten dugu lan, uste dugulako herria egin behar dela".

**IKER: AKABERA ONENA**

Iker Sukaldeak enpresari dagokionez, hiru arlotan zentratzen dira: "Eskaintzen dugu tratu pertsonalizatua, muntaia akaberarik onena eta katalogoan ditugun modelo guztiak daude bezeroen eskura".

**Behar ekonomikoak ere aintzat hartzen dituzte**

Xehetasunetan sartuta, tratu pertsonalari dagokionez, "bezeroak esplikatzeko du zer gura duen, eta egiten duguna da profesional modura dakiguna gehitu eta, biak uztartuta, proiektua landu".

Akabera onenari dagokionez, berriz, muntaiari ematen diote garrantzia: "Sukaldea merkea edo garestia izan, muntaia txarto bada, ez da ondo ikusten. Beraz, ahalgin berezia egiten dugu muntaiari, eta, gainera, prezioa gehitu barik. Guretako berdina da sukaldea garestia edo merkea izan, muntaiak kalitate onena izango du".

Marken alorrean, berriz, azpimarratu dute Fagorrek bakarrik egiten dutela lan: "Orain dela urte asko marka gehiagorekin lan egiten genuen, baina Fagor bertakoa izanda, garrantzia horri eman eta erabaki genuen Fagorrek bakarrik lan egitea. Herriari garrantzia ematen diogu".

# BIARK STUDIO arkitektoak

Komunitateak



Fatxaden isolamendua




Erreformak



Igogailuak



Etxebizitzak



Lokalak



Baserriak

Aholkularitza eta laguntza tramitazioan: aukera tekniko desberdinen azterketa, proiektua, lizentzia, dirulaguntzak, obrarako aurrekontuen analisisa, obra zuzendaritza....

**Eskatu zure aurrekontua konpromisorik gabe**

# www.biark.net

Usaetxe plaza 1, behea, Arrasate - Tel.: 943 79 80 33 - e-maila: biark@arquired.es

# Logelak eta egongelak: nork bere estiloa dauka

Kibuc etxeak bost estilo batzen ditu norberaren izaera etxean islatuta gera dadin

**K**ibuceko lagunak ez dira lanbidera iritsi berriak, eta urteek ematen duten esperientziatik abiatuta oinarritu dituzte bost estilo ezberdin; hala, erosleak barruko diseinurako aukera zabala aurkituko du bertan: "Guk bost estilo garbi nabarmentzen ditugu, eta horietako bakoitzak ezaugarri propioak ditu. Gaur egun, baina, bai egongelako eta baita logelako modulazioetan funtzionalitatea geroago eta gehiago baloratzen ditu bezeroak. Hau da, konposizioak ez daitezela izan minimalista hutsak, hori baino ekarpen handiagoa egin dezate-la", adierazi digu Kibuceko ordezkari Alaitzek. Eta noski, bezeroak jasoko duen zerbitzua ona izan dadila.

## EGOERARA MOLDATZEN

Beste arlo askotan moduan, azken urteotan barruko diseinuan egonden aldaketan eragina izan du egungo krisiak: "Bai, barruko

diseinuetako tendentzia berriak krisiak baldintzatu dituela esango nuke", eta Kibucekoek jakin dute egoera berrira moldatzen: "Jendeak dekorazio sinpleago baten aldeko apustua egiten du, kalitatezkoa izan dadila, eta funtzionalitate maila altukoa. Hala, baliteke estilo modernoa eta sinplea nagusitzea, eta kontrara, klasiko eta tradizionalak apur bat behera egitea. Orokorrean, jendeak nahiago du dekorazioa ez dadila gehiegizkoa izan, ez ditzala apaingarri gehiegi izan".

Egoera berrira moldatzen asmatuta, Kibucekoek bost estilo ematen dituzte aukeran: Cool White, Tradizionala, Naturala, Full Color eta Urban estiloak. Eta horiek bai logelatan eta baita egongelatan [26. orria] aurkituko ditu bezeroak. Bost aukera horiekin norberak bere estilo propioa aurkitu ahal izango du Kibuc-en, eta beti dago norberaren egoera ekonomikora moldatzeko aukera.



Urban estiloa da bosgarren aukera; estilo pertsonala da, unean uneko tendentzietatik urruntzen dena.

Etxe bat baino gehiago  
behe solairuak  
terrazarekin

estudio edota bulegoa,  
jangela, egongela, trasteleku,  
umeentzako jolasteko logela...  
bihurtu daitezkeen gun  
zabalekin

ARRASATE



INFORMAZIOA ETA SALMENTA

**943 71 22 59**

PROMOZIOAREN  
FINANTZAKETA ETA  
ABAL EMATEA



**UTE URIBARRI**

GURE BERMEAREKIN:








**1. COOL WHITE** Kolore zuria da *errege*. Estilo ausarta da, glamourra duena, eta egungoa. Tendentzia eksklusiboekin lotura zuzena du. Kolore zuriaren garbitasuna islatzen du, eta purutasun hori linea metalikoekin tartekatzen du. Teknologikoki erabat berritzailea da.



**2. TRADIZIONALA** Denboran irauten duen estiloa da hau, harmonia handikoa. Estilo hau ondoen definitzen duten berbak dira eleganzia, eta noblezia. Hala, estilo tradizionala aukeratzen duenak kalitatearen aldeko apustua egingo du, ondo eginiko gauzen aldeko apustua.



**3. NATURALA** Estilo honek natura hartzen du erreferente gisa, eta egurra konbinatzen du material ekologiko eta iraunkorrek. Forma organikoetan oinarritzen da; alegia, forma suabeetan. Natural estiloak argitasun handiko espazioak sortzen ditu, lasaitasuna iradokitzen dutenak, eta baita oreka ere.



**4. FULL COLOR** Dinamikoa, freskoa, ausarta eta gaztea, berba horiek ezin hobeto definitzen dute *Full color* estiloa. Altzariak tartekatzen ditu marra zuzenekin eta kolore biziekin. Hala, multifuntzionalitatearen alde egiten du, gune koloretsu eta energia positiboz betetakoak osatzeko.

**PREZIO PAREGABEAK**

Azken etxebizitzak  
%4ko BEZarekin

AUKERA APROBETXATU!

**ESKORIATZA**  
Elorreta Auzoa (erdigunetik oso gertu)

Informa zaituz



[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

**sukia**  
Zure etxean zaude.

943 10 95 95

# Egongela goxo eta naturalak

Kolore lisoak eta tonu mateak erabiltzen dira; egur naturalak edo laminatuak, beirarekin konbinatuta; eta larru leunak

**E**gongeletan, logeletan bezala [ikus 24-25. orriak], bost dekorazio estilo nagusi nabarmentzen ditu Kibuc etxeak. Materialen inguruan ere aholku batzuk ditu Kibuc-ek: "Egur naturala denean, kolore mateak eta beteatuak, hau da,

lakatuak direnean poroa agerian dutenak; edo lisoak, baina tonu mateetan", esaten du Kibuc-eko Alaitz Olazabalek. Laminatuetan, beste joera batzuk daude; Kibuc-en esanetan, "garbi dago erliebedunen tendentzia, eta mateak".

Koloreetan, grisen eta marroien aldeko joera dago, lur-tonuak.

Bestelako material batzuk ere erabiltzen dira dekorazio berriko egongeletan: Alaitz Olazabalen esanetan, "beirak asko konbinatzen dira altzarietan, ateetan erantsita, bitrinetan..." Beiretan, kolore mateen aldeko joera nagusi da; eta, bitrinetan, *reflex* deritzon estiloa.



Zuria eta beltza beti daude modan.

**LARRUAK, KOLORE ASKOTAN** Altzarietan, larru-imitaziozko eta *aqua clean* - urarekin samur garbitzekoak- material goxoak erabiltzen dira sofatan. Eko-larruak eta larruak ere eskatzen ditu jendeak, modako kolore aukera zabalean, Kibuc-ek esaten digunez.

Paretei dagokienez, hauxe dio Kibuc-eko Alaitz Olazabalek: "Papera jartzen edo kolore desberdinean margotzen jarraitzen dugu pareta nagusietan, hau da, gela bakoitzean pareta baten edo bitan, eman nahi zaion garrantziaren arabera".



Zuri mate koloreko bufeta.



Estilo tradizional gaurkotua.



Lur-koloreak erabiltzen dira egongeletan.

## Promociones Erregetxo Plaza

Bergara



- ✓ KOKAPEN EZINHOBEA
- ✓ 1,2,3,4 LOGELAKO ETXEBIZITZAK
- ✓ LEHENENGO MAILAKO MATERIALAK
- ✓ SUKALDE EKIPATUAK, ARMAIRUAK

Dagoeneko zintzilikatu dugu informazio guztia gure webgunean

Sartu eta ikusi

[www.promocioneserregetxoplaza.com](http://www.promocioneserregetxoplaza.com)

Bergarako hirigune historikoan  
63 etxebizitza, libre, tasatu,  
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:

ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18

LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23





Konketa eta gaina, dena bat.



Eskegitako modulu bat.



Komuneko papera zintzilikatze ezarkina.



Hankarik gabeko altzariak, egungo joera.

# Bainugela, toki preziatua

Etxeko gela hori dotoreziaz janztea lortu dute azken tendentziek, erosotasunari eusten jarraituta

**A**spaldi utzi zion bainugelak gizon-ema-kumeon egin-beharretarako lekua soilik izateari; aspaldi utzi zion etxeko gainontzeko gelen inbidia izateari. Aukera zabalek, ideia berritzaileek eta erosotasun gero eta handiagoek toki atsegin bihurtu dute bainugela, toki preziatu izateraino. Eta bide beretik jarraitzen dute azken tendentziek ere; bainugelan inoiz baino erosoago sentiaraztea lortu dute.

Garai berriak ez dira samurrak, baina azken joerek ez dute mugez ulertzen, eta askotariko aukerek gustu guztietara ez ezik poltsiko guztietara egokitzea lortu dute. Honela esan digu Arrasateko Carrascal aroztegiko Gemma Carrascal: "Krisi garaioan, jendeak prezioari begiratzen dio kalitateari baino gehiago, baina, egungo aukera zabalari esker, posible da merkeago ere bainugela altzari eroso eta dotorez hornitzea. Aukeraketan dago

gakoa". Hasi gara aukeratzen eta konturatu gara baietz, posible dela: portzelanazko konketa eta gaina jartzea da aukera bat, biak bat egiten dutela; koskarik ez izatera, errazago garbitzen da eta, gainera, merkeagoa da. Altzari dagokienean, kontuan izan behar da edozein material ez dela egokia bainugelarako, bero eta umeltasun asko kontzentratzen den lekua delako. Horregatik, material geruzatua oso aproposa da: prezioz ondo ateratzen da

hori ere eta erraz mantentzen da, material gogorra da eta aukera zabala eskaintzen du kolore nahiz egitura aldetik. Eta komun txikietarako, bereziki, zintzilikatutako moduluak irtenbide ona dira, tokia irabazteko. Konketa azpiko altzariko nahiz moduluetako banaketa erabakitzerakoan, hori bai, komeni da tiraderen aldeko apustua egin beharrean apalen aldekoa egitea, aurrekontua garestitzea nahi ez badugu behintzat.

## NEURRIRA

Edozein kasutan, ez dira altzari asko izaten eta, beraz, ez da hainbeste garestitzen, Gemma Carrascal azaldu digunez. Eta tamaina estandarretatik ateratzea ere ez da arazo; Carrascal aroztegiara jo ezker, ez bederen: "Material gehiago erabili behar bada edo lan gehiago suposatzen bada, hori kobratu egiten dugu, noski, baina ez neurrira egite hutsagatik". Bainugelarako osagarriak ere aurkitu daitezke Carrascalen.



ITURRIZAR KALEA

**Azken etxebizitzak!!**

ORTUZAL PROMOCIONES S.L,  
Tel.: 943 76 11 18 - 943 79 40 00

**ARETXABALETA  
AUKERA EZIN HOBEA**

ETXEBIZITZAK:  
2 logela  
2 bainugela  
Sukalde hornitua  
Ganbara bikaina

**ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO**

**190.000€ (BEZ barne)**

# Birgaitu ostean, berria bezain ondo

Biark Studio SLPn irtenbide asko dituzte etxea barrutik zein kanpotik egokitzeko

**N**abaria da azken urte hauetan etxebizitza berri asko eraiki direla; gehiegi, beharbada. Horren ondorioz, urte asko dituzten etxeak ahaztuta geratu dira eta horietako asko egoera txarrean daude, bai egitura, isolamendu edota itxitura aldetik, zein instalakuntzari dagokionez, irisgarritasuna ahaztu gabe.

Beraz, orain arteko joera nagusia etxebizitza berriak egitea izan den arren, lehengo etxebizitza zaharrei begirada bat botatzeko momentua heldu dela uste dute Biark Studio SLPko arkitektoek.

Seguru asko, begiratu horretan aurrerago aipatutako kalte edo beharretakoren bat aurkituko dugu.

## ZER EGIN KASU HORRETAN?

Lehenik eta behin, eraikinaren azterketa orokorra egitea komeni da, zein egoeratan dagoen jakiteko. Horretarako, Eraikinaren

Ikuskapen Tekniko (ITE) bat egitea da onena.

Ikuskapen tekniko hori egiteko Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak ematen ditu, eta ondorioz, ikuskapena egiteko ez da ia ezer ordaindu beharrik izaten. Horren bitartez, eraikinaren beharrei buruzko ezagutza izango dugu eta hartu beharreko neurriak finkatu ahal izango dira. Ikuskapen tekniko hori teknikari batek egin beharko du; arkitektoak, adibidez.

Ikuskapenean eraikinaren kaltetutako aspektuak azpimarratuko dira, eta beharrak zeintzuk diren definitu; modu horretan, bizilagunek badute nondik hasi.

## ZENBAIT ADIBIDE

Eraikinaren itxitura kanpotik termikoki isolatuz gero, berogailuaren faktura %30 murriztu daiteke. Gainera, eraikin osoaren itxura berritu daiteke, obra garaian bizilagunen eguneroko bizimodua kaltetu gabe.



Kanpoko aldetik isolatutako eraikina.

## Eraikinaren azterketa orokorra egitea komeni da

Eraikineko gune komunetan irisgarritasuna hobetzea ere posible da, atarrietako mailak kendu eta arrapalak eginez edota igogailua jarrita.

Egitura eta saneamendu orokorra ere garrantzitsuak dira segurtasunari eta erosotasunari begira. Horiek kaltetuta egon daitezke eta, beharbada, errefortzu edo ordezkapenen bat beharrezkoa izan daiteke.

## ETXE BARRUKO ERREFORMAK

Etxea barrutik berritzeko gauza asko eduki behar da kontuan, eta, kasu askotan, udaletxeak teknikari baten gainbegiratzea eskatuko du.

Etxeak berritzerakoan, askotan, barne tabikeak botatzen dira, eta ez gara konturatzen tabike horiek karga-horma bihurtu direla egurrezko egituradun eraikinetan. Horiek botatzerakoan, egitura mugitu egiten da eta pitzadurak edo fisurak ager daitezke, eta, kasurik larrietan, baita eraitsiak ere. Halako kasuetan, oso garrantzitsua da teknikari baten lana, hori guztia gainbegiratzeko.

Hasteko, komenigarria da, lehenetik eta behin, proiektua egitea bizilagun edo komunitatearen beharrek zeintzuk diren finkatuz. Gainera, proiektu horretan bezeroak emandako ideiak ere jasotzen dira eta obra bakoitzen beharrek eta nahiak argi azaltzen dira.

## GARAI ONA OBRAK EGITEKO

Azpimarratzekoa da, bestalde, garai ezin hobea dela hau –horrelako proiektuak aurrera ateratzeko beharra eta ilusioa izanez gero– oso prezio lehiakorrek lortu ahal izateko.



# iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR 

# Hemen Igogailuak: zugandik gertu

Igogailua, ondo zainduta, bizitza osorako izan daitekeela erakutsiko dizun enpresa

Igogailuen esparruan urteetako eskarmentua zuten bi lagunek sortu zuten orain dela sei urte Gasteizen egoitza nagusia duen Hemen Igogailuak enpresa. Esparruko multinazionalak jarritako etengabeko traben eraginez hasierako urteak gogorrak izan baziren ere, ondo lortu dute merkatuan tokia egitea.

Bizkaian eta Gipuzkoan dituzte eskaerarik gehienak; hala ere, ari dira beste gune batzuetara ere zabaltzen; horretarako giltza izan da Debagoiengan lortutako oihartzuna eta harrera ona. Egun, 11 langile dituzte; horietatik hiru, Debagoiengan.

## ASKOTARIKO ZERBITZUAK

Igogailu berriak jartzen badituzte ere, ez dute horretara mugatzen eskaintza; aurrez jarrita dauden igogailuetan irisgarritasuna bermatzeko lanak ere egiten dituzte, baita mantentze-lanak ere.

Orain dela urte batzuk jarritako igogailuetan sarritan izaten dira irisgarritasunarekin lotuta-



Jaieguna bada ere, teknikariak tokian tokiko arazoa konpontzen du.

ko arazoak, eta horiei irtenbidea ematen die Hemen Igogailuak enpresak, besteak beste, eskailek kendu edo harmailak leunduta, erabiltzaileak igogailuira bide erosoak izan dezan.

## 24 ORDUAN LANEAN

Zintotasunez betetzen dute Hemen Igogailuek bezeroarekin adostutakoa; besteak beste, konpondu beharreko piezen ordainketa, eta baita ordutegiaren mal-

gutasunari dagokionez ere. Hori horrela, 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute, eraginik izan gabe lanegun edo jaiegunean jaso duten bezeroaren deia. "Abisua jaso bezain pronto abiatzen da teknikaria arazoaren muinera. Ez da bidezkoa igogailua apurtuta izateagatik inork etxetik ateratzeko zailtasunak izatea", dio Iban Sanchezek, Hemen Igogailuak enpresako Gipuzkoako arduradunak.

## TXIKITASUNEAN HANDI

Sanchezek gaineratu du enpresa txikia izatea bezeroarendako abantaila dela; handietan ez

moduan, inplikazioa eta gertutasuna aintzat hartuta: "Bezeroaren ongizatea bermatu gura dugu, eta bidegabekeriak gainditu. Ikaragarria da ikusi izan ditudan kontratu edo fakturak. Aitzindariak izan gara bidezko prezioak ezartzen, eta, ondorioz, esparruko beste enpresak bultzatu ditugu eurenak gure prezioetara moldatzera. Orain, zerbitzuaren egiazko kalitatea bermatu gura dugu, bai gure bezeroen zein beste enpresen bezeroendako ere".

## GURA BADUZU, EUSKARAZ

Euskaraz badakigu ez da bulego baten mahaian irakurriko duzun kartela soilik; Hemen Igogailuak enpresara jotzen duenak zerbitzua osotasunean euskaraz jasotzeko aukera du: "Bezeroak horrela nahi badu, bilerak euskaraz egiten ditugu eta kontratuak euskaraz sinatzeko aukera ere ematen dugu. Era berean, arreta berezia jartzen dugu teknikariak kontratatzeko orduan, euskarazko tratua eskaintzaren prozesu osoan bermatu gura dugulako. Bezero euskaldunak, duda barik, eskertu egiten du ahalegin hori; eta guk horretarako eskubidea ere bermatu gura diogu".



IBAN SANCHEZ  
HEMEN IGOGAILUAK

## "Betetzeko gai garen eskaintza erreala egiten dugu"

Hemen Igogailuak enpresako Gipuzkoako arduraduna da Sanchez, eta haren bete-beharrak da, besteak beste, bezeroari kalitatezko zerbitzua argitasunez azaltzea.

## Igogailu bat betiko izan daiteke ala bizitza mugatua du?

Ondo zaintzea ezinbestekoa da; kasuren bat egon daitekeen arren, ez da derrigorrez goitik behera aldatu behar. Ikaragarria da ikusi izan ditudan fakturak. Igogailu berri bat 17.000 eurotan lor badaiteke, ezinezkoa da konponketek kopuru hori gainditzea.

## Merkatuko prezioak egokitzeko lortu duzue.

Eskatzailearen bizilekua edo zerbitzua ematen duen enpresaren arabera prezio ezberdintasun handiak zeudela konturatuta, gure prezioekin bidegabekeria horiek saihestu daitezkeela erakutsi dugu.

## Jaiegunetan ere lanean.

Zerbitzu egokia ez da preziora mugatzen, gu harago goaz, bezeroaren beharrak azkar eta tokian toki bete gura ditugu. 24 orduko zerbitzu erreala ematen dugu. Igogailuren baten norbait barruan harrapatuta geratzen bada, duda barik; baina baita edozein matxura txiki izan bada ere. Arazoei irtenbidea emateko gaude.

## "Ondo zainduta gero, igogailua betiko izan daiteke"



Ezer aldatu aurretik, teknikariak matxuraren zergatia aztertzen du.



Teknikariak abisua jaso ahala joaten dira arazoaren muinera.

**BERANGO**  
DEKORAZIOA, SUKALDEAK

Gipuzkoa etorbidea 1, 20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 01 92 - Faxe: 943 79 01 11  
www.berangodeco.com  
berango@berangodeco.com

**SANTOS**

**ESKAINITZA BEREZIAK**  
erakusketako  
altzarietan



JARRAI  
GAITZAZU  
FACEBOOKen





# EROSKI

## zurekin



**1.** Armairua: 2 ate + 2 tiradera. Zuria-laranja. 100x200 cm. **2.** habia-ohea. 90 cm. zuria-laranja. 199x103 cm. **3.** Flexoa, Klaus mod. laranja, beltza edo urdina. **4.** idazmahaia. zuria-laranja. 120x60 cm. **5.** Bulegoko aulkia, Yaiza mod. Morea edo laranja. **6.** Sinfoniera 5 tiraderarekin. Zuria-laranja. 45x110 cm.



**1.** OINETAKO-ALTZARIA 2 TRANPOIREKIN: 75x26x85 cm. **2.** ARMAIRUA: 2 ATE + 2 TIRADERA: baita ere: 3 ate + 2 tiradera **3.** OINETAKO-ALTZARIA 3 TRANPOIREKIN **4.** OHEBURUKOA **5.** KOMODA LAU TIRADERAREKIN **6.** APALATEGIA **7.** ERRETILU TOLESGARRIA **8.**

Miren Zeziaga | Suradesako teknikaria

## "Alokairua indartzea da Bizigune programaren helburua"

Hutsik dauden etxebizitzek %100eko errenergua izango dute aurrerantzean

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Miren Zeziaga Suradesako Debagoieneko teknikaria da. Antzuolan astelehenean eskaintzen du zerbitzua, 10:30etik 11:30era. Zeziagarekin hitz egin dugu, bereziki Antzuolan abiatu berri duten Bizigune programaren gainean.

### Zer da Suradesa?

Herri ezberdinetan etxebizitzaren inguruan sortu den enpresa da. Hasieran, gure zeregina, alde zaharretako etxeen birgaitzea ematean, guk dirulaguntzak kudeatzen genituen eta bizilagunen eta administrazioaren arteko bitartekari lanak egiten genituen. Baina bizigune programarekin handitzen joan zen gure zeregina. Hala, etxejabeen eta administrazioaren arteko hartu-emanen eta tramitazioetan laguntzen hasi ginen.

### Birgaitzearekin abiatu zineten?

Uztail bukaeran, biziberritzeko programa jarri genuen abian. Oso programa espezifikoa da. Arrasaten, esaterako, Makatzena auzoa dago programa horren barruan. Irisgarritasun eta isolamendu lan handia egin da auzo horretan. Atari guztiak egin behar du aurrera plan honekin. Baina orain, krisiak horren gogor jo duenean, pixka bat gelditu egin dira biziberritze proiektuak.

### Bizigunek indarra du berriro.

EAEn hutsik dauden etxebizitzak ateratzeko eta merkatu librean etxebizitza bat eskuratzeko behar



Miren Zeziaga, bulegoan. | M.A.

## "Herri txikietan geldi egon ostean berriro abian da Bizigune programa"

beste diru ez duten pertsonen esku jartzeko Bizigune programa abiatu genuen. Antzuolan orain arte ez da eskaerarik izan, baina orain bagabiltza tramitatzen eskaera bat. Izan ere, herri txikietan murrizketa egin zen eta Antzuola moduko herri txikiak Bizigunetik kanpo geratu ziren. Orain, baina, eskaera badugenez, programa abian jarri dugu berriro Antzuolan. Etxebiden izena eman duten 24 lagunek Antzuola

aukeratu dute etxebizitza izateko lehen aukera gisa.

### Etxebiden oinarriak aldatu dira.

Urtarrilaren 2tik aurrera Etxebiden izena emateko aukeratu egin beharko da. Hau da, alokatzeko edo erosteko, bi aukeren artean aukeratu beharko dute herritarrek. Izena emateko prozedura erraztu nahi dute. Etxebidek babes ofizialeko etxeak salgai ditu eta poltsa bat osatu du; hala, erosteko eskaria egiten dutenak poltsa horretara bideratuko dituzte. Eta Etxebiden izen ematen dutenek bi urterako egingo dute.

### Hutsik dauden etxebizitzek errenergua izango dute.

Foru Ogasunaren araudia aldatu egin da eta errenergua jarriko die Udalek hutsik dauden etxebizitzei. Antzuolak %100eko errenergua jarriko die. Horregatik, garrantzitsua da etxebizitza hutsa alokairuan jartzea edo Bizigune programan izatea. Hala, errenergurik ez du eta izango etxe horrek. Alokairua indartzea da Biziguneren helburua.

### Etxebizitza hutsa zer da?

Inor erroldatuta ez dagoen etxea. Frogatu egin behar da bederatzi hilabetean hutsik egon dela. Horretarako, kontsumoen fakturak erakutsi beharko dira. Jakinarazi nahi dugu zerbitzu hau berriro abian dela eta astelehenero Antzuolan gaudela; aste barruan, aldiz, Arrasaten. Jendea animatu nahi dugu.

## Beheko aparkalekuko lanak bukatzeko, margotzea soilik falta da

Garajeetako itogin arazoei erantzuna eman diete; berriro parkea berreskuratzea da asmoa

M.A. | ANTZUOLA

Construcciones Pera enpresak astebetean egin ditu beheko aparkalekuko konponketa lanak. Bertako langile batek azaldu digunez, garbiketa lanak egin eta margotzea bakarrik falta da lanak guztiz bukatuta izateko egun gutxi barru.

"Ura batu eta bideratzea zen helburua, eta lortu egin dugula uste dugu". 9.000 eta 10.000 euro bitarteko aurrekontua izan du Udalak.

### Auzokoekin elkarlanean

Beheko auzoko garajeetako arazoari irtenbidea emateko akordio batera iritsi zen Udala bertako bizilagunekin. Hala, iraileko osoko bilkuran, Udalak bere gain hartuko dituen kon-

ponketak finkatzeko proposamena onartu zuten -Bildu eta EAJ alderdien aldeko botoei esker-. "Bizilagunek eskatuta elkartu egin ginen eta aparkalekuetan dauden itogin arazoei irtenbidea bilatzea adostu genuen. Geure ardurak eta euren ardurak non dauden mugatu genuen; hala, bakoitzak non jardun behar duen garbi izateko. Orain, guri dagokigunez, itogin horiek konpontzeko lanak egin ditugu: ura batu aparkalekuetara ez sartzeko", azaldu digu Iñaki Iartzak, Hirigintza zinegotziak.

Behin konponketak eginda, eta arazoari irtenbidea emanda, berriro parkea berreskuratuta nahi du Udalak, eta umeendako ziburuak jarriko ditu.



Beheko aparkalekuko lanei azken ukituak ematen langile bat. | MAIDER ARREGI

## Zirkulazioak eta herriko oztopoek arduratzen dute herritarra

M.A. | ANTZUOLA

Azaroaren 7an, parte-hartze prozesuko galdera sorten ondorioen aurkezpena egin zuten Olanaran. Herritarrek aurkeztutako ondorio nagusien artean, zirkulazioa eta herriko hainbat oztopo arkitektoniko daudela azaleratu zen. "Esan behar dugu galdera sorta honekin herritarrek euren iritzia emateko aukera izan dutela; gure ardura, orain, hauei erantzutea izango da", azaldu digute parte-hartze prozesuko kideek.

Aipatutako proiektuen artean, dagoeneko Udalak martxan dituenak ere badira. "Hau bide beretik goazen seinale da", diote. Udalak ere parte-hartze hori urte gutzira ireki nahi du, batzordeak indarberrituta.

### Arlokako batzarrak

Bada, azaroaren 19an, 21ean eta 22an izango dira, Olanaran,

18:30ean. Eta asmoa da 2013ari begira lehenetsi nahi diren proiektuak guztien artean zehaztea. Hala, astelehenean, Kultura eta Euskara arloak landuko dira; eguaztenean, Gazteria, Kirola,

Hezkuntza eta Ongizatea; eta eguenean, azkenik, Hirigintza, Nekazaritza eta Ingurumena. "Herritar guztiak gonbidatuta daudela azpimarratu nahi dugu", diote.

# EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

### Antzuolak irabazi egin behar du lidertza berriro eskuratzeko

Zapatuan, Antzuola taldeak Eibartarraren aurka jokatu du partidua, 15:45ean, Eztalan. Ligako bederatzigarren jardunaldia dute, eta bigarrenak dira sailkapenean -17 puntu, Getariarekin berdinduta-. Lider berriro izateko, ezinbestean irabazteko partidua da zapatukoa.

### Gazte txokoaren ikasturte berrirako izena eman daiteke

Gazte txokoan parte hartu nahi duten 12 eta 16 urte arteko neska-mutilek izena emateko epea zabalik dute azaroaren 30era arte.

Izena emateko aukerak hauek dira: udaletxera deituta (943 76 62 46) edo [www.antzuola.com](http://www.antzuola.com) webgunearen bidez eskaera-orria beteta.



**Zabalo**

IGELTSEROTZA

Ibon Zabalo  
Iban Iraeta

Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. eta faxa:  
943 76 60 89  
Mugikorrak:  
615 76 56 50 / 615 76 56 51  
zabalosl@hotmail.com

**ZAHAR BERRITZEAK:**

Birgaitzeak

Fatxadak

Teilatuak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak



Udaleko osoko bilkuren aretoan egin zuten aurkezpena joan den martitzenean. | TXOMIN MADINA

## 'Car-sharing': autoak partekatzeko filosofia

Herritarrek ematen dioten lehentasuna neurtuko du Udalak, Herrijorran

TXOMIN MADINA | OÑATI

*Car sharing* kontzeptuak autoa partekatzea esan gura du, eta hori hainbat modutara egin daiteke: bidelagun batekin autoko eserlekukak partekatuta, esaterako, edota pertsona talde batek auto bera partekatuta, adibidez. Bigarren aukera horretaz jardun zuen, batez ere, Iker Maguregik, Eusko Car Charing proiektua aurkezteko martitzenean egin zuten aurkezpenean.

### Onurak

Haren esanetan, Europa inguruan urteak daramatzate sistema hori erabiltzen, eta hainbat onura eskaintzen dituen aukera da. Onurak, hasteko, norbanakoarendako. "Ibilgailu baten kostuak parteka ditzake, eta, zerbitzuak ondo antolatuta egoten direnez,

norberak erabiltzeaz gain, normalean ez du zaintzarik egin behar; hau da, ez da mantentze-lanaz edo aseguruaz arduratu behar. Horrez gain, mugikortasun iraunkorrari ere laguntzen dio, bidea ematen du ibilgailuaren erabilera mugatzera premiazko momentuetara, garraio publikoaren mesedetan", Maguregik azaldu zuenez. Sistema hori enpresek edota erakundeek erabil dezaketela gaineratu zuen, eta, gainera, garraio publikoa hartzen duten herritarrendako eta ibilgailua gutxi erabiltzen dutenendako dela aproposa.

Erabilerari buruz, Maguregik ziurtatu zuen erraza dela eta modu ezberdinetara antola daitekeela: "Eskain dezake Udalak edo hiritar talde batek elkarte moduan, adibidez".

### Azaroan aztertuko dute

Euskal Herrian dauden adibideak ere azaldu zituen Maguregik; Areatzako eta Uribe Kostako kasuak, esaterako. Oñatin egingandako aurkezpenean, Udaleko, enpresetako eta ikastetxeetako ordezkariak izan ziren, baita norbanakoak ere. Josu Lizarralde zinegotziak azaldu zuenez, aurrekontuak erabakitzeke herritarrekin eginen ari diren bilereetan, lurralde antolamenduari dagokionez, mugikortasun eraginkorra lortzeko aukera moduan planteatzen dute *car sharing*. Haren esanetan, *car sharing*-ek Udalaren estrategiarekin bat egin arren, herritarren konpromisoa eskatzen du, eta gaineratu zuen azaro amaieran egingo den bilera erabakiko dela zein lehentasun duen.

## Egaralur enpresak hasi ditu Larrañako kirolguneko lanak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aste honetan hasi ditu Egarralur enpresak Larrañako kirol instalazioak berritzeko lanak. 194.000 euro pasako aurrekontua aurkeztu du.

Lanak lehenbailehen egitea komeni da, Foru Aldundiak orain bi urte hitzemandako diru laguntza jasotzeko, datorren urtarrilaren 31ra arteko epea eman baitu. Lanen premia horrek bultzatuta, Udalak esleipen prozesua arindu egin du eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez adjudikatu ditu. Hiru enpresaren proposamenak jaso ziren eta eskaintza merkeena egin duenari esleitu zaizkio: 194.373 euroko eskaintza.

### Belar artifiziala

Larrañako futbol zelaia eta inguruko instalazioak Fernando Azpiatzuk eta Isabel Gordoak osatu duten proiektuaren arabera berrituko dira. Larrañan zegoen futbol zelaiaren ia neurri bereko zelai berria egokituko da: 72 bider 33 metroko zelaia. Hau da, 9ko futboleko jarduteko aukera emango duen zelaia. Sei zentimetroko luzera duen belar artifizialezko zelaia izango da eta hori inguratuz sarea jarriko da. Ur kanalizazioa egin eta argiak ere instalatuko dituzte. Hasiara batean skate parkea hor egitea aurreikusten bazen ere, beste nonbaiten egin beharko dute, Larrañako gunean ez dagoelako tokirik.



Makinak lanean Larrañako kirol gunean, martitzenean. | T.M.

## Gabonetako erakusleihen lehiaketa egingo du Txandak

O.E. | OÑATI

Gabonetako erakusleihen lehiaketa antolatuta du Udalak, Txandarekin batera, bosgarren urtez. Lehiaketan parte hartzeko izena eman beharko dute Txandako dendariak, eta abenduaren 8ra-ko apaindu beharko dituzte negoziotetako erakusleihenak. Sari banaketa, aurten, Santo Tomas egunean egingo dute, abenduaren 21ean. Erakusleihenak, hala ere, abenduaren 31 arte egon beharko dute apainduta, dendako produktuekin eta Gabon kutsuarekin.

Bada, izen-emate orriak dendetan banatuko dituzte eta udaletxean, Turismo Bulegoan edo Enplegu Zerbitzuan entregatu beharko dira abenduaren 3a aurretik.

### Zazpi sari

Santo Tomas egunean zazpi sari banatuko dituzte: horretarako izendatutako epaimahaiak bost sari emango ditu; beste bat herritarren botoek erabakiko dute eta azkena urtean zehar egindako lana errekonozitzen duen sari berezia izango da. Guztira, 4.500 euro banatuko dituzte. Joan den urtean 37 dendak hartu zuten parte.

### Azaroko sariak

Bestalde, osasun eta edertasun tratamendurako sariak ari da banatzen Txanda azaroan. Hilabete honetako erosketak Txanda txartelarekin ordainduz gero eskura daiteke horietako sari bat. Saria datafonoak emango du, alirizira.

## Zortzi urte arteko umeendako jostailu erakusketa egingo dute datorren asteburuan ludotekan

Udaleko Hezkuntza Sailak eta Txaloka ludotekak elkarrekin antolatuta, bosgarren jostailu erakusketa egingo dute datorren asteburuan. Zortzi urte arteko umeendako jostailuak egongo dira ikusgai eta jostailuekin jolas egiteko aukera ere izango dute gurasoek eta umeek. Jolas kooperatiboek txoko berezia izango dute erakusketa horretan. Bestalde, *Sortu* izeneko tailerrean, gauza gutxirekin ere jolas egin daitekeela erakutsiko dute. Erakusketa goizez eta arratsaldean egingo da zabalik.

## Euskararen Bikain ziurtagiria Elkar Hezik

Euskararen Kalitatearen Bikain Urrea ziurtagiria lortu du Elkar Hezi ikastetxeak. 28 erakunde lortu dute, guztira, Bikain ziurtagiria: zazpi oinarrizko maila egiaztatu dute; 12k, tartekoa edo zilarrezkoa; eta bederatzik, goi-maila edo urrezkoa. Hilaren 22an egingo dute ziurtagiriak emateko ekitaldia, Gasteizen.



ELKAR HEZI IKASTETXEA



# Argazki lehiaketako erretratuak salgai ipiniko ditu mendi sailak

Salmentarekin batutako dirua Felix Baltistan Fundazioarendako izango da

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak antolatutako argazki lehiaketaren deialdia berritasunekin egin zuten irailean: erretratuak salgai ipintzeko erabakia hartu zuten. Berritasunak erantzun ona izan du argazkilarien artean, eta 44 ipini dituzte salgai. Kultura etxean dagoen erakusketan ikus daitezke epaimahaiak aukeratutako lan onenak; tartean, maila ezberdinetako irabazleak.

Baina, zergatik salgai? "Orain dela bi urtera arte lanak paperean entregatzen zituzten argazkilariek, eta, lehiaketa bukatuta, itzuli egiten genituen. Bada, iaz digitalerako pausoa eman genuen, lanak bidaltzeko erraztasunak emateko. Gainera, beste lehiaketa batzuek formatu hori erabiltzen dutela ikusi genuen. Katalunian halako lehiaketak egiten dituen enpresa batekin, Concursos Digitales, hartu-emanetan ipini eta deialdia egin genuen. Hori horrela, aurkeztutako 234 lanen artean 44 aukeratu ditugu, eta salgai ipini ditugu. Iazko lehiaketako erretratuak lokalean ditugu hautsa hartzen. Aurtengoak herritarren eskura ipiniko ditugu", esan digu mendi taldeko Iñaki Idigorasek.

Eta zer egin behar da horietako bat erosteko? Bada, antolatzailerak hiru prezio zehaztu



Erakusketan 44 erretratu ipini dituzte. | MIREIA BIKUÑA



Gizakia mendian saileko hirugarren saria (zatia). | XABIER MATA MONTOYA

## Sari banaketa ekitaldia gaur, 19:30ean

Oñati argazki lehiaketako sariak gaur banatuko dituzte, 19:30ean, kultura etxeko erakusketa gelan. Epaimahaiak aukeratutako saridunak dira: Andoni Epelde, Josu Garai, Xabier Mata, eta Iñaki Idigoras, *Gizakia Mendian* sailean; Manu Colino, Josu Garai, Juan Jose Lopez eta Asier Egaña, *Mendi Ingurunea* atalean; eta Andoni Epelde, Ngoc Anh Bach, Iñigo Olarte eta Jokin Astiagarra, *Salaketa* sailean.

dituzte: maila bakoitzeko lehen hiru sarituen argazkiak 90 eurotan salduko dituzte; finalistak eta Oñati saria lortu dutenak 60 eurotan; eta gainerakoak 40 eurotan. "Guk zehaztu ditugu prezioak, baina argazkiek duten maila izugarria da. Erretratu oso onak daude. Euren balioa 300 eurotik gorakoa da", dio Idigorasek.

### Felix Baltistan Fundazioa

Argazkien salmentarekin batzen duten dirua Felix Baltistan Fundazioarendako izango da. "Hainbat proposamen bota genituen diru horrekin zer egin zehazteko orduan. Horietako bat izan zen batutakoa mendiarekin zerikusia duen GKE bati ematea. Aurtengo Felix Baltistan Fundazioarendako izango da, besteak beste, ibarrekoa delako", diote mendi sailekoek.

Argazkiak erosteko interesa dutenek erakusketa ikusi (hilaren 23ra arte, astelehenetik domekara) eta gustukoena aukeratu behar dute. Argazki bererako eskaera bat baino gehiago badago, zozketa egingo dute.

### Laguntzaileak

Aloña Mendiko mendi saila oso pozik dago erretratuen mailarekin. Concursos Digitales plataformari esker, atzerritik jaso dituzte lanak: bigarren sarietako bat Vietnamera joango da.

Raul Esteban, Josu Perez eta Joseba Leturia izan dira epaimahai osatu dutenak. Bestalde, mendi sailak Oñatiko Udalaren, Osi Kirolak dendaren eta UniControl argazki laborategi digitalaren laguntza izan dute. "Eskerrik beroenak, guztiei, baita Ilunpetan argazki taldekoei ere".

### DATUA

# 44

ERRETRATU

Horiek dira salgai dauden erretratuak. Kultura etxean daude ikusgai.

### ESANAK

"40, 60 eta 90 eurotan salduko ditugu lanak; maila ona dute"

IÑAKI IDIGORAS | MENDI SAILA

## Haize taldekoen kontzertua Otamendin

M.B. | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako haize taldeak kontzertua egingo du etzi, domeka, 13:30ean, Otamendi tabernaren aurrealdean. Emanaldia hilaren 11n egin behar zuten, baina euria zela-eta atzeratzea erabaki zuten. Haize taldea 15 lagunek osatzen dute.

Kontzertua pop estilorekin hasiko dute: *Ai se eu te pego* eta *Viva la vida* kantuak joko dituzte. Jarraian, pelikuletako soinu-bandek hartuko dute lekukoa: *Jurassic Park*, *Piratas del Caribe* eta *Sister Act*.

Kontzertua bukatzeko, *Autumn leaves* eta *Vickie bikini* izeneko piezak joko dituzte. Azken pieza *The typewriter* izango da. Idazmakinak erabiliko dituzte.

## Txarango katalanak, Gaztemanietako bigarren kontzertuan

Txarango katalanak eta Legazpiko D-Pintxos taldeak dira protagonistak Gaztemanietako bigarren kontzertuan: bihar, zapatua, egingo dute zuzeneko gaztelekuan, 22:30ean. Sarrera zazpi euro da.

Hain zuzen ere, Kataluniako taldeak reggaea, duba eta latindar musika nahasten ditu. Legazpiarrek ska musika jotzen dute.

## Roller One eta Justin Cusack, Anton tabernan, zuzenean

Roller Onek eta Justin Cusackek egiten diharduten bira Oñatira helduko da gaur. Zuzeneko egingo dute, 20:00etan, Anton tabernan.

Ferguson McAlpin-ek eta Adam Affiff-ek osatzen dute Roller One taldea. Malenkonia da nagusi euren abestietan. Justin Cusackek kantueta, aldiz, amodioa eta gorrotoa dira protagonistak.

## Bitxigintza birziklatuz ikastaroa egingo dute gaztelekuan

Birziklatuz sormen artistikoa eta bitxigintza landu gura dutenendako ikastaroa egingo dute gaztelekuan. Gaur da izena emateko azken eguna. Arantza Martin izango da irakaslea eta bi esparruak landuko ditu. Bost edo sei saio egingo ditu. Orduetgia eta egunak ikasleekin zehaztuko ditu Martinek.



AMAIK DIEZ

## Kultura astea ospatu dute San Martin egoitzan

San Martin egoitzan kultura astea ospatu dute. Askotariko ekintzak egin dituzte; besteak beste, bolo txapelketa, bingo berezia, zinema-emanaldia, musika eskolako

kontzertua, Oñati abesbatzaren emanaldia eta bertso jaialdia. Gainera, bertan bizi direnak eta haien senitartekoak mahaiaren bueltan elkartzeko.

# 'Argazkizkiak' literatura lehiaketa Loramendirekin

Helduendako lehiaketa da eta argazkiak eta berbak elkartzea da asmoa

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

*Argazkizkiak* helduen I. literatura lehiaketa deitu du Loramendi elkarteko Kultura lan taldeak. Argazki bat eta harendako testua aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek. Azken eguna abenduaren 11 da.

Urteak dira gazteen Loramendi literatura lehiaketa antolatzen duela, eta orain nagusiei ere zabaldu gura izan die eskaintza. "Kultura taldeak argi zeukan helduendako lehiaketa antolatu gura zuela eta hortik abiatuta zelakoa egin pentsatzen jardun du", argitu dute. Hala, argazkiak eta testua lotzearen aldeko apustua egin dute, ahalik eta herritar gehienek parte hartzeko asmoarekin: "Argazkiak eta literatura gustuko duten guztientzat da lehiaketa". Eta aretxabaletar guztiak animatu gura dituzte.

## Lanak osotasunean baloratu

Argazki bat aurkeztu behar da (30x20 zentimetrokoa) *Argazkizkiak* lehiaketara eta horri egokitzeko zailtasun testua (Din A-4an). Edozein generotan idatzita egon daiteke testu hori: poesia, bertsoa,

ipuina... Eta gaia norberak aukeratu du. "Gure ustez, argazkiak erraztasuna eman dezake zerbait idazteko orduan", diote Kultura taldeko kideek. Testu horren luzerari dagokionez ez dute mugarik ezarri, lehiaketak "malgua" izan gura duelako.

Epaimahaia Loramendiko Kultura lan taldeko kideek osatuko dute, eta onartu dute ez dutela lan samurra izango: "Gure helburua lanak osotasunean baloratzea da, hau da, testua eta argazkia banan ikusi beharrean, bien

artean sortzen duten lan bakarria ikusteak. Motzean esanda, testuak argazkia aberastu beharko du edo alderantziz".

## Sariak abenduaren 20an

Lanak Loramendira bideratuko dira abenduaren 11rako kartazal batean sartuta; lan horren izenburua eta egilearen gaitzizena jarriko dira hor. Barruan, beste kartazal batean, egilearen datuak egongo dira: izen-abizenak, telefonoa eta e-posta.

Sari banaketa abenduaren 20an egingo dute, eta hiru sari banatuko dituzte: 100 euroko txartela; 60 euroko txartela eta 40 euroko txartela. Hiru txartelak Elkar liburu dendan erabiltzeko izango dira.

## 2013ko eskaintza gertatzen

Kultura taldea udaberriaz geroztik dabil lanean Loramendi barruan, eta egun elkartearen 2013ko kultura eskaintza diseinatzeko oso erabilgarriak izan dira irail-urri inguruan herritarren artean banatutako inkestak, "ideia iturri aberatsa izan direlako".



## Langile berriak daude Arkupen



Udalak dagoeneko hartu du Arkupe kultura etxearen ardura eta azaroaren 5az geroztik langile berriak daude harreraren herritarren zerbitzura. Hiru dira eta Udalak egindako proba guztiak gaitziz dituzte horiek. Hona: Donostiako Sonia Moreno, Andoingo Andoni Azpillaga eta Legazpiko Aritz Idigoras.

Bestalde, Udal Liburutegian aurretik egondako bi langileak hartu dituzte berriro: Nerea Altuna aretxabaletarra eta Izaskun Leibar arrasatearra, hain zuzen ere.

## Murrukixoren bitartez bideratutako federatu txartelak M5 kirol-dendan jaso behar dira

Murrukixoko mendizale elkarteak 2013ko federatze aukeren berri eman die egunotan bazkideei. Era berean, bertako kideek jakinarazi dute federatu txartelak jasotzeko Mitarte kalean dagoen M5 kirol-dendatik pasatu beharko dutela bazkide guztiak.

Gainera, bazkideen datuak eguneratzen dabil Murrukixoko, eta datuok osatu beharra izanez gero Durana kaleko lokaletik pasatzeko eskatu dute, azaroaren 20a baino lehen; telefonoz deitu (943 79 93 74); edo [murrukixoko@euskalerrria.org](mailto:murrukixoko@euskalerrria.org) helbidera idatzi.

## Beste erkidego batzuetako mokadutxo eskainita ibilbide gastronomikoa egiten dabilza zapatuetan

*Ibilbide gastronomikoa* izenarekin beste erkidego batzuetako jatekoa eta edatekoa eskaintzen dabilza zapatu eguerdian (12:00-14:30) herriko hainbat taberna: Beroa, Dorleta, Eguzki, Txakoli eta Zaria. Dagoeneko Galiziako eta Andaluziako produktuak eskaini dituzte, eta bihar, Gaztelakoak izango dira aukeran: edateko, Ribera del Duero ardoa, eta jateko: bildotsa; Burgosko odolosteak; karramarroak saltsan; tripakiak; eta txitxi-burruntziak. Mokadutxo bakoitza bi eurotan eskaintzen dute.



## Nagore Balentziaga saritua

Aretxarte merkatarien elkarteko asteko saritua Nagore Balentziaga izan da, Kilima ume dendan lehen bakeroa erostearren. Lie lurrindegiko Aintzane Aizpuruaren eskutik jaso du oparia, 50 euroren balioa duen saskia. Oraingo astean bigarren saritu bat ere egongo dela iragarri dute Aretxarteko kideek.

## "Herritarrekin adostutako gaikako derrigorrezko bilketa izango da"

Atez atekoaren aurka ibili direnei Udal Gobernuak esan gura die ez dela sistema konkretu bat onartu

M.A. | ARETXABALETAKO

ARETXA.5. Bai izenekoa taldeak 1.704 sinadura aurkeztu zituen irailean bosgarren edukiontzia eraildean auzokideen artean. Udal Gobernuak horri erantzun gura izan dio: "Pozten gaitu herritarren hondakinen kudeaketaz arduratzeko; ardura hori guztiak erakutsiz gero, kudeaketa eta emaitzak hobetuko ditugulako".

Era berean, ez dutela ondo ulertzen atez atekoaren aurkako sinadura horiek diote: "Udalbatzak 2012ko ekainaren 11n onartutako mozioan ez delako sekula sistema bilketa konkretu bat onartu, ez atez atekoa, ez beste edozein".

## 398 erabiltzaile bosgarrenak

1.704 sinadura dituen idatzi horretan bosgarren edukiontzia "defentsa sutua" egiten dela eta zera argitu dute: "Kuriosoa da datu hau (aretxabaletarren sinadurak diren ez digu baiezatu notarioak), aurten izena emana zuten 761 aretxabaletarretik 398k bakarrik erabili izan dutelako bosgarren edukiontzia. Sinatu duten 1.704 ustezko aretxabaletarrek erabiliko balute, gaur beste egoera batean geundeke. Berriz ere egiaztatzen da bosga-

rren edukiontzia ez duela, inondik inora, %80ko birziklatze tasa sekula lortuko".

Udalbatzak onartu zuena bilketa sistemak izan beharreko ezaugarriak direla argitu dute: "Derrigorrezko gaikako bilketa pertsonalizatua, behintzat %80ko birziklatze tasa lortuko duena". Eta bilketa sistema hori zein izango den erabakitzeaz dagoela berretsi dute: "Herritarrekin batera adostuko dugulako".

## Informatzen jarraitu

Sinadurak jaso dituen elkarteko inor ez dela Udal Gobernuak kideekin harremanetan jarri diote. Udalak, bere aldetik, informatzen jardun duela argi utzi gura dute: "Eta bide horretan jarraitu nahi dugu: kaleko zakarrontziak bilakatu; autokonposta sustatu; auzokonposta egiteko baliabideak jarri; hitzaldi informatibo gehiago antolatu... Zero zabor bidean, urrats garrantzitsua delako ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta, bilketa sistema selektibo, derrigorrezko eta pertsonalizatu baten bitartez, gero eta gehiago birziklatzea. Horrekin guztion osasunak irabazten duelako".

## ESANAK

"Argazkiak eta literatura gustuko dituztenentzat da; herritar askok parte hartzea gura dugu"

KULTURA LAN TALDEA | LORAMENDI

## OHARRAK

### SORTU ALDERDIAREN GAINEKO BATZARRA

Sortu alderdiaren eratze prozesua jarri du abian ezker abertzaleak eta eztabaidan parte hartu gura dutenek bihar, zapatua, dute lehen bilera Arkupen (09:00).

### MAITASUNEZKO SMS MEZU LEHIAKETA

SMS mezu lehiaketa deitu du Udalak 12 eta 18 urte artekoendako; azken eguna azaroaren 23a. Maitasunezko SMS mezu bat bidali MAITASUNA (tartea) zure maitasun mezua 215800 zenbakira. Euskaraz izango da eta gehienez 160 karaktere. Saria da Galaxy Ace S5830 telefonoa.

### UDAL AURREKONTUA GERTATZEKO BATZARRA

2013ko aurrekontua herritarrekin batera dabil gertatzen Udala eta bigarren bilera egingo dute azaroaren 24an, zapatua, Arkupen (10:30). Arlo bakoitzeko mahaiak osatuko dituzte eta ekarpenak jaso.

### 1976AN JAIOTAKOEN DEIA

1976an jaiotako kintoak afaltzeko elkarteko dira azaroaren 24an, Taberna Berri jatetxean (21:30). Izena emateko Gertu dendara edo Izotz tabernara jo (10 euro); azken eguna azaroaren 19a.

## Tratu txarren gaineko berbaldia eta dokumentala datorren astean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Azaroaren 25ean Emakumeen aurkako tratu txarren kontra nazioarteko eguna dela gogoan berbaldia antolatu du Udaleko Berdintasun Sailak. *Deskonekta zaituz tratu txarretatik* leloarekin indarkeria psikologikoaren gainean –batez ere gazteen artean– egingo du berba Sortzen lan taldeko Irati Arrillaga adituak hilaren 20an, martitzena, Arkupen (19:00).

Berbaldi horren helburua da nerabzaroko eta gaztaroko bikote-harremanetan ematen den kontrola eta indarkeria sexista aztertzea: maitasunaren eta biolentziaren gainean egon izan diren nahasteak argitu,

biolentzia psikologikoaren gainean hausnartu, bikoteen artean jarrera onak zelan bultzatu... Herritar guztiei dago zabalik eta edozein kezka agertzeko aukera izango da bertan.

### Dokumentala

Bestalde, egunean, hilak 22, *Emakumeak Francoren espetxeetan* dokumentala emango dute (19:00). Maria Gonzalez kazetaria etorriko da Josu Martinezek eta Txaber Larreategik egindako filma aurkeztera, eta gero solasaldia bideratuko du.

Eta azaroaren 25ean, domeka, elkarretaratzea egingo dute plazan (13:00) emakumeen aurkako tratu txarrak salatzen.

## Basotxoko mus eta tute txapelkunak

Tute eta mus txapelketak jokatu dituzte Basotxo erretiratuen elkarteak, eta txapelkunak sari handiekin joan dira etxera. Tutean nagusitu ziren: Miguel Cabero eta Manolo Lopez. Eta musean: Mariano Gomez eta Dalmacio Gartzia. Erretiratuen arteko txapelketako ordezkariak izango dira horiek, baita herriko elkarte arteko mus txapelketakoak ere.



RAMON ERAÑA

### ZER OTE?

Txartelak agertu dira herriko bazterretan. Idazki arraroak dituzte batzuek, informazioa beste batzuek. Zer ote dira? Jarraitu txartel horien arrastoa.

[WWW.AUZOKO.TOPAGUNEA.COM](http://WWW.AUZOKO.TOPAGUNEA.COM)  
[aretxabaleta.auzoko@topagunea.org](mailto:aretxabaleta.auzoko@topagunea.org)

## 'Lo imposible' filma abenduaren 6tik 10era bitartean

M.A. | ARETXABALETA

Gurean ere emango dute *Lo imposible* filma. Abenduaren 6tik 10era bitartean izango da, Arkupen, eta bi saio egongo dira egun guztietan: abenduaren 6an, 7an, 8an eta 9an, 19:30ean eta 22:00etan. Eta 10ean, astelehena, 16:00etan eta 19:30ean. Hortaz, inor ez da ikusi barik geratuko hain ikusmin handia sortu duen filma.

### 'Si de verdad quieres'

Azaroan zabaldu zuten zinema, azken hiru hilabeteotan filmik bota gabe egon ostean. Film arrakastatsua ekarri dituzte, gainera, eta Zاراia aretoa bete egin da asteotan. Aste bukaeran *Si de verdad quieres* komedia (100 minutu) emango dute, Meryl Streep eta Tommy Lee Jones aktore handiak protagonista dituela. Gaur

eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00) ikusi ahal izango da; adinean aurrera joan arren sexu terapia egitea erabaki duen bikotearen gorabeherak kontatzen ditu.

Umek, oster, *Brave* (93 minutu) izango dute bihar eta etzi (17:00); Merida izeneko neska arkulariaren abenturak kontatuko ditu oraingoan Disneyk.

## Gemes

Irudi aholkulariak

Ilargi plaza 2 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 99 18

Gorputzerako  
spa tratamenduak.

Deluxe txokolatea.

Turkia misteriotsua.

Harribitxiak.

Paradisú goxoa.



Gabonetarako zer opari egingo duzun erabaki barik? Gabonetarako opari-bonuak dauzkagu Eskatu zurea, anima zaituz!



## Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketa bihar

Sei bikote izango dira, kultur etxean, 17:30ean

J.B. | ARAMAIO

Euskal Herriko Trikitilari Gazteen 21. Txapelketaren bigarren kanporaketa jokatu da bihar Aramaio kultur etxean (17:30). Zaldibarko Udala da txapelketaren antolatzaile nagusia; Gipuzkoan eta Araban egiten dira kanporaketak eta aurten Arabakoa Aramaion egitea erabaki dute: "Agurainen egin izan dira kanporaketa gehienak baina aurten Gipuzkoara hurbildu gura izan dugu", adierazi du Zaldibarko Rafa Urizar Kultura zinegotziak. Aramaio Udalak gustura jaso zuen antolatzaileen

eskaera. Sei bikotek hartuko dute parte biharko kanporaketan: "Gehienak gipuzkoarrak dira, baina badago Nafarroako bikoteren bat".

### Zortzi onenak finalera

Bi kanporaketetan puntuazio onena lortu duten zortzi bikoteak abenduaren 2an Zaldibarren jokatu den finalerako sailkatuko dira. 14 urtetik 19 urtera artekoak dira parte hartzaileak eta bikote bakoitzak lau kantu interpretatuko ditu; trikiti eta pandero doinuez gain, abestu ere egingo dute.



Erreka garbitu eta udaletxe azpian atera zuten talde argazkia. | ORIXOL ELKARTEA

## Orixol elkarte eta Udala, pozik erreka garbitzeko auzolanarekin

J.B. | ARAMAIO

Joan den domekarako Aramaio ibaia garbitzeko auzolana antolatu zuen Orixol mendizale elkarteak. 15 bat lagun elkartu ziren, eta, eguraldi iragarpenak oso txarrak izan arren, euririk ez zuen egin auzolanak iraun zuen bitartean: "Erreka amaitu eta berehala hasi zen euri zaparrada", adierazi digute Orixolekoek. Aurten, duela hiru urte baino zabor gutxiago jaso dute, baina, oraindik ere, hainbat plastiko, aterkiren bat edo beste eta zenbait arropa atera dute errekatik.

Antolatzaileak pozik daude herritarren erantzunarekin eta uste dute jendeak gero eta kontzientzia handiagoa duela ingurumenaren alorrean.

### "Auzolana altxor preziatua da"

Era berean, Udala ere pozik agertu da ekintzarekin: "Udalak eskerrak eman nahi dizkie auzolanetan, orokorrean, gure herria hobetzen ibili diren, dabilzan eta ibiliko diren guztiei. Auzolana gure herrian oraindik mantentzen den altxor preziatu bat da eta Udalaren lana ezinbestean osatzen du. Erreka garbitzearen kasuan, ikusita zenbat zakar jaso zen, argi gelditu da gure natura zaindu behar dugula; horregatik, guztiok esfortzua egin behar dugu gure kaleak, erreka eta mendiak garbi mantentzeko eta bertara zakarrik ez botatzeko, natura guztion delako eta guztiok naturaren parte garelako", adierazi du ohar baten bidez.

## Caja Laboral Baskoniak gaur jokatu duen partidurako sarrerak banatu ditu Udalak, doan

Aramaio Udala Caja Laboral Baskoniaren partidurako sarrerak doan banatzen ditu noizean behin. Bada, gaur Caja Laboral Baskoniak Olimpicos Piraeus taldearen aurka jokatu duen Euroligako partidua ikusteko sarrerak banatu ditu astean zehar eta oraindik ere badago aukera sarrera horiek eskuratzeko. Partidua Gasteizko Buesa Arenan jokatu da, 20:30ean. Interesatuak kiroldegian eskatu beharko ditu sarrerak, bukatu arte. Informazio gehiagorako, udaletxera jo: 945 44 50 16.

## Euskara ikasteagatik eta ikasleen garraio gastuetarako diru laguntzak abian dira

5.000 euroko partida bideratzea onartu du Udalak; izena emateko azken eguna, azaroaren 30a

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Joan den azaroaren 8ko osoko bilkuran aho batez onartu ostean, Udalak diru laguntza deialdi berriak martxan jarri ditu: euskara ikasteagatik ematen diren laguntzak eta ikasleen garraio gastuetarakoak. Bi deialdietara-

ko 5.000 euroko partida bideratzea onartu zuen udalbatzak; euskara ikasteagatik ematen diren laguntza 2.000 eurokoa izango da eta garraio gastuetarako, berriz, 3.000 euro bideratuko dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, eta erdi mailako,

goi mailako zein unibertsitate ikasketak dituzten ikasleek jaso ahal izango dute laguntza. Udalak garraio gastuen %100eko ordainduko du eta euskara ikasten duenari, berriz, matrikularen %80 ordainduko zaio.

Interesatuak azaroaren 30a baino lehen eman beharko dute izena. Eskaera udaletxean bertan egin behar da, bertan banatuko da eta bete beharreko izen-emate orria.

### Aurkeztu beharrekoak

Honako dokumentuak aurkeztu beharko dira: 2011-2012an egingako ikasturtearen matrikula agiria eta %80tik gorako asistentzia ziurtatzen duen agiria, Nortasun Agiriaren fotokopia, langabetua denaren ziurtagiria, kontu korronteko zenbakia eta zerga betebeharrak eguneratuta dituela ziurtatzen duen agiria.

## Orri markagailu lehiaketan parte hartzeko azken eguna gaur

J.B. | ARAMAIO

Zuiako Koadrilako orri markagailu lehiaketan parte hartzeko azken eguna da gaur. Orri markagailuaren marrazkia, leloa eta testuaren gaia norberak aukera ditzake eta lanak paper edo kartulinan aurkeztu beharko dira, honako neurriak aintzat hartuta: 4,5 zentimetro bider 21 zentimetro. Bestelako neurririk ez da onartuko. Gehienez, hiru lan aurkez daitezke, eta Udal Liburutegian edo udaletxean entregatu beharko dira.

Urtero moduan, sariak ez dira falta izango: lehen saria 150 euro da, bigarren saria 100 euro eta hirugarren saria, azkenik, 60 euro. Irabazleak abenduaren 17tik aurrera jakinaraziko dira Zuiako Koadrilaren webgunean: [www.cuadrillazuia.com](http://www.cuadrillazuia.com).



TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEA

## Txirripartxis arrakastatsua

Txirritola pozik dago aurtengo Txirripartxis lehiaketarekin. Iaz baino parte-hartzaile gehiago izan ziren, nabarmen: 51 haur eta 16 heldu. Multzo bakoitzeko hiru onenek Elkar liburu-dendan euskarazko materialarekin trukatzeko dirua jaso zuten. Hona sarituak: helduetan, Larraitx Arriolabengoa, Sara del Campo eta Monse Hernandez. Haurren artean, berriz, Igoitz Mateo, Ander Sexto eta Joseba Agirregomezkorta.



ARAMAIOKO PILOTA ESKOLA

## San Martin egunean "maila ona" pilota partiduetan

San Martin egunean pilota izan zen protagonista Aramaio pilotalekuan. Xabier Herrarte pilota eskolako arduradunak adierazi duenez, ez zen jende askorik hurbildu, baina infantil eta kadete mailako pilotariak "maila ona" erakutsi zuten. Herrarte eta Ibabe zein Bideburu eta Arregi -argazkian- izan ziren ordezkari aramaioarrak. Gainera, nesken artean Euskal Herrian dauden palista onenetakoen lehia ere azpimarratu du Herrartek.

## ELGETA

# Inor erroldatuta ez duten 126 etxebizitza daude Elgetan

Herrian dauden etxebizitzaren %21 da; Udalak igo egin du etxebizitza horien gaineko zerga

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako Udalak %150 garestiago kobratuko du ondasun higiezinaren gaineko zerga 2013an. Neurria ez da isolatua; izan ere, gero eta udal gehiago ari dira antzerako neurria hartzen ofizialki hutsik dauden etxebizitzak bai alokairuan bai salmentan merkaturatzera bultzatzeko. Udalak, zentzu horretan, desberdin egiten du etxebizitza hutsik egotea, edo bertan inor erroldatuta ez egotea.

Zerga igoerak udal gobernuko eta Bilduko ordezkarien babesa izan zuen urrian egindako osoko bilkuran. Alderdi jeltzaleko bi zinegotziak beste iritzi batekoak dira, eta ez zuten neurria babestu; ez dute uste zerga igoerak etxebizitza horiek merkatura ateratzeko eragina izango duenik.

## 126 etxebizitza hutsik

Udalak emandako datuen arabera 596 etxebizitza daude Elgetan, eta inor erroldatuta ez dutenak



Etxebizitza hutsak. | L.Z.

126 dira: %21, hain zuzen ere. Etxebizitza beharrari dagokionean, berriz, Bizigune programatik jakitera eman dutenez uneotan 18 lagunek eskatu dute programa horren bidez etxebizitza Elgetan. Miren Argi Zeziaga da Suradesako teknikaria Elgetan, eta hark kudeatzen du Bizigune programa herrian. Astelehenero egoten da udaletxean, 09:00etatik 10:00etara. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, ASAP programa du abian non etxejabeak eta errentariak harremanetan jartzen dituen. Berme jakin batzuk eskaintzen zaizkio bai etxejabeari bai maizterriari.

## Alokairu bereziak

Elgetan, bestalde, asko eraiki da azken urteotan, eta kasu askotan salmenta ez da erraza izan. Egoera ekonomikoa ez da ona, eta Italde promozio-etxeak, esaterako, bederatzi etxebizitza eskaintzen ditu alokairu berezian Torrealdean. Alokairu berezia da, izan ere, maizterrak epe batera etxebizitza erosteko konpromisoa hartu behar du.

## Etxejabeek jakinarazpena jasoko dute

Inor erroldatuta ez duten 126 etxebizitzetako jabeek Udalaren jakinarazpena jasoko dute ondasun higiezinaren gainerako zergaren igoeraren berri emanez. Zergaren %150eko igoera ez da aplikatuko baldin eta etxebizitza horretan pertsona bat erroldatzen bada, edo etxejabeak eguneratutako alokairu kontratu bat aurkezten badu.

## Macarena Rodriguez | Dietista

# "Osasungarriena ohitura egokiak eta elikadura orekatua zaintzea da"

L.Z. | ELGETA

Elgetako botika zerbitzu berria eskaintzen ari da maiatza ezkeretik dietista zerbitzua, hain zuzen ere. Macarena Rodriguez dietista eta nutrizionista hamabostean behin —eguazten goizetan— igozten da Elgetara.

## Zein da zerbitzuaren xedea?

Kontsultara gerturatzen direnek elikadura ohitura osasungarriak hartzea. Gehienak kiloak kentzera datoz, eta laguntzen dugu horretan, baina osasungarriena ohitura egokiak eta elikadura orekatua zaintzea da.



Macarena Rodriguez. | L.Z.

## Garestia da zerbitzua?

Lehenengo kontsulta doakoa da bezeroarendako; botikak ordaintzen du. Bigarrenetik aurrera zortzi euro kobratzen dut kontsulta, eta hamabostean behin ikusten dugu elkar pazientek eta biok.

## Zein da prozedura?

Lehenengo kontsultan fitxa zabalitzen dugu. Pertsonaren adina, pisua, egiten duen jardueraren fisioa, hartzen dituen botikak... eta informazio horren arabera dieta prestatzen dut. Gero, jarraipena egiten dugu.

## Produktu berezirik ematen duzu?

Fitoterapia oinarri duten produktuak saltzen ditugu botikan. Bezeroak laguntza osagarria eskaintzen badu eskaintzen ditut produktu horiek, baina ez dira derri-gorrezkoak.

## LEINTZ GATZAGA

# Pilotaleku azpiko garajeak eskatzeko epea zabaldu du Udalak

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Pilotaleku azpian dauden aparkalekuak herritarren artean banatuko ditu Udalak zozketa bidez. Interesatuak izena eman behar dute zozketa horretan parte hartzeko, eta azaroa bukatu bitartean dute horretarako. Udaletxean aurkeztu behar dira eskaerak.

Udal aparkalekuak motordun ibilgailuendako dira —automobilak, motorrak eta quadak— eta lurzoruan marraztutako marraz mugatuta daude. 18 leku dira automobilendako eta bakarra motor eta quadendako.

Zozketa egiterakoan ibilgailuen tamaina hartuko dute kontutan. Instalazioen goiko aldean

edo ezkerretan tamaina handiena duten ibilgailuak jarriko dituzte (4-5 metro edo gehiagoko ibilgailuak) eta beheko aldean edo eskuinean gainontzekoak. Horregatik, zozketa egiteko bi zerrenda egingo dituzte.

Aparkalekuok bi urterako emango ditu Udalak —2013ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31 arte—, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Argibide gehiago gura duenak udaletxera edo webgunera jo dezala: [www.leintzgatza.com](http://www.leintzgatza.com).

# Mugarri Eguna egingo da lehen aldiz Elgetan, eta hiru bat orduko irteera antolatu du Udalak

L.Z. | ELGETA

Domekan, hilak 18, egingo da I. Mugarri Eguna. Nerea Villa aritu da —hainbat herritarren laguntzarekin— herriko mugarren inguruan dokumentu bat eguneratzen. Informazio hori jasota dago orain argazki, kokapen eta mugarren ezaugarriekin batera. 40 bat mugarri daude lokalizatuta. Domekako irteeran Asentzio eta Burdiñua arteko mugarriak erakutsiko dituzte. Herritarrei egiten zaien proposamena da 09:30ean Herriko Plazatik abiatzea, edo 09:45ean Asentziotik.

## Bost mugarri

Domekako lehenengo geldiduna Asentzio izango da; izan ere, ermita atzean dago mugarri bat. Jarraian, Iturutz, Etxaurria, Otegi eta Burdiñogako mugarriak bisitatuko dira. Azken horrek hiru udalerriren arteko muga finkatzen du: Arrasate, Elgeta eta Elorrio artekoa, hain zuzen ere.

Antolatzaileek aurreikusten dute hiru bat orduko ibilbidea izango dela, eta eguraldi txarra bada antolatzaileek ez dute irteera atzeratzeko aukera bazterten.

## IX. PILOTA TXAPELKETA

## Bederatzi partidu aste bukaeran

### AZKEN EMATZAK

Asier Morales-Fernando Zenitagoia / Igor Irazabal-Enrike Elkorro	19-22
Jabier Bolinaga-Iñaki Izagirre / Pello Larrea-Mikel Elkorro	12-22
Sergio Bouzas-Jon Irazabal / Iban Retolaza-Diego Cantabrana	22-20
Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu / Iker Irazabal-Jabier Larrañaga	22-10
Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe	22-19
Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga / Angel Ibarluzea-Alberto Telleria	20-22

### GAURKO PARTIDUAK, 20:00ETAN HASITA

Pello Larrea-Mikel Elkorro / Asier Morales-Fernando Zenitagoia
Sergio Bouzas-Jon Irazabal / Mikel Ormaetxea-Haritz Makarro
Jabier Bolinaga-Iñaki Izagirre / Iker Irazabal-Jabier Larrañaga
Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi / Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga
Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta

### DOMEKAKO PARTIDUAK, 10:30EAN HASITA

Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu / Angel Ibarluzea-Alberto Telleria
Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga / Igor Irazabal-Enrike Elkorro
Iban Retolaza-Diego Cantabrana / Iñaki Olaortua-Oskar Sarasua
Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga / Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe

## OHARRAK

## GAZTAINA-ERRE JANA

Eskolak eta guraso elkarrekin egingo dute gaur, barikua, 15:00etan, Herriko Plazan.

## SORRERA BATZARRA

Sortu alderdi berriaren inguruko batzarra gaur, barikua, 19:00etan, kultura etxean.

## ANTZEZLAN KOMIKOA

*Dos hombres solos sin punto*

*com ni ná* antzezlana gaur, barikua, 22:30ean, Espaloian.

## PODOLOGO ZERBITZUA

Interesatuak txanda hartu behar dute hilaren 22ko kontsultarako. 943 76 80 77 (Nati).

## ARDO DASTATZEA

Bolatoki tabernan egingo dute hilaren 22an, eguena, 19:30ean. Parte-hartze irekia.

**Aperribay, s.l.**

*Marmoldegi eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21  
**20690 ELGETA**

## Preso gaixoen eskubideen aldeko mozioa onartu dute

Preso gaixoen bizi duten egoera larriaren aurrean kezkatuta agertu da udalbatza eta mozioa onartu du. Hala, indarrean dagoen legea bete eta urrats errealek egiteko eskatu dio Madrilgo Gobernuari, eta gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru presoendako baldintzapeko askatasuna eskatu.

## MENDI LASTERKETA

# Behobiako 'entrenamendua' baliatuko du Kortazarrek Patagonian

Salomon K42 Adventure Marathon serieko finala jokatu du asteburuan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

"Patagoniako maratoia lasterketa azkarra da, eta Behobia-Donostia lasterketa aprobetxatu nahi nuen abiadura lantzeko. Ez nuen lasterketa irabazterik espero, baina honek indarra ematen du. Gainera, konturatu naiz jende askok animatu nauela, jendeak mendi lasterketak jarraitzen dituen seinale". Oihana Kortazarren adierazpenak dira, joan den domekan.

Elgetakoak ez du atsedenik hartzeko tarte handirik izan, astelenean bertan abiatu zen -eta Argentinarentz, urteko hitzordu nagusietako baten esku hartza: Salomon K42 Adventure Marathon lasterketan, hain zuzen ere.

## Hego Amerikako handiena

Patagoniako lasterketa K42 serieen barruan final handia izango da, urtean zehar, besteak beste, Kanarietan, Frantzia, Brasilen, Txilen eta Perun korritu ostean -munduko bost kontinenteetatik lauk dute K42 serieko lasterketa bat. Hala, antolatzaileek baieztatu dute mundu mailako puntako atletak batuko direla Villa La Angosturan.



Kortazar, 2012ko lorpenetako batean, Zegama-Aizkorrin. | INAZIO ARREGI

Kortazarrekin batera lasterketan izango dira Kasie Enman (AEB), Anna Frost (Zeelanda Berria), Rickey Gates (AEB), Miguel Heras (Espainia) eta Zhanna Vokueva (Errusia) puntako atletak, baina guztiek ere ondo dakite Argentinan etxeko atletak direla faborito: lasterketako bost edizio irabazi dituen Gustavo Reyes eta 2009 eta 2011ko edizioak irabazi zituen Cristian Mohamed, hain zuzen ere.

## Kilian eta Marlen, bakarrik

Esan bezala, sailkapen historikoak erakusten du txapela etxean gera-

tu izan dela, ia beti. 2010ean Kilian Jornet (3:08:31) bilakatu zen lasterketa irabazten zuen lehen kanpotarra -eta errekorren jabe-, eta iaz, emakumezotan, Txileko Marlene Flores gailendu zen (4:11:11). Ikusteko dago lasterketaren hamargarren edizioan nork ematen duen ezustekoa.

Biharko lasterketak 42 kilometro izango ditu, eta 4.380 metroko desnibel metatua. Hala, korrikariak Cerro Bayo (1.782 metro) mendian aurkituko dituzte malda gogorrenak, hain zuzen, lasterketako 23. kilometrotik 28. kilometrora arte.



lazko Altitoyn ibarreko eskiatzaile koadrila handia egon zen. | GOIENA

## MENDIKO ESKIA

## Open Altitoy Ternua, otsailaren 2an

Ternuak babesten duen lasterketan izena emateko epea gaur, egubakoitza, hasi da

X.U. | ARRASATE

"Aurten berriz ere zuek harrizten saiatuko gara, ibilbide berriekin eta bide teknikoekin, aireko ertzeekin eta korridore aldapatsuekin". Hori da Open Altitoy Ternua etxeko antolatzaileek bota duten amua. 2013ko Altitoy urteroko osagai guztiak izango ditu, eta baita hainbat nobedade ere; hasteko, 2013ko edizioa Grande Coursearen barruan egongo da, eta, hori dela eta, beste hitzorduen parean egoteko, proba gogortu egingo dute.

## Nobedadeak

Nobedadeen barruan, izen-emateei dagokienez bi berrikuntza daude: A ibilbidean izena emateko (*kirolprobak.com*), lehenengo, aurre-inkripzioa egingo da (azaroaren 16tik 30era arte), eta antolatzaileek

-kirol lorpenetan oinarrituta-aukeraketa egingo dute -soberan geratzen diren lekuekin zozketa egingo dute-. Antolatzaileek abenduaren 3tik hasita jakinaraziko dute zeintzuk izan diren aukeratuak, eta horiek derrigorrez egin beharko dute Grande Course txartela (*grandecourse.com*), 20 euro ordainduta. Hala, abenduaren 10etik 16ra A ibilbideko inskribapenak formalizatuko dira. Eta B ibilbiderako izen-ematea, berriz, abenduaren 17tik aurrera egin ahal izango da.

Aurreratu dugu iazkoak baino ibilbide gogorragoak izango direla. Helmuga Bigorreko Pic du Midiko astrologia zentroan egongo da eta ikusleak bertara igo ahal izango dira -eskiatzaile bakoitzak teleferikoan jasotzeko gonbidapen bat jasoko du.

## FUTBOLA

## Aloña Mendik eta Bergarak derbia jokatu dute domekan Azkoagaingo zelaian

Ligako hamargarren jardunaldian jokatu dute derbia Aloña Mendik eta Bergarak (domekan, 16:30). Biek ala biek galdu egin zuten joan den astean, eta, sailkapenaren erdian egonda, hiru puntuak batzen dituenak gora begira jartzeko aurrerapausoa egingo du. Mondrak eta Aretxabaletak etxean jokatu dute; Arrasatekoek Tolosa hartuko dute Mojategin (domeka, 16:30) eta Aretxabaletak, Hondarribia (domeka, 16:30).

## SASKIBALOA

## Lider dagoen Natra Oñati Zornotzaren kantxan ahaleginduko da laugarrena jarraian lortzen

Oñatiko saskibaloitza ezin hobeto hasi du liga; hala, Eneko Blancoren mutilak lider dira EBA mailan, jokatu dute hiru partidua irabazita. Bihar, zapatua, oñatiarrek Zornotzaren kantxara egingo dute bidaia, 18:00etan. Lehen nazional mailan, Arrasateko MUK ere oso ondo hasi du liga; Josu Larreategiren mutilak hirugarren daude sailkapenean, eta bihar, zapatua, etxean jokatu dute Leioak Zarautzen kontra (18:00, Iturripe).



## ZIKLOTURISMOA

ARGAZKILARIAXXX

## Oñatiko ziklistek, agur denboraldiari

Joan den asteburuan -zapatuan-, argazkiko Oñatiko zikloturista taldeak agur esan zion zikloturista denboraldiari, urteko azken irteera eginda: Dorletako Amari bisita. Arlaban igo, eta bizikleta itzuliaren ostean, urtean zehar egindako kilometro guztien omenez bazkari ederra egin zuten: baba-jana, hain justu ere. Santa Lutziko elkartearen egin zuten bazkaria, eta seguru bazkalostean datorren denboraldiko helburuak zehaztu zituztela, ordurako zehaztuta ez bazituzten.

**PENDRIVE BAT**  
Bidali KLUBA PENDRIVE [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira  
**goiena**

**LIBURUA ETA DVDA**  
Bidali KLUBA LIBURUAK [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira  
**PAMIELA**

**DVD ERREPRODUKTOREA**  
Bidali KLUBA DVD [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.  
**EROSKI**

**UMEENTZAKO JOKUA**  
Bidali KLUBA JOKUA [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.  
**argia**

**ZARZUELA**  
Bidali KLUBA SARRERAK [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.  
**OÑATIKO UDALA**

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05  
E-postaz: kluba@goiena.com  
WhatsApp bidez: 688 69 00 08  
Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

**goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!



**goienakluba** 2012  
Tel.: 943 25 05 05  
e-posta: kluba@goiena.com  
goienakluba.com  
Urteko kuota: 50 €.

IRABAZLEA TXARANGO +D PINTXOS KONZERTURAKO SARRERAK  
**ARANTZAZU URIBESALGO MUXIKA** (Arrasate)

**ZORIONAK!**

SM Saren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoltzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-billetea hemen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioan. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezteztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

FUTBOLA

# 'Kirola euskaraz' lelopean ibarreko futbol eskoletako haurrak batuko dira Bergaran

Futbol eskoletako entrenatzaileak formatzeko proiektua aurkeztuko dute

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Domeka goizean bailarako futbol eskoletako neska-mutiko mordo batuko da Bergarako Ipintza futbol zelaian. Kirola euskaraz programaren barruan egingo duten ekimena aurkeztea izango da ekitaldiaren helburua, eta horretarako, Bergarako, Aretxabale-tako, Oñatiko, Arrasateko eta Antzuolako futbol eskoletako neska-mutikoak batuko dituzte, 500 inguru.

Domekan, jardunaldia 9:30ean hasiko dute eta 14:00ak aldera bukatu. Ordezkaritza politikoa eta teknikoek egingo duten aurkezpen ofiziala, bestalde, 11:30ean izango da eta antolatzaileek sorpresak ere iragarri dituzte. Goizean goizetik, berriz, Ipintzara deituta dauden futbol jokalariek gazteak hainbat lagunarteko jokatu dituzte.

**Entrenatzaileak formatzea**

Domekako aurkezpenean futbol eskoletako entrenatzaileak formatzeko proiektua aurkeztuko dute. Eta garbi dituzte helburuak: batetik, modu integrarean gurasoekin, jokalariekin eta entrenatzaileekin hainbat eduki lantzea; euskara, ingurunearekiko errespetua, lidergoa, talde lana edota



Gaztetxoak futbol eskolan. | LENGOKOAK

**DATUA**

# 500

GAZTETXO

Ipintzan bailarako 500 neska-mutiko batuko dira aurkezpena egiteko, eta hainbat partidu jokatu dituzte.

balioak; eta bestetik, futbol eskoletako euskara maila eta erabilera hobetzea, eta baita kirol-teknifikazio maila ere.

Horretarako, kirol eskoletako entrenatzaileekin formazio bilerak egingo dituzte, hitzaldiak izango dira guraso zein haurrendako, eta topaguneak ere antolatu dituzte. Zehaztasunak, baina, domekan emango dituzte; gurasoek zabal-zabalik izango dituzte Ipintzako ateak.

**ASTEBURUKO HITZORDUAK**

**FUTBOLA**

**EMAKU. BIGARREN MAILA**  
Eibar-Mondra  
Domeka. 15:30. Unbe.

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**  
Lekeitio-Aretxabaleta  
Domeka. 16:30. Larrotegi.

**OHOREZKO ERREGIONALA**  
Aretxabaleta-Hondarribia  
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Mondra-Tolosa**  
Domeka. 16:30. Mojategi.

**Aloña Mendi-Bergara**  
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**  
Antzuola-Eibartarrak  
Zapatua. 15:45. Estala.

**LEHEN ERREGIONALA**  
Ikasberri B-Aretxabaleta UDA B  
Zapatua. 18:45. Garmendipe.

**Arizmendi-Urki**  
Zapatua. 18:00. Ibarra.

**OHOREZKO GAZTEAK**  
Zumaia-Mondra  
Zapatua. 11:30. Zumaia.

**Bergara-Aloña Mendi**  
Zapatua. 17:15. Ipintza.

**GAZTEAK**  
Urola B-Aloña Mendi B  
Zapatua. 16:00. Argixao.

**Eibartarrak B-Bergara B**  
Zapatua. 17:00. Unbe.

**Arizmendi-Eibartarrak**  
Domeka. 11:30. Almen.

**OHOREZKO KADETEAK**  
Lagun Onak-Aloña Mendi  
Zapatua. 15:00. Garmendipe.

**Anaitasuna-Bergara**

Zapatua. 11:00. Azkoitia.  
Arrasate-Aretxabaleta UDA  
Zapatua. 11:45. Mojategi.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Saltzaileak-Eskoriatza  
Zapatua. 18:45. Ermua.

**LEHENENGO MAILA**  
Oiarzun-Aretxabaleta  
Zapatua. 18:00. Aretxabaleta.

**ESKUBALOAIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Atez Ate Usurbil-Ford Mugarri  
Zapatua. 18:30. Usurbil.

**Soraluce BKE-Urduliz Eskub.**  
Zapatua. 18:45. Labegaraiaeta.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKO SENIORRA**  
Leizaran-Aloña Mendi  
Domeka. 11:45. Andoain.

**GIPIZKOAKO TXAPELKETA**  
Izarraitz Aloña-Leizaran  
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**GIPIZKOAKO BIG. TXAPELK.**  
Bergara-Arrasate  
Zapatua. 12:45. Labegaraiaeta.

**GAZTEAK, GIZONEZKOAK**  
Egia Bar-Bergara  
Zapatua. 18:15. Donostia.

**Urola-Aloña Mendi**  
Zapatua. 18:00. Zumarraga.

**KADETEAK, GIZONEZKOAK**  
Bereao Aloña-Orkiti Ordizia  
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Arrasate-Saieko-La Salle**  
Zapatua. 10:30. Iturripe.

**KADETEAK, EMAKUMEZKO.**  
Aloña Mendi B-Eibar B  
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**SASKIBALOAIA**

**EBA**  
Zornotza-Aloña Mendi  
Zapatua. 18:00. Zornotza.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**  
MU-Leihoak Zarautz  
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**SENIOR GIZONEZKOAK**  
Mondragon Unib.-Errotandi  
Gaur. 20:00. Musakola.

**Soraluce BKE-DKS**  
Zapatua. 16:30. Labegaraiaeta.

**SENIOR BIGARREN MAILA**  
Aloña Mendi-DKS Lurgoien  
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**SENIOR HIRUGARREN MAILA**  
MU B-Andraitz  
Zapatua. 17:30. Musakola.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**  
Easo Alde Zaharra-Eskoriatza  
Zapatua. 16:00. Donostia.

**GAZTEAK ERRENDIMENDUA**  
Cafes Aitona-MU A  
Zapatua. 18:00. Donostia.

**ERRUGBIA**

**SENIORRAK**  
Elorrio-Arrasate  
Zapatua. 16:00. Elorrio.

**GAZTEAK**  
Durango-Arrasate-Gernika  
Zapatua. 11:00. Durango.

**KADETEAK**  
Durango-Arrasate-La Unica  
Zapatua. 12:30. Durango.

**SIMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



**BERGARA**  
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa  
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49  
E-posta: [bergara@servimasa.com](mailto:bergara@servimasa.com)  
**LEZO**  
103 industria poligonoa  
Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757  
[www.servimasa.com](http://www.servimasa.com)


**Alda ezazu zure sukaldeko zorua obrarik egin gabe. 25 urteko bermea. Informa zaitez!**

**FAUS blue**  
Sukalde eta bainuentzako zoru laminatu berezia

**LOFT GOA**  
1190x2024x8

**LOFT TOSCANA**  
1190x2024x8

# Debagoieneko GREMIOAK



## ARROZTEGIAK

### AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tari-mak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

## ITURGINTZA

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

## OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

## URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

## ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

## LOREZAINNTZA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

## MARGOAK

### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



# KULTURA

## Sortzaileen arima eraikitzen

Bergarako Idazle Eskolako gradu-ondokoak 10. urteurrena bete du; ospakizunetan murgilduta, askotariko ekintzak egiten dihardute bertako ikasleek eta irakasleek

MAIDER ARREGI | BERGARA

Jone Gorostartzu, Izaskun Etxeberria, Iñaki Odriozola, Itziar Gomez, Xabi Lopez.... sortzaile askoren artean, izen batzuk dira. Makina bat istorio eta esperientzia bizi eta idatzi dute dagoneko, urria ezker abian da-eta Bergarako Idazle Eskolako gradu-ondokoa, hamargarren urtez.

Bertan dihardute ikasle izan diren asko orain eskolak ematen. Xabi Lopez ikasle ohiak hainbat antzerki sari eskuratu ditu. "Antzerki ikasketak gaztelaniaz egin nituen, eta euskaraz idazten ondo ikasi nahi nuen. Konfiantzaz idazten lagundu dit Idazle Eskolak". Dramaturgia irakaslea lanetan dabil egun. "Oso gustura nabil, irakasle-ikasle arteko lagun talde bat aurkitu dut-eta hemen".

Izaskun Etxeberria ere ikasle ohi da; hainbat ipuin sariketa irabazi ditu, gainera. *Luma berrien eleak* aldizkariaren azken bi urteetako koordinazio lanetan ibili da. "Egun, Nafarroako *Berriko Hitza*-n kolaboratzen dut. Esperientzia ona eta oso positiboa izan da; bi ikasturte dira, baina hirugarren maila bat edukitzea ere faltan igarri dut lantzen eta aberasten jarraitzeko". Deskurimendua izan dela azaldu digu, eta pare bat sari ere irabazi dituela. "Hor zegoen zerbait piztu dit barrenean, eta ipuin arloan sakondu gura izan dut".

Jone Gorostartzuk poema arloa landu du. "Oso esperientzia positiboa izan da. Betidanik izan dudana afizioa lantzeko aukera eman dit. Taldean konpartitzea norberaren dudak eta lanak oso aberasgarria izan da". Karmele



Zapatuan, Idazle Eskolako ikasle eta irakasleek Monzonen gaineko irakurraldian bat egin zuten, Bergaran. | IDAZLE ESKOLA

Igartua beka ere Gorostartzuk jaso zuen. Hala, jaio da kaleratu duen *Des-egiten* poesia liburua. "Konturaterako, poema bilduma egin nuen Idazle Eskolan. Kar-

mele Igartua beka eman zidatenean, epaimahaikideek animatuta poema bilduma hori batu eta kaleratzea erabaki nuen", azaldu digu Gorostartzuk.

### 'Idazten.com'

Iñaki Odriozola ikasle ohi dabil *Idazten.com* webguneko koordinatzaile lanak egiten. "Jende gazte oso ona dator, poesia arloan,

bereziki. Nik jendea animatu nahi dut webgunean sartu eta irakurtzera bertan dauden idatzi eta poesia lanak, merezi dute-eta", nabarmendu digu Odriozolak.

### Idazle Eskolan, erreferentea

Karmele Igartua idazle aretxabaletarraren *Itsaso Kontra bat* lana Espainiako Poesia Sari Nazionalako euskarazko atalerako hautatu dutela kontatu digu Tere Irastortzak.

Jone Gorostartzuk gertutik ezagutu zuen Igartua eta haren lana. "Pertsona eta idazle bezala ezagutzeko aukera izan nuen. Erreferente bat da, dinamika egoteko lan asko egin du Idazle Eskolan; *Ilunabar literarioak* bultzatzea, esaterako", azaldu digu.



Karmele Igartua. | GOIENA

### ESANAK

"Hirugarren maila bat edukitzea ere faltan igarri dut"

IZASKUN ETXEBERRIA | IKASLE OHIA

"Betidanik izan dudana afizioa lantzeko balio izan dit eskolak"

JONE GOROSTARTZU | IKASLE OHIA

"Euskaraz ondo idazten ikasi nahi nuelako hasi nintzen eskolan"

XABI LOPEZ | IRAKASLEA

"Jende gazte oso ona dator, poesia arloan, bereziki"

IÑAKI ODRIOZOLA | IKASLE OHIA

UGARTE  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Proiektuak · Koltxoiak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurrira  
Ateak · Eskailerak  
Leihoak · Tarimak  
Egur lanak



# 400 nobedadetik gora aurtengo Durangoko Azokan

Atzo aurkeztu zuten abenduaren 6tik 9ra bitartean egingo den 47. Durangoko Azoka

ZURIÑE V.D.M. | DURANGO

Martxan da euskaldunon urteroko hitzordua: atzo bertan aurkeztu zuten 47. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka. Zazpi gunetan banatuta, lau egunetarako hainbat hitzordu prestatu ditu Gerediaga Elkartek.

Ez dira nolanhikoak aurtengo zifrak. Besteak beste, 47. edizioan 400 pertsona baino gehiagok egingo dute lan; 253 stand egongo dira; Plateruenan 10 kontzertu eskainiko dituzte; 89 liburu, 65 disko eta 32 aldizkari berri egongo dira, eta 7 argitalpen elektronikoa. Horrez

gainera, *Morritson eta Gartzia* euskarazko lehenengo 3-D filma ere aurkeztuko da.

## Gune berriak

Gune berriak izango dira aurtengo. Esaterako, orain arte Haur Literatura Aretoa moduan ezagutzen zena Saguganbara izatera igaroda: "Ez da literaturara mugatzen. Tailerrak nabarmenduko dira: komiki tailerrak, euskarazko jolasenak...". Bestalde, arte eszenikoek toki propioa izango dute San Agustin aretoan; Szentokia gunean antzerki maratoiak, irau-



Atzo aurkeztu zuten Durangoko Azokaren 47. edizioa. | JON BEREZIBAR

pen laburreko obrak-eta eskainiko dituzte.

## Ijitoena, kultura gonbidatua

Aurtengo, azokako kultura gonbidatua ehunka urtez euskaldunon artean egon den ijitoen kultura izango da. Kale Dor Kayiko elkarteak koordinazioan lagundu du. Manel Bizarragak, *Tio Manuel*-ek,

ijito herriaren ordezkari gisa, hunkituta jaso zuen gonbita, eta euskara eta euskaldunekiko esker ona adierazi zuen, bihotzez. Azokan, haurrentzako tailerrak, ipuin kontaketa eta jokoak egingo dituzte, eta, hain zuzen, emakume ijitoaren egunaren eta aldarriaren eta zuzeneko musikaren bidez jendarteratu gura dute ijitoen kultura.

## Argizaiola, Lertxundirentzat

Abenduaren 6an, berriz, Benito Lertxundiri *Gauean argi* deituriko ekitaldian Argizaiola saria emango diote. Euskal kulturgingintzako pertsonaia esanguratsua izatea eta azokarekin betidanik izandako harremana errekonozitu gura izan diote, modu horretan, oriotarrari.

## 'Dos hombres solos, sin punto com... ni ná' antzezlana gaur Espaloian

Z.V.D.M. | ELGETA

TeatroSi taldea Elgetan izango da gaur iluntzean, eta *Dos hombres solos, sin punto com... ni ná* antzezlana. Manolo Medina eta Rodrigo Ponce de Leon aktoreek Espaloira bertaratzeko diren algarak sorraraziko dituzte, 22:30ean hasita.

Medinak eta Ponce de Leonek Lagunartean antzeztu zuten aurreneko aldiz obra hori, hain zuzen ere, 2001ean, eta politikoki hainbat tokitan antzeztu hasi ziren. Bada, izan zuen harrera bikaina ikusita sortu zen, ondoren, TeatroSi antzerki konpainia.



Antzezlaren une bat. | TEATROSI

## Oñatiko emakumeak taula gainera igoko dira gaur Gaztelekuan

Gaztelekuan, Andraitz Oñatiko Feminista Taldeak antolatuta, gaur, egubakoitza, 22:00etan hasita, *Stereo* antzezlana egongo da, Miren Gaztañagaren eskutik. Gero, La Tia Carmen talde katalanaren kontzertua izango da, eta, gaua amaitzeko, DJ Korta y Pega.



*Gigantes y cabezudos* zarzuelako une bat. | GOIENA

## Zarzuela Amaiako oholtzan

'Gigantes y Cabezudos' lana taularatuko dute bihar eta etzi Izaskun Murgia Elkarte Lirikoek

Z.V.D.M. | ARRASATE

Izaskun Murgia Elkarte Liriko kideek Manuel Fernandez Caballeroren *Gigantes y Cabezudos* zarzuela taularatuko dute bihar eta etzi, 19:30ean. Baina ez dira saio bakarrak izango, aza-

roaren 23an eta 24an ere igoko baitira Amaiako oholtzara, 20:00etan eta 19:30ean, hurrenez hurren.

Arrasateko taldeak interpretatuko duen hamahirugarren zarzuela da. Iaz *La Revoltosa*

eskaini zuten, arrakasta handiz, eta aurtengo obraren aztarnak topatuko dituzte Amaiara bertaratzeko direnek. Naroa Elortza elkarte lirikoko kideak adierazi duenez, iazko agertokia aprobeztatu dute oraingo honetan.

*Gigantes y Cabezudos* zarzuelan maitasun kontuak nagusitzen dira: Kubako gerrara joan den soldaduen emaztegiaren kontakizuna da oinarria.

## Ehun lagunetik gora

Zarzuelak urtero jende mordoak inplikatzeko du. Hala, oraingoan ere, Amaia antzokiko agertokian ehun lagunetik gora arituko dira; eta Arrasateko erraldoien irudiak ere ez dira falta izango.

Protagonistak paperean sartzeko ezinbestekoa da egoki jantzea. Mertxe Lagunilla eta Marije Pie de Hierro arduratu dira *Gigantes y Cabezudos* obrarako jostun lanak egiteaz, azken hamaiaka zarzuelatan moduan. "Aurtengo gizonen protagonismo guztia daukate jantziei dagokienez. Hilabete ugari eman ditugu haien jantziak egiten". Hala aurreratu zuten Arrasate Irratian egindako elkarrizketan.

## 'Su txikian' domekan Glu Glu taldearen eskutik

Z.V.D.M. | OÑATI

Glu Glu taldeak *Su txikian* obra taularatuko du domekan Santa Ana antzokian. Bi saio egingo dituzte, euskaraz bata eta gaztelaniaz bestea, eta 18:00etan eta 20:30ean izango dira, hurrenez hurren. Egiguren eta Otegiren arteko elkarrizketa jasotzen du lanak. Galder Perezek zuzenduta, Joxe Mari Carrere, Gabriel Ocina, Patxi Gonzalez, Mañu Elizondo, Martxelo Rubio, Libe Aranburu eta Ugaitz Alegria dira protagonistak. Azpeitian, Lasarten eta Elgoibarren eskaini ostean, Oñatira iritsiko da *Su txikian*. Gainera, urtea amaitu bitartean Debagoienan antzeztuko duten toki bakarra da. Sarrerak 12 eurotan daude salgai.

## 'Beeee... Eguna' ospatuko dute Zarautzen hilaren 24an

Z.V.D.M. | DEBAGOIENA

*Beeee... Eguna* edo bertso-eskolen jaia egingo dute Zarautzen azaroaren 24an. Egitarau borobila antolatuta dute: 12:00etan bertso-poteoa; bazkaria 14:30ean Frontoi zineman, eta jarraian bertso jarriak egongo dira. 22:00etan gaztetxean emanaldi bereziak eskainiko dituzte, eta, eguna amaitzeko, Fan & Go taldeak erromeria eskainiko du.

Besteak beste, Andoni Egaña, Jon Maia, Onintza Enbeitia, Maddalen Arzallus, Xabi Igoa bertsolariak eta Baiona, Gasteiz eta Iruñeko bertso-eskoletako kideak egongo dira Zarautzen. Bazkarira joan gura izenez gero, idatzi [bertsoeskolak@gmail.com](mailto:bertsoeskolak@gmail.com) helbidera.



ASTEAGOIENAN



Aste bukaerako kultur agendaren errepaso

Planik bai? saioan, aste bukaerako kultur agenda errepasatzen du Arantzazu Ezkibehek. Debagoienean egongo diren antzerki eta kontzertuen berri ematen du, eta baita ibarreko zinemetan izango diren filmen informazioa ere.

'Planik bai?' Eguena 22, 19:54



'Naufragioak Euskal Kostaldean', 'GK'-n

Donostiako Ontzi Museoa ikusgai dagoen Naufragioak Euskal Kostaldean erakusketa ezagutuko dugu Gipuzkoa Kultura-n. Horretaz aparte, Glu Glu antzerki konpainiaren Su txikian antzezlanaren nondik norakoak ezagutuko ditugu.

'Gipuzkoa Kultura' Eguena 22, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA 16

12:00 Planik bai?  
12:20 Magazinea  
13:05 Zorion Agurrak  
13:10 Gurean gaur  
13:40 Zorion Agurrak  
13:45 Onein  
14:12 Ikusmira  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:08 Planik bai?  
15:28 Ikusmira  
15:56 Gipuzkoa kultura  
16:26 Beranduegi.tv  
16:46 Zorion Agurrak  
16:51 Berriak  
17:11 Eguraldia  
17:14 Planik bai?  
17:34 Ekogune  
18:04 Garaien OIartzuna  
18:49 Beranduegi.tv  
19:13 Zorion Agurrak  
19:17 Berriak  
19:37 Eguraldia  
19:40 Planik bai?  
20:00 Goierri Creation Center  
20:25 Gipuzkoa kultura  
21:00 Gurean gaur  
22:00 AsteON  
22:30 Berriak  
22:50 Eguraldia  
22:53 Esatea libre  
00:08 AsteON  
00:38 Planik bai?  
00:58 Berriak  
01:18 Eguraldia

ZAPATUA 17

10:00 Jaiak: Arantzako baseritarren eguna  
10:41 Zorion Agurrak  
10:46 Ekogune  
11:16 AsteON  
11:56 Planik bai?  
12:16 Onein  
12:48 Berriak  
13:03 Magazinea  
14:03 Erreportajea  
14:37 Gipuzkoa kultura  
15:07 Zorion Agurrak  
15:12 Berriak  
15:27 Onein  
15:49 Planik bai?  
16:09 Gipuzkoa kultura  
16:39 Zorion Agurrak  
16:44 Berriak  
16:59 Beranduegi.tv  
17:23 Magazinea  
18:23 Planik bai?  
18:43 Goierri Creation Center  
19:10 AsteON  
19:46 Beranduegi.tv  
20:10 Magazinea  
21:10 Planik bai?  
21:30 Bertso saioa  
23:21 Gipuzkoa kultura  
23:51 Abesbatza lehiaketa  
00:24 Planik bai?

DOMEKA 18

10:00 Hamaika.bit  
10:33 Bertso saioa  
12:24 Zorion Agurrak  
12:29 Onein  
13:01 Magazinea  
14:01 Planik bai?  
14:21 Berriak  
14:36 Onein  
14:58 Gernika Lumo rallya  
15:40 AsteON  
16:15 Zorion Agurrak  
16:20 Gipuzkoa kultura  
16:50 Ekogune  
17:20 Berriak  
17:35 Magazinea  
18:35 Jaiak: Arantzako baseritarren eguna  
19:16 Beranduegi.tv  
19:40 Magazinea  
20:40 Gernika Lumo rallya  
21:22 Zorion Agurrak  
21:27 Ekogune  
21:52 Magazinea  
22:27 Berriak  
22:42 Erreportajea  
23:16 Esatea libre  
00:31 Magazinea  
01:31 Gernika Lumo rallya

ASTELEHENA 19

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean gaur  
13:13 Zorion Agurrak  
13:18 Onein  
13:40 Gipuzkoa kultura  
14:10 Ekogune  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:10 Eguraldia  
15:13 Zorion Agurrak  
15:18 AsteON  
15:58 Erreportajea  
16:32 Zorion Agurrak  
16:37 Berriak  
17:02 Eguraldia  
17:05 Onein  
17:30 Abesbatza lehiaketa  
18:02 Beranduegi.tv  
18:22 Ekogune  
18:52 Goierri Creation Center  
19:19 Erreportajea  
19:52 Berriak  
20:12 Eguraldia  
20:15 Magazinea  
21:00 Gurean gaur  
22:00 Harmailatik  
22:45 Berriak  
23:05 Eguraldia  
23:08 Magazinea  
23:53 Harmailatik  
00:38 Berriak  
00:58 Eguraldia

MARTITZENA 20

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean gaur  
13:15 Zorion Agurrak  
13:22 Harmailatik  
14:07 Ekogune  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:07 Eguraldia  
15:10 Harmailatik  
15:55 Onein  
16:17 Abesbatza lehiaketa  
16:50 Berriak  
17:10 Eguraldia  
17:13 Esatea libre  
18:28 Harmailatik  
19:13 Gipuzkoa kultura  
19:43 Zorion Agurrak  
19:48 Berriak  
20:10 Eguraldia  
20:15 Magazinea  
21:00 Gurean gaur  
22:00 Berriak  
22:20 Eguraldia  
22:25 Magazinea  
23:10 Abesbatza lehiaketa  
23:43 Berriak  
00:03 Eguraldia

EGUAZTENA 21

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean gaur  
13:08 Hamaika.bit  
13:38 Erreportajea  
14:11 Herri-herri  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:08 Hamaika.bit  
15:41 Onein  
16:03 Harmailatik  
16:48 Berriak  
17:08 Eguraldia  
17:10 Goierri Creation Center  
17:37 Zorion Agurrak  
17:40 Beranduegi.tv  
18:00 Bertso saioa  
19:51 Berriak  
20:13 Eguraldia  
20:15 Magazinea  
21:00 Gurean gaur  
22:00 Ekogune  
22:30 Berriak  
22:50 Eguraldia  
22:55 Magazinea  
23:40 Gipuzkoa kultura  
00:10 Berriak  
00:15 Eguraldia

EGUENA 22

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean gaur  
13:15 Ekogune  
13:45 Hamaika.bit  
14:15 Onein  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:08 Hamaika.bit  
15:41 AsteON  
16:21 Ekogune  
16:51 Berriak  
17:11 Eguraldia  
17:14 Gernika Lumo rallya  
17:56 Hamaika.bit  
18:29 Planik bai?  
18:49 Herri-herri  
19:23 Zorion Agurrak  
19:28 Berriak  
19:48 Eguraldia  
19:54 Planik bai?  
20:15 Magazinea  
21:00 Gurean gaur  
22:00 Gipuzkoa kultura  
22:30 Planik bai?  
22:50 Berriak  
23:10 Eguraldia  
23:13 Magazinea  
23:58 Ekogune  
00:28 Berriak  
00:48 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Zarzuolako bi protagonistekin hitz egingo dugu

Izaskun Murgia Elkarte Liriko kideek azaroaren 17an, 18an, 23an eta 24an Gigantes y cabezudos zarzuolaren jarraipena egingo dugu Arrasate Irratian, eta bertan arituko diren Bittor Kortabarria eta Berta Amazorra abeslariarekin jar dungo dugu.

Juan Carlos Irizarren lan berriaren CDa zozketatuko dugu

Oñati eta Oñatiko auzoak izeneko diskoa aurkeztuko du astelehenean Juan Carlos Irizar musikariak. 19 abestiz osatutako lana da Irizarren azken grabaketa, eta, horren kopia bat nahi izanez gero, deitu 943 25 05 05 telefonora edo bidali mezu bat irratia@goiena.com helbidera.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Egubakoitza, 16	IRIZAR	Erquin, 11	943 79 12 39
Zapatua, 17	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Domeka, 18	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Astelehena, 19	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Martitzena, 20	ERKUDEN	Zarugalde, 38	943 77 16 30
Eguaztena, 21	ALBERTO AZKOAGA	Ferrieras, 1	943 79 15 15
Eguena, 22	M.FCA. AZKOAGA	Iturrioz, 17	943 79 79 99

BERGARA

Egubakoitza, 16	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Zapatua, 17	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Domeka, 18	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Astelehena, 19	MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
Martitzena, 20	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Eguaztena, 21	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 22	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05

OÑATI

Egubakoitza, 16	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Zapatua, 17	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Domeka, 18	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Astelehena, 19	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 20	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 21	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 22	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28

ARETXABALETA / ESKORRIATZA

Egubakoitza, 16	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99
Zapatua, 17	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99
Domeka, 18	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99
Astelehena, 19	FERNANDEZ	Eduardo Gorosari, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Martitzena, 20	FERNANDEZ	Eduardo Gorosari, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Eguaztena, 21	FERNANDEZ	Eduardo Gorosari, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Eguena, 22	FERNANDEZ	Eduardo Gorosari, 1 (Esk.)	943 71 48 28


Farmazien eskuko telefonotarako 2012 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 17°  
Min. 11°



Max. 14°  
Min. 7°


ZAPATUA, 17

Goizaldean hodeiak apurka ugaitzen joango dira; egunsentian hodei multzoak agertuko dira, bereziki mendebaldean.

DOMEKA, 18

Goizeko lehenengo orduetan mendebaldeko haizeak euria ekarriko du eta tenperaturek behera egingo dute.

EUSKAL HERRIA



Zapatu arratsaldean fronte bat iritsiko da, haizeak mendebaldera egin, euritara jo eta freskatu egingo du.

GAZTE INFORMAZIOA

LANA

Kanpainetan laguntzeko erdi mailako teknikarien lan poltsa osatzea. Gipuzkoako Foru Aldundian aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko, kanpainetan laguntzeko erdi mailako teknikarien lan-poltsa osatzeko aukeraketa prozesua. Baldintzak: ingeniari tekniko, unibertsitateko diplomaduna edo balioakidea. Epea: azaroak 29.

PRAKTIKAK

Europako Kontseiluan praktika ez ordainduak. Deialdigilea: Europako Kontseilua. Baldintzak: Europako Kontseiluko edozein herrialdekoa izatea, unibertsitateko titulazioa izatea eta ingelesa edo frantsesa hitz egitea. Lanpostu kopurua: 2. Epea: azaroaren 30a. Informazioa: Council of Europe; Avenue de l'Europe F; 67075 Strasbourg Cedex

(Frantzia). Telefona: +33 (0) 3 88 41 20 00

DIRULAGUNTZAK

Musika grabazioak. Musika taldeen arte produkzioa sustatzeko, 2012an egindako grabazio eta edizio kostuetan laguntzeko. Baldintzak: taldekideen erdiak arrasatearrak izatea eta azken bi urteetan dirulaguntzarik jaso ez izana. Dirulaguntza: gehienez 680 euro. Eskaera azaroaren 30a baino lehen egin behar da.

Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa.

2011-2012 ikasturtean begirale titulua edo zuzendari titulua ateratu duten arrasatearrei laguntza ematea da helburua. Dirulaguntza: matrikula kostuaren erdia. Eskaera azaroaren 30a baino lehenago egin behar da.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO: Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

## HILDAKOAK

**Eusebio Agirre Alzelai.** Oñatin, azaroaren 3an. 87 urte.  
**M. Carmen Herrarte Ercilla.** Arrasaten, azaroaren 6an. 87 urte.  
**Luis Sanabria Martinez de Bujo.** Arrasaten, azaroaren 7an. 78 urte.  
**Agapito Gutierrez Herrero.** Arrasaten, azaroaren 7an. 79 urte.  
**Maria Epelde Arana.** Bergaran, azaroaren 7an. 90 urte.  
**Nati Elgarresta Gallastegi.** Bergaran, azaroaren 7an. 81 urte.  
**M. Raquel Inda Aranzabal.** Eskoriatzan, azaroaren 8an. 64 urte.  
**Josefa Ondarra Juaristi.** Elgetan, azaroaren 8an. 76 urte.  
**M. Luisa Ruiz Angulo.** Bergaran, azaroaren 8an. 86 urte.  
**Gregorio Moiuia Igartua.** Oñatin, azaroaren 10ean. 88 urte.  
**Jesus M. Agirre Larrañaga.** Arrasaten, azaroaren 10ean. 63 urte.  
**Angel Arregi San Pedro.** Arrastan, azaroaren 10ean. 55 urte.  
**Eugenio Jaso Rodrigo.** Bergaran, azaroaren 10ean. 82 urte.  
**Roman Mujika Laspiur.** Bergaran, azaroaren 11n. 88 urte.  
**Camilo Sarobe Orbegozo.** Bergaran, azaroaren 12an. 84 urte.  
**Juanita Unzilla Oriá.** Bergaran, azaroaren 13an. 88 urte.  
**Julian Cabo Sanabria.** Antzuolan, azaroaren 14an. 77 urte.  
**Martina Pildain Etxeberria.** Bergaran, azaroaren 15ean. 99 urte.

## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.


Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

**Goiena: irakurriena Debagoiengan.**

## ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

**ARRASATE** Goiena: Oñalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.  
**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.  
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.  
**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.  
**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.  
**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.  
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## URTEURRENA



## Vicente Bergaretxe Aranzabal



2011ko azaroaren 10ean hil zen, 80 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 18an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

## Susana Larrañaga Guillen



2008ko azaroaren 13an hil zen.

Laugarren urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA



## Juanita Sologaitoa Iriarte



2011ko azaroaren 17an hil zen, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen, eta inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

## Manuel Muniategi-Andikoetxea Legorburu



Lehen urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

## Francisco Cabieces Cabieces



2011ko azaroaren 14an hil zen, 91 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 18an, 12:00etan, Osintxuko elizari.

*Beti gure bihotzetan*

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

## Carlos Gomez Gonzalez de San Pedro



2009ko azaroaren 14an hil zen.

Hirugarren urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

*Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKER ONA

## Eusebio Agirre Alzelai



Oñatin hil zen 2012ko azaroaren 3an, 87 urte zituela.

Une honetan gurekin izandakoei, hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

*Alkartako Eusebio                      zeure ardien artean  
Aloñako magalean                      beti egongo zara  
Duruako larreetan                      gure bihotzetan*

Ondra-meza zapatuan izango da, azaroaren 17an, 19:30ean, agustindarren elizari.

Oñatin, 2012ko azaroaren 16an.

## ESKER ONA

## M. Raquel Inda Aranzabal



Eskoriatzan hil zen 2012ko azaroaren 8an, 64 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joan edo gurekin izan zaretenoi, eskerrik asko bihotz-bihotzez sendikoen izenean.

*Joan zara baina gure artean jarraituko duzu.*

Eskoriatzan, 2012ko azaroaren 16an.

## OROIGARRIA

## Julian Cabo Sanabria



Amaia Mundiñano Goienako langilearen aitaginarreba

2012ko azaroaren 14an hil zen, 77 urte zituela.

Bat egiten dugu sendideen saminarekin.

**goiena**

Goiena Komunikazio Taldea.  
Debagoiengan, 2012ko azaroaren 16an.

## ESKER ONA



## Julian Cabo Sanabria



2012ko azaroaren 14an hil zen, 77 urte zituela.

Julian Cabo Sanabriaren familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak. Lerro hauen bidez, banaka egin ezin izanagatik, sendiarengana hitz lasaigarriekin hurbildu diren guztiak eta hileta-elizkizunera agertu diren guztiak eskertu nahi ditu.

Antzuolan, 2012ko azaroaren 16an

**OÑATI 'Su txikian' antzezlan**  
Glu-Glu antzerki taldeak *Su txikian* antzezlan eskainiko du Oñatiko Santa Ana aretoan. Otegik eta Egigurenek Txillare baserrian hasitako elkarrikeria izango du oinarri antzezlanak. Bi emanaldi eskainiko dituzte: 18:00etan euskaraz eta 20:30ean gaztelaraz. Sukalde barruko kontuak eskainiko dituzte. Etzi, domeka, Santa Ana 18:00etan.



GLU-GLU



GOIENA

**ARRASATE 'Gigantes y cabezudos' zarzuela**

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak *Gigantes y cabezudos* zarzuela eskainiko du. Manuel Fernandez Caballero maisuaren lana da eta letrak Miguel Etxegarai eta Eizaguirrenak dira. Bi emanaldi izango dira: zapatuan eta domekan. Bihar eta etzi, zapatua eta domeka, Amaia antzokian 19:30ean.

## MUSIKA

**OÑATI 'Emakumeak taula gainean'**

Hiru hitzordu gaztelekuan: 22:00etan, *Stereo* Miren Gaztañagaren dantza ikuskizuna; 22:45ean, La Tia Karmen Kataluniako talde feministaren saioa; eta 00:00etan, Korta y Pega DJaren saioa goizeko ordu biak arte.

Gaur, egubakoitza, Gaztelekuan 22:00etan.

**BERGARA Petti, Laino skate parkean**

Petti musikari nafarrak kontzertua eskainiko du. Gaur, egubakoitza, Laino skate parkean 22:30ean.

**BERGARA Infernua jaialdia**

Bergarako Gaztetxean doinu bortitzak eta ilunak Gauntlet, Lined, Noxbleed eta Katabatik taldeen eskutik.

Gaur, egubakoitza, Gaztetxean 21:30ean.

**OÑATI Australiako country-folka**

Roller One bikote eta Justin Cusack bakarlarri australiarrak. Country-folk musika egiten dute.

Gaur, egubakoitza, Antton tabernan 20:00etan.

**ESKORIATZA Santa Zezilia ospatzeko Bandaren kontzertua**

Parrokian izango da. Bihar, zapatua, Parrokian 20:00etan.

**BERGARA Old Kerry Mckee eta Pesca Con Dinamita**

Blues garaikidea jorrazten duen Suediako artista honek *Wooden Songs* izena daraman diskoa kale-ratu berri du. Pesca Con Dinamita, ostera, Bergarako musika bikotea da. Bertso sorta eskainiko dute, kantu ezagun eta bereziak folkera moldatuz.

Bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean 19:00etan.

**BERGARA DJ jaialdia**

Doako DJ jaialdia egingo da Zabalotegin gaztetxoendako.

Bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan 18:30ean.

**BERGARA Bergarako Udal Musika Bandaren kontzertua**

Santa Zeziliako kalejira egingo du lehenik Udal Musika Bandak, eta ondoren kontzertua emango du Udal Pilotalekuan.

Etzi, domeka, Udal Pilotalekuan 12:30ean.

**OÑATI Juan Carlos Irizarren diskoaren aurkezpena**

## NON-ZER

**Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**  
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

AZAROA 16  
AZAROA 22

*Oñati eta Oñatiko auzoak* du izena Juan Carlos Irizarren azken lanak. 19 doinu berri batzen ditu diskoak; gehienak Oñatiko auzoei buruzkoak. Ilunpetan argazki taldearen kolaborazioa izan du lan berri honetan Irizarrek. Azaroaren 19a, astelehena, Kultura etxean 12:00etan.

## ANTZERKIA

**ELGETA 'Dos hombres solos...' antzezlan**

*Dos hombres solos sin punto com ni na* antzezlan komikoa. TeatroSi taldeko Manolo Medina eta Rodrigo Ponce de Leon izango dira aktore protagonistak.

Gaur, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian 22:30ean.

## IKUSKIZUNAK

**BERGARA Eriz magoa Osintxun**

*Azaroa gaztañatan* ekimenaren barruan Eriz magoa Txuringo tabernan.

Gaur, egubakoitza, Txuringo tabernan 22:30ean.

**OÑATI Gaztemaniak!: Txarango eta D-Pintxos**

Gaztemaniak ekimenaren barruan Kataluniako Txarango taldeak joko du gaztelekuan; horien aurretik, Legazpiko D-Pintxos igoko dira taula gainera. Reggae, dub eta ska doinuak nahasten dituzte Txarango kataluniarrek euren emanaldietan. Sarrera 7 euro izango da.

Bihar, zapatua, Gaztelekuan 22:30ean.

**BERGARA 'Martxa!' ikuskizuna Osintxun**

Dohainik ikusi ahal izango da Poxpolo ta Konpainiaren ikuskizuna. Kutxaren laguntzaz antolatute saioa, eta, hain zuzen ere, *Azaroa gaztañatan* ekimenaren barruan dago.

Etzi, domeka, Osintxuko frontoian 17:30ean.

## DANTZA

**ESKORIATZA Herrixa Dantzan**

Gidatutako dantzaldi irekia, Euskal Herriko eta Europako beste eskualde batzuetako dantza tradizional ludikoekin osatutakoa: sokan, taldean, bikotea... dene-tarik. Sarrera doan.

Etzi, domeka, Unibertsitateko kaperan 18:30ean.

## OSPAKIZUNAK

**OÑATI Markelen lagunartearen bazkaria**

Denboraldi amaierako bazkaria egingo du Markelen lagunarteak Zubillagako Zotz tabernan.

Bihar, zapatua, Zotz tabernan 14:30ean.

**ELGETA Pintxo-domeka + Bergarako trikiti ikasleak**

*Udazken koloreak Elgetan* ekimenaren barruan. Pintxoak euro baten truke eta gustukoena bozkatzeko aukera.

Etzi, domeka, Herriko kale eta tabernetan 12:30ean.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

**ESKORIATZA 'Barrura begiratzeko leihoak' dokumentala**

5 euskal presori buruzko dokumentala. Sarrera doan.

Gaur, egubakoitza, Ibarraundi museoan 18:30ean.

**OÑATI Chamonix-Zermatt mendi-eski zeharkaldia**

2012ko udaberrian, Aloña Mendi elkarteko kideek alpeetako zeharkaldi ezagun eta ikusgarria egin zuten. Bertako irudiekin azalduko dituzte bizitako uneak. Mendi hamabostaldiaren barruan.

Gaur, egubakoitza, Kultura etxean 19:30ean.

**OÑATI 'Bugaboos/Kanada'**

2009an Ibon Santos eta Iñaki Arenaza bergararrek eginiko eska-

lada bidaia. Pareta alpetar horiek urrun daudela eta eguraldi eskasa dutela esan ohi da, bikotearen erronka handiagotuz. Mendi hamabostaldiaren barruko eman-dia da.

Azaroaren 20a, martitzena, Kultura etxean 19:30ean.

**OÑATI Juley Ladkh emanaldia Felipe Uriarterekin**

Felipe Uriartek zuzenduriko ikus-entzunezkoa. India iparraldean dago Ladakh, Tibet txikia bezala ezagutzen dena. Bidaia honetan bi seimilakotara egingo dira igoerak ikusiko ditugu, Kang Yatzell (6.150 m) eta Stok Kangri (6.147 m). Mendi hamabostaldiaren barruan.

Azaroaren 21a, eguaztena, Kultura etxean 19:30ean.

## BERTSOLARITZA

**ESKORIATZA Bertso afaria Apotzagako merenderoan**

Bertsolariak: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso.

Bihar, zapatua, Apotzagako merenderoan 21:00etan.

## UMEAK

**ELGETA Eskolako gaztaina-errejana**

Herriko plazan, eguraldi ona baldin bada.

Gaur, egubakoitza, Herriko plazan 15:00etan.

## ERAKUSKETAK

**ANTZUOLA Erakusketa: 'Lau emakume, lau ikuspuntu'**

Pili Azkarate, Maite Azkargorta, Koro Iraegi eta Itziar Murgizu Bergarako lau emakume artistaren lanak erakutsiko dituzte Antzuolako Olanaren.

Bihar, zapatua, Olanan 18:30ean.

## TOPAKETA

**BERGARA Autokarabanisten topaketa**

Autokarabanisten topaketa bat antolatu da Bergaran.

Aste bukaera osoan.



MARC PUIG



DOCTOR DESEO

**BERGARA** Doctor Deseo taldearen emanaldia

*Al amanecer seguir soñando* diskoaren bira bukaera kontzertua emango du Doctor Deseo musika taldeak Bergaran. Hontza elkarteak antolatutako kontzertua da Bergarako Udalaren laguntzarekin.

Bihar, zapatua, Udal pilotalekuan 21:30ean.

**IRTEERA****ELGETA** 'Gure herriko mugarriak'

*Udazken koloreak* Elgetan ekimenaren barruan.

Etzi, domeka, Herriko plazan 10:00etan.

**IKASTAROAK****ARRASATE** Bat-batekotasun artistikoren tailerra

Laia Bedos Bonaterra irakaslearen eskutik izango da.

Gaur, egubakoitza, Emakume Txokoan 18:00etan

**BERGARA** Salsa ikastaroa gaztetxean

Salsa ikastaroa egingo dute gaztetxean "jende desberdina ezagutu eta gerria mugitzeko" asmoarekin. Lotsak alde batera utzi eta ikastaroan parte hartzera animatu nahi dituzte gazteak.

Bihar, zapatua, gaztetxean 11:00etan.

**AZOKA****ARRASATE** 'Berria' egunkariaren aldeko tonbola

Ibai Arte eta Udalaren laguntzarekin, *Berria* egunkariaren aldeko tonbola antolatu du Arrasateko Euskalgintzak. Seber Altuben izango da.

Bihar, zapatua, Seber Altube plazan 10:00etan.

**ZINEMA****ARRASATE****KULTURATE**

**Mujeres de El Cairo**  
Astelehenean: 19:00.

**BERGARA****ZABALOTEGIN**

**La invención de Hugo**  
Domekan: 17:00.

**Los descendientes**  
Domekan: 19:30.

**El skylab**  
Eguaztenean: 20:00.

**GAZTETXEAN**

**Leaving Las Vegas**  
Domekan: 18:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEAN**

**Crepusculo: Amanecer parte 2**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:30.  
Domekan: 19:30, 22:30.  
Astelehenean: 19:30.

**Hotel Transilvania**  
Zapatuan eta domekan: 17:00.

**Linea continua + Play Gravity**  
Eguenean: 20:00.

**ARETXABAETA****ZARAIA ARETOA**

**Si de verdad quieres**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:00.  
Domekan: 19:30.  
Astelehena: 16:00.

**Brave**  
Zapatuan eta domekan: 17:00.

**EIBAR****COLISEO**

**Salvajes**  
Egubakoitzean: 22:30.  
Zapatuan: 17:00, 19:45, 22:30.  
Domekan: 17:00, 20:00.  
Astelehenean: 20:30.

**A roma con amor**  
Egubakoitzean: 22:30.  
Zapatuan: 17:00, 19:45, 22:30.  
Domekan: 17:00, 20:00.  
Astelehenean: 20:30.

**COLISEO ANTZOKIA**

**Crepusculo: Amanecer parte 2**  
Egubakoitzean: 22:30.  
Zapatuan: 19:45, 22:30.  
Domekan: 20:00.  
Astelehenean: 20:30

**Campanilla: el secreto de las hadas**  
Zapatuan eta domekan: 17:00.

**GASTEIZ****FLORIDA**

**Crepusculo: Amanecer parte 2**  
Egubakoitzean domekan: 12:00, 17:15, 19:45, 22:30.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 00:30.  
Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:45, 22:30.

**Campanilla: el secreto de las hadas**  
Egubakoitzean domekan: 12:00, 16:45.

**Baztan**  
Egubakoitzean domekan: 18:30, 20:30, 22:30.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 00:30.  
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Todo es silencio**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 12:00, 17:30, 00:35.  
Domekatik eguenera: 17:30.

**Argo**  
Egubakoitzean eguenera: 20:00, 22:30.

**En la casa**  
Egubakoitzean domekan: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 00:30.  
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Lo imposible**  
Egubakoitzean eguenera: 17:45, 20:15, 22:30.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 00:30.  
Eguenean: 17:45, 22:30.

**Las aventuras de Tadeo Jones**  
Zapatuan eta domekan: 12:00, 16:45.

**La parte de Los Angeles**

Egubakoitzean domekan: 18:30, 20:30, 22:30.  
Zapatuan eta domekan, baita: 00:30.

**Hotel Transilvania**  
Zapatuan eta domekan: 12:00, 16:45.

**Skyfall**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:30, 21:15, 00:00.  
Domekan: 18:30, 21:15.  
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:45.

**Wagon Master**  
Eguenean: 20:00.

**BOULEVARD**

**Crepusculo: Amanecer parte 2**  
Egunero: 18:00, 19:00, 20:15, 21:15, 22:30.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:15, 0:45, 23:30.  
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45, 16:45, 17:15.

**En la mente del asesino**  
Egunero: 17:50, 20:00, 22:10.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:20.  
Zapatuan eta domekan, baita: 15:40.

**Dracula**  
Zapatuan eta domekan: 16:25.

**Lo imposible**  
Egunero: 17:50, 18:50, 20:10, 22:30.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 23:30, 0:50.  
Zapatuan eta domekan: 15:30.

**Skyfall**  
Egunero: 18:45, 21:30.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:15.  
Zapatuan eta domekan, baita: 16:00.

**Argo**  
Egubakoitzean domekan: 19:30, 21:55.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:20.  
Astelehenetik eguenera: 17:50, 20:10, 22:30.

**Hotel transilvania**  
Egunero: 18:35, 20:35.  
Zapatuan eta domekan, baita: 16:35.

**Campanilla, el secreto de las hadas**  
Egunero: 18:40.  
Zapatuan eta domekan, baita: 16:40.

**Sinister**  
Egunero: 20:10, 22:25.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:40.

**Looper**  
Egunero: 22:35.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:45.

**Campanilla, el secreto de las hadas 3D**  
Zapatuan eta domekan: 15:30.

**Las aventuras de Tadeo Jones**  
Egunero: 17:30.

**GORBEIA**

**Crepusculo: Amanecer parte 2**  
Egunero: 16:30, 17:30, 18:45, 19:45, 21:00, 22:00.

Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:15, 23:15.  
Zapatuan eta domekan, baita: 16:30.

**Los amos del barrio**  
Egunero: 20:20, 22:30.

**En la mente del asesino**  
Egunero: 17:50, 20:00, 22:10.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:20.  
Zapatuan eta domekan, baita: 15:40.

**Skyfall**  
Egunero: 19:00, 20:30, 21:50.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 23:30.  
Zapatuan eta domekan, baita: 16:00.

**Lo imposible**  
Egubakoitzean domekan: 18:00, 20:15, 22:30.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:45.  
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45.

**Campanilla, secreto de las hadas**  
Egunero: 18:10, 20:00.

**Campanilla, el secreto de las hadas 3D**  
Zapatuan eta domekan, baita: 16:10.

**Hoel Transilvania**  
Egunero: 17:30, 19:30.  
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30.

**Hotel transilvania 3D**  
Egunero: 18:30.  
Zapatuan eta domekan: 16:30.

**Sinister**  
Egunero: 21:30.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 23:45.

**Looper**  
Egunero: 18:10.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:40.

**Las aventuras de Tadeo Jones**  
Egunero: 17:45.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 15:45.

**EN LA CASA** ★★★★★

**Zuzendaria:** François Ozon.

**Herrialdea:** Frantzia.

**Urtea:** 2012.

**Aktoreak:** Fabrice Luchini, Ernst Umhauer, Kristin Scott Thomas, Emmanuelle Seigner.

**Iraupena:** 105 minutu.

**Fikzioaren enigma**

Sarritan esaten dute idazleek lantzen ari diren istorioan pertsonaiak berezko bizitza hartzen dutela eta nola eurek horiek ezarritako bidea jarraitzen duten. Suposatzen dut sorkuntza artistikoren prozesua nahiko misteriozkoa izango dela. Errealitatea eta irudimena nahasten dira fikziozko lan bat burutzeko. Fikzioa ez da gezurraren sinonimoa. Fikzioan errealitatea, irudimena, desioak, ametsak nahas daitezke. Sortzaileak bere lana egiten du eta hori irakurleari zuzenduta dago. Gero irakurleak, eta zineman ikusleak, lan hori buruzko interpretazioa egingo du. Horrela, lan horrek bide desberdinak har ditzake.

*En la casa* filmean horri buruz hitz egiten da. Institutuko irakasle batek idazteko gaitasun handia duen ikaslea ezagutuko du. Irakasleak ez du lortu idazle ospetsu bat izatea eta ikusten du ikasleak baduela ahalmena berak lortu ez zuena lortzeko. Bien artean nahiko harreman bereziak sortuko dira. Ikasleak errealitatearekin lotuta dauden idatziak aurkeztuko dizkio eta irakasleak diotenaren arabera istorioari biraketa desberdinak emango dizkio. Hala, irakasleak ikaslearen idatziei buruzko mendekotasuna nabaritu du. Idatziak ematen duenez, eguneroko gauzak kontatzen ditu, baina hori horrela da? Idatzietan dena egia da, gezurra, edo bietatik dago?

Ozon zuzendariak ederki nahasten ditu komedia eta suspenseko elementuak (Woody Allen eta Hitckocken *La Ventana indiscretaren* itzala igartzen da) errealitate eta fikzioaren arteko harreman enigmatikoei buruz hitz egiteko. Filma zuzendariaren eta ikuslearen arteko joko kezagarri eta dibertigarria bihurtzen da. Gero, ikusle bakoitzak erabaki beharko du zer den errealitatea eta zer dagoen irudimenagatik sortuta. Filmean errealitatea eta irudimena dira fikzioaren osagai garrantzitsuak. Eta gizakiok beharrezkoa dugu fikzioa bizitzari aurre egiteko.

ANTONIO ZABALA

**"DOS HOMBRES SOLOS, SIN PUNTO COM... NI NÁ"**

Rodrigo Ponce de León Manolo Medina

**Urteko komediarik onena!**

**ANTZERKIA**  
Dos hombres solos, sin punto com... ni ná

**Azaroak 16, barikua, 22:30ean**

**ELGETAKO espaloia**  
KAFE ANTZOKIA

Maala 2 ELGETA  
943 78 90 85



ana zubillaga ©

goiena

2012-11-16

BUKATZEKO

## Txakurren 'paseatzailea' Arrasaten

- ▶ Markel Lopez de Bergarak Bizibili enpresa sortu du txakurren inguruko hainbat zerbitzu eskaintzeko
- ▶ Zaintza zerbitzua ere ematen du, animalia jabeek etxetik kanpo joan beharra badaukate

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Krisi garaian ideia berritzaileak ugaritu egiten direla esaten da sarri. Bada, Markel Lopez de Bergara arrasatearraren kasuak teoria hori berresten du.

Langabezia zegoenez eta animaliak gustuko dituenenez, inguruko lagun txakurrak paseatzera ateratzen hasi zen. Eta egun batean, zera bururatu zitzaion: "Zergatik ez zerbitzu hori bera eskainiko duen enpresa sortu?". Hasieran burutapen hutsa izan zena errealitate bihurtu da orain. Bizibili izeneko enpresa abian ipini berri du. "Jendea oso lanpetuta ibiltzen da, eta, askotan, eta batez ere astegunetan, ez du txakurra ateratzeko denborarik izaten. Herritik kanpo lan egiten dutenak, esaterako, oso larri ibiltzen dira. Zentzu horretan hutsune bat ikusi nuen, eta horrela jaio da Bizibili".

### Paseo luzeak eta motzak

Bizibili enpresak zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu, baina arrasatearrak kontatu digu norberaren beharren arabera paseoak ematen dituela: "Kasu batzuetan 25-30 minutuko paseoa izaten da txakurra bizi den inguruan, baina ordubetekoak ere



Markel Lopez de Bergara bi txakurrekin paseoan. | ARRITXU BARRUSO

izan daitezke. Komenigarria da noizean behin txakurrari paseo luzeak ematea".

Horrez gain, txakurrak ile-apaindegira edo albatariaren-gana eramateko zerbitzua ere eskaintzen du.

### 'Kanguru' zerbitzua

Dena dela, beharbada *kanguru* zerbitzua da Bizibili enpresaren zerbitzu berritzaileena. Kasu horretan, gainera, edozein maskotarentzat da erabilgarria: "Animaliaren jabeak egun batzuetarako kanpora joaten badira, maskota zaintzeaz arduratzen naiz, baina haren etxean bertan. Hau da, eurekin adostu moduan etxera joaten naiz eta maskota paseatzera atera, jaten eman edo egin beharrekoak egiten dizkiot. Oso eroso da jabeendako".

Internet bidez ari da sortu berri duen enpresa ezagutzera ematen. [www.bizibili.com](http://www.bizibili.com) webgunean sortu du eta harrituta dago izaten ari den bisita kopuruarekin: "Pozik nago. Hasi beretik ez naiz egin eta dagoeneko jaso ditut dei batzuk. Webgunean ere bisita asko izaten ari naiz".

AEBetan eta filmetan ikusita geneukan. Bada, Arrasatera ere iritsi da txakurren *paseatzailea*.

## AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



## Apokalipsia

o imposible pelikula ikusteko egundoko ilararak sortu dira. BEZaren igoerak askorik inportatutako gabe. 2004ko tsunamiak Thailandian harrapatutako familia baten gorabeherak kontatzen ditu filmak. Benetako gertaeretan oinarrituta.

Pelikula espainola da. Baina Hollywooden estilora egina. Drama, intriga. Efektu berezi mordoak. Lehen lau egunetan, 1,4 milioi ikusle.

*Apocalypse* ingelesa da. Bi orduko telesaila. Britainia Handian 2,5 milioi pertsona ikusi dute. Steve Brosnan gazteari munduaren akabera iritsi dela sinestarazten diote. Hipnosia eta gezurrak erabiltuta. *El Show de Truman* bezalakoa da. Diferentzia batekin: hau benetan gertatua da.

Derren Brown mentalista britainiarra izan zen ardura-duna. 200 laguneko taldea zuen. Zientzialariak, aktoreak. Hackerak, psikologoak. Mutil gazteari meteorito batek lurra jo zuela sinestarazi zioten. 48 orduz kirioak dantzan eduki zuten.

Brosnan nagia eta gaizki hezia zela diote. Hura pertsona hobea bihurtzea zela helburua. Hunkibera eta ekin-tzailea. Beraiek pertsona onak direla pentsatuko dute.

Geureak ahazteko, beste batzuen miseriekin gozaten dugu. Gero eta apokaliptikoa, hobeto.

**Hemen**  
ascensores • igogailuak  
debagoiena

Informazio gehiagorako:

Tel.: 691 52 22 04 / 943 04 40 01

[debagoiena@ascensoreshemen.com](mailto:debagoiena@ascensoreshemen.com) • [www.ascensoreshemen.com](http://www.ascensoreshemen.com)

Konpetentziak prezioa jaitsi eta guretara parekatu ostean,  
hitz egin dezagun zerbitzuaz

90€

oinarizko kontratua

24 ordu  
erreskate eta matxuretan

Euskarazko zerbitzua

Urtebeteko kontratuak

115€

piezak barne